

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-05-20
EGUBAKOITZA
465. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Athleticeko jokalariak Elgetan



Llorente, Javi Martinez eta Iker Muniainek kitatu dute taldeak Elgetarekin zuen zorra | 56

GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN
Alkategai guztien elkarrizketak | 17



Hamabost autobus abiatuko dira bailaratik Realeko partidura | 57



'Bon Appetit' filmeko aktoreak, tartean Unax Ugalde, Oñatin | 58



Bergarako Udal Brigadako langilea hauteskontziak zigilatzen.

ASTELEHENEKOAN INFORMAZIO GUZTIA



Asteleheneko *Goiena* paperak hauteskundeetako informazio zabalagoa jasoko du: herririk herriko datuak, balorazioak, eguneko gertakizunak... Interneten uneoro eta telebistan domekan zuzenekoan 19:45ean.

50.919 debagoiendar daude deituta bailarako bederatzirako udalekuek zinegotzi-zerrendak bozkatzera, eta hortik bailarako 115 zinegotziak irtegarak dira. Horrekin batera, EAEko hiru batzar nagusietako zerrendak ere bozkatzeko ditugu. | 2

MONIKA BELASTEGI

SINADURAK

- INAKI CASAS | 6
- 6 | MIRARI ALTUBE
- TXOMIN AZPITARTE | 53
- 54 | ALAITZ JAUREGI
- AINZANE OIARBIDE | 64

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 9 | HERRIAK 10 | KIROLA 57 | KULTURA 58 | ZURE IRAGARKIAK 59 | TELEBISTA-IRRATIA 60 | EZKONTZAK 61 | ESKEKAK 61 | NON-ZER 62

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48



BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK 2011

badago gipuzkoa hobetzerik

[zerbaiz egin daitekeela pentsatzean, egia bihurtzen da] F. Hebbel



BOZKATU



M-22 Dena dago neurtuta, boto eskubidea bete ahal izateko

- ▶ Hauteskunde-prozesua luzea eta oso zehatza da
- ▶ Gutxienez hiru arduradun daude mahai bakoitzeko
- ▶ Botoen errekontua ekintza publikoa da



Mahaiko kideak, botoak zenbatzen 2007ko udal hauteskundeetan, Elgetan. | JOSETXO ARANTZA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Etzi, domeka, 50.919 debagoiendar daude deituta bailarako zortzi udaletarako zinegotzi-zerrendak bozkatzera; hortik, bailarako 115 zinegotziak irtengo dira. Horrez gain, gero EAeko hiru batzar nagusietako zerrendak ere bozkatuko ditugu. Hona hemen udal eta foru hauteskundeon inguru-ko zenbait datu eta bitxikeria.

Salbuespen gutxi erroldatuen gainean

Ez dira gauza bera errolda eta hautesle kopurua. Bozkatu ahal izateko, Espainiako nazionalitatea izan behar da, adinekoa izan –hauteskundeon egunean 18 urte betetzen dituztenek ere bozkatu dezakete– eta hauteskunde-erroldan agertu. Ezin dute bozkatu eskubide hori epaitegian zigor bidez kendu dietenei, legez bozkatzeko gai ez aitortuta daudenek eta epaileak hala baimenduta ospitale psikiatriko baten ingresatuta daudenek.

Europako Batasuneko biztanleek eta Espainiarenak bozkatzeko hitzarmena duten herrial-

DATUAK

968

ZINEGOTZI

Gipuzkoan 968 zinegotzi aukeratuko ditugu, 2007an baino 16 gehiago.

22.184

HAUTESLE GUTXIAGO

Bitxikeria gisa, 2007an baino 15.368 gipuzkoar gehiago dago, baina 22.184 hautesle gutxiago.

500

HAUTESLE

Mahai bakoitzean gutxienez 500 lagunek izan behar dute bozkatzeko eskubidea; gehienez, 2.000k.

deetako biztanleek ere bozkatu dezakete, baina bakarrik udal hauteskundeetan, ez batzar nagusietakoetan. Gainera, alde zuretik jakinarazi behar dute.

Otsailaren leian itxitako errolda

Hauteskunde-errolda Espainiako Hauteskunde Batzordeak egiten du, bere zuzendaritzapean dagoen Hauteskunde-erroldaren Bulegoaren bidez. Azken hori Espainiako Estatistika Erakundearen (INE) barruan dago. Udalek ofizioz tramitatzen dute hautesleen izenematea.

Normalean, hauteskunde-eguna baino bi hilabete lehenagoko lehenengo egunean itxitako errolda erabiltzen da. Baina, oraingoan, otsailaren 1ekoa erabiliko da.

Lau orduko baimen ordaindua

Dagokion erkidegoaren gobernuak edo Espainiako administrazioak behar diren neurriak

Botoa emateko leku berriak

ARRASATE

Arrasaten, bi hautesleku berri daude, beste biren trukean: orain arte Bedoñabeko herri eskolan bozkatzen zutenek Etxaluzera joan beharko dute aurten, eta Musakolakoan zutenek mahaia Arrasate Institutuak kiroldegi ondoan duen egoitzara joan beharko dute.

BERGARA

Orain arte hauteslekua Seminarioaren zuten bergarrek auzen frontoira joan beharko dute bozkatzera.

ARETXABAETA

Txarapea Ibilbidea berria da, eta bizilagunek 4. sekzioan bozkatuko dute lehen aldiz, auzoetako hautesleen leku berean.

hartuko dituzte domekan lan egin behar duten hautesleek euren lan-jardunean gehienez lau ordu libre eta ordaindutakoak izan ditzaten, bozkatu ahal izateko. Egun erdiko lan-eguna dutenei proportzio horretan murriztuko zaie baimena.

Dagozkien hauteskunde-mahaira joan ezin duten hautesleek postaz bozkatu ahal dezaten neurriak ere hartzen dira.

Agiri kadukatuak ere erabil daitezke

Honako agiriek bakarrik balio dute norbera hauteskunde-mahaian identifikatzeko: Nortasun Agiria (ez tramitatzen dagoen agiri berriaren ziurtagiria, horretan ez baita argazkia agertzen), argazkidun pasaporteak, argazkidun gida-baimena, Europako Batasuneko biztanleen erresidentzia-txartela edo atzerriarren nortasun-txartela.

Berdin balio dute agiri horiek kadukatuta baldin badaude, baina beti agiriak eurak izan behar dira; fotokopiek ez dute balio.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

Eskaintza hau baliagarria izango da 2011/06/30ra arte. Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.



eta 20:00etan itxiko dituzte atek. Horren aurretik, mahaiko presidenteak ozen iragarri behar du bozketa bukatzera doala. 20:00etan inor baldin badago hauteslekuan edo hauteslekuaren sarrera barrualdean, bozkatzeko eskubidea izango du, baina ezin izango da beste inor sartu.

Postaz jasotako botoak, azkenekoak

Posta Zerbitzuak domekan, 09:00etan, eramango du mahaietara haiei zuzendutako posta, eta domekan jasotzen duen beste posta guztia mahaietara bidaltzen jarraituko du, 20:00ak arte.

Hauteslekua itxi eta bertan zeuden guztiek bozkatu ondoren, postaz jasotako boto guztiak dagozkieen mahaietan sartzen dira eta hauteslearen izena idazten da botoa eman dutenen zerrendan.

Presidenteak, bokalak eta ikuskatzaileak

Mahai bakoitzean derrigor egon behar dira presidenteak eta bi bokal. 08:00ak eta 08:30 artean, bertan egon daitezkeen ikuskatzaileen kredentzialak jasoko dituzte.

Ikuskatzaileak alderdiek aukeratu dituzte, eta bakoitza mahai bakarrean egon daiteke. Erreklamazioak eta protestak egin ditzakete. Desberdina da ahalduna; horiek ere alderdien ordezkariak



Bergaran, hauteslekua prestatzen eguaztenean. | MONIKA BELASTEGI

dira, baina euren alderdia ordezkatzeko hauteskunde guztietan, eta hautesleku batetik bestera ibil daitezke.

Mahaikideak eta ikuskatzaileak dira beti bozkatzeko azkenak. Posta bidezko botoak ontzira bota eta gero bozkatzeko dute euren.

Emaitzak berehala egiten dira publiko

Boto-zenbaketa ekintza publikoa da. Presidenteak banan-banan atera behar ditu gutunazalak ontzitik, haiek ireki eta ozen irakurri eta, gero, bistan utzi.

Boto kopurua egiaztatuko dute. Protestarik baldin badago, gehiengo erantzun beharko du mahaia. Bukatzeko, mahaiko emaitza ozen esango du presidenteak: hautesle-kopurua, boto-emaileena, irakurritako botoena, balio bako botoena eta balio duten botoena eta, horien barruan, zurizko botoena eta hautagaitza bakoitzak lortutako botoena.

Berehala, mahaia publiko egingo ditu emaitzak, hautesleku sarreran orri zertifikatua jarrita. Akta idatziko du eta dokumentazio guztia hiru gutunazalatan banatuko du, eta horietako bi Bergarako epaitegira eramango dituzte; hirugarrena Hauteskunde-Batzordeari bidaliko dio. Hauteslekuaren eongoko den administrazioko ordezkari bati ere akta emango dio. Datuak zentralizatzen dituzten erakundeei bidaliko dizkiete datuak, telefonoz edo PDaz.

HERRI GEHIENETAN, HAUTESLEKU BAT

HERRIA	BOZKATZEKO AUKERA DUTE	HAUTESLEKUAK HERRIAN	HAUTES-MAHAIK	ZENBAT ZINEGOTZI
Antzuola	1.708	1	2	11
Aramaio	1.197	1	2	9
Aretxabaleta	5.325	1	7	13
Arrasate	17.941	6	32	21
Bergara	11.649	5	19	17
Elgeta	869	1	1	9
Eskoriatza	3.206	1	4	11
Leintz Gatzaga	202	1	1	7
Oñati	8.822	5	16	17

Itxi eta gero ere bozka daiteke, kasu baten

Hauteslekuak 09:00etan irekitzen dira bozkatzeko hasi ahal izateko,

Azken 2 adosatatuak salgai Aramaion

Azalera erabilgarria: 253 m²
(Garajea 90 m²)

Lursaila: bata 210 m², besteak 235 m²

378.000 €-tik aurrera



PROMOCIONES ARAMAIXO

Informazio gehiago:

630 31 13 18 - Nardeaga kalea 26 - ARAMAIO



Zuzendaritzako kideek Garagartzan egin zuten batzarra, martitzenean. | MIRIAN BITERI

Goienagusi elkarteak sortu dute Esperientzia Eskolakoek

Arrasaten egoitza bila dabilta eskolak emateko eta batzarrak egiteko

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Helburu zehatzarekin sortu dute Esperientzia Eskolako ikasleek Goienagusi elkarteak: 55 urtetik gorako debagoiendarren artean formazio iraunkorra eta garapen

pertsonala bultzatzea. Dagoeneko Jaurlaritzan eman dute izena, eta orain egoitzak topatu nahian dabilta, Arrasaten: bat 60 lagunendako eskoletarako, eta bestea, zuzendaritzaren batzarretarako.

Arrasateko Udalarekin, Abaroa-rekin eta Helduen Hezkuntzarekin harremanetan jarri dira, baina oraindik ez dute gaia finkatu.

Elkarteko presidente Bizente Zugastik azaldu digu Esperientzia

Gidabaimena euskaraz prestatzeko aukera egongo da aurten ere

M.B. | ARRASATE

Debagoieneko udaletako euskaraz sailek gidabaimena euskaraz prestatzeko deialdia egin dute aurten ere. Udan baimena atera nahi dutenei zuzenduta dago. Bailarako bost herritako hainbat autoeskolatan izango dute materiala.

Hain justu ere, honakoetan eskainiko dute esandako zerbitzua: Arrasaten, Leniz, Peñakoba eta Arrasate autoeskoletan; Bergaran, Goierri eta Larranaga; Oñatin, Aloña eta Peñakoban; Aretxabaletan, Larrinagan; eta Eskoriatzan, Leniz



Kanpainaren kartela. | GOIENA

autoeskolan. Ohiko liburu eta materialaz gain, test guztiak euskaraz hutsean egiteko aukera izango dute, ordenagailu bidez.

Berriro ere eztabaida piztu zuen Mankomunitatean zabor bilketak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Hondakin organikoak biltzeko sistemen gaineko eztabaida izan zen eguaztenean Mankomunitatearen Gobernu Batzordean. Oñatiko Udalak bosgarren edukiontzia aldeko erabakia hartuta zeukan, eta hura aurkeztu zuen Mankomunitateak aurrera bidea emateko, baina Mankomunitatearen gehiengoak erabaki zuen oraingoz mahai gainean uztea. Oñatiko alkateak, Lourdes Idoiak (EAJ) erabaki horren aurka bozkatu zuen, Aralar abstenitu egin zen, eta gainerako ordezkariak alde bozkatu zuten.

Oñatiko alkateak aurkeztu zuen gaia eta, bere iritziz, "apaindutako ezezko borobila" da erabaki hori. Gogoratzen du iaz Ingurumen batzordeak hiri-hondakinen kudeaketaren inguruko hausnarketa baten ondorioak urtarrilaren 15erako agindu zirela eta oraindik ez daudela; eta, bestetik, uztailearen 5ean ebatzi zela "hiri-hondakinen atez ateko sistemaren bidez jasotzeko erabakia herri bakoitzari" zegokio, "udalen eskumena" delako. Bukatzeko, Idoiak esaten du urtarrilean egindako ebazpen baten ikusten dela "teknikoki bateragarriak direla bi bilketa

sistemak Debagoiengan. Baina Oñatiko Udaltzarak gehiengoz hartutako erabaki bati ezetza eman zaio", esaten du.

"Orain ez da momentua"

Mankomunitateko presidente Ino Galparsorok, bestalde, honela dio: "Mankomunitatearen erabakia da atez ateko bilketa sistemaren alde egitea, eta berak erabaki behar du bilketa sistema bakarra, bi, hiru... egon behar diren". Gogoratzen duenez, Antzuolan atez atekoa ezarri zenean erabaki zen "handik sei hilabetera ikerketa sakon bat egitea", eta epe horren barruan daude. "Batzordeak erabaki zuen orain ez dela gai hori lantzeko momentua, eta mahai-gainean uztea, hurrengo batzordeak jorra dezan", azaltzen du.



Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. Zapatu arratsaldeetan zabalik.



Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

Sagardo Garaia amaitua... udako garaia:

- Karta zabala.
- Menu bereziak
- Plater konbinatuak.
- Bokatak.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Loiola eta Arantzazu arteko ibilbidea egingo dute bihar goizean

Mundimiraren harira, bihar, zapatua, GR-120 mendi martxa egingo dute Loiola eta Arantzazu artean. Loiolatik abiatuko da, 07:00etan eta parte hartzeko, irteera ordua baino ordu bat lehenago izena eman ahalko da. Aurrez ere eman daiteke 902 18 14 71 zenbakira deituta. Aloña Mendik antolatu du eta 45 km ditu.

Zure buruan dena antolatua dago. Marrak, koloreak, moduluak, angeluak... Gauza bakoitzak funtzio bat bete behar du, alderdi estetikoa baztertu gabe. Horregatik Kibuc-en altzari-proposamen ugari aurkituko dituzu, egia bihurtzeko zure ideiak eta zure mundua. Zuk egiten duzu Kibuc.

ZU zara arrazionala



gutxieneko prezioa bermatuta



879 €

73,25 € x 12 hilabete interesik gabe*



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Nuit programa. Oheak (150x190ko koltxoiarentzat), oheburukoak eta gau-mahaitxoek osatutako multzoa. Akaberak: haritza errauts kolorean eta zerbinoak. Neurria: 320 zm. Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. * Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

ZABALIK

IÑAKI CASAS

'http://goiena.net/iritzia/'



'Brujula enpresariala'

A gintari instituzional, ekonomiko eta enpresarialen diskurtsoak esloganez beteta daude, eta kasu askotan bat datoz. Ia guztiek aldarrikatu eta sustatzen dituzte berrikuntza, internazionalizazioa eta informazio gizartea, ezinbesteko kanal gisa, egoera ekonomiko zail honi aurre egiteko eta hura gainditzeko. Hala ere, mezu hori askotariko erantzuna izaten ari da gure esparru enpresarialean. Askotan, batez ere pymeetan eta mikropymeetan, "edo zerbait egiten dugu edo itxi egiten dugu" esaldiari eutsita, entzundako berba politik bere egiten dituzte, hausnarketa prozesutik pasatu gabe. "Egunerokoak irentsi egiten gaitu-eta", diote, estrategia burugabe hori esplikatzeko. Baina ez die eragozten, antsietate puntu baten sartuta, norabide guztietan jotzea euren egoera estuari irtenbidea topatzeko.

Egoera horretan, itxaropena galtzen hasten dira, ikusten dutelako internazionalizazioak ez dituela fruituak ematen goizetik gaue-ra edo sareen sarean eta haren 2.0 plataforma ugarietan ibiltzeak inbertsioa, dedikazioa eta etengabeko arreta eskatzen dituela.

Puntu honetara helduta, lasaitu eta kontzientzia hartu behar da gauzak egin behar direla euskal enpresariak beti egin duten moduan: *ttipi-ttapa*. Hori bai, lehenik, eseri eta plan estrategikoa landu behar da; izan ere, nahiz eta talde ekonomiko handiekin lotu, enpresa txiki batzuek, konturatu barik, lan egiten dute plan estrategiko ez idatzi baten arabera. Beltza zuriaren gainean jarri behar da, akta egin enpresaren egungo egoera zein den jakiteko, harendako ze etorkizun gura dugun definitu eta ze bideri eta mediori eutsi behar diogun.

Bidean produkzio-egun bat baino gehiago galduko dugu, baina planaren zimenduak sendoak badira, produkzio-urteak irabaziko dituzte etorkizunari begira. Pymeak eta mikropymeak ez daude bakarrik. Patronalei, instituzioei eta aholkularitzi zuku guztia atera behar zaie. Gure historiako inoizko ezagutza maila handiena eta profesional kualifikatu kopuru handiena daukagu. Horrekin guztiorrekin, eta hausnarketa prozesuak eragindako *brujula enpresariala*-rekin, etorkizun optimista samarra daukagu.

"Lehenik eta behin, eseri eta plan estrategikoa landu behar da"

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | 'aretxabaleta@goiena.com'

'Kaka' eman eta 'kaka' jan


Azken hilabeteen emandako *kaka* dela-eta gogaikarrien zerrenda egiten hasi naiz, eta pentsa!, ez dakit zein jarri lehen postuan: hauteskundeak edo futbola.

Batetik, iruditu zait sekula bizi bako hauteskunde kanpaina egin dutela alderdiek Debagoienean: aurkezpena hemen, ekitaldia han; propaganda banaketa hemen, alderdien furgoneta han... Eta komunikabideok guztietan. Bestetik, sekula entzun eta ikusi bako albiste, kontu, irudi eta txutxu-mutxuen berri izan dugu azken hilabeteen futbolaren inguruan.

Eta badakit! Badakit zein den gogaikarrien artean gogaikarriena: komunikabideak! *Kaka* hori guztia geuk ematen dugulako.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | 'http://goiena.net/iritzia/'



HANDIK ETA HEMENDIK

Afrikarrek Europa inbaditu zutenekoa

Luis Aranberri Mendizabal

http://eibar.org/blogak/amatino/

Azken urteotan gero eta gehiago dira Ipar Afrikatik Europara iristen ari diren paterak. Isurialde atlantikoaren ikuspegitik behintzat, hasieran lantzean behingo albisteak baino ez zirenak arazo larri bihurtu dira egun Europar Batasun osoaren baitan. Lampedusa uhartean hasi zena Schengeneko hitzarmenak auzitan jartzearaino heldu da. Honek guztiak ez omen du hasi besterik egin. Izan ere, zer gertatuko ote litzateke afrikarrek Europa inbaditzea erabakiko balute?

Demagun patera ziztrinak alde batera utzi eta afrikarrek erabakitzen dutela behingoz Mediterraneo itsasontziz gaintitu eta Espainiako zein Italiako itsasbazerretara etortzea. Demagun Nerjako hondartzan zaudela zure bikote eta seme-alabekin opor-giroan eta, Normandiako lehorretarrea baillitza, itsasaldetik datozkizuela milaka eta milaka lagun txalupaz, potinez, txanelez, piraguaz, kanoaz, "trasatlantiko" edo zernahi gisatako itsasontziz.

Demagun ezhoiko jende beltzaren uholde itzel hori ikusita, hondartzan etzanda lasai asko dauden turistak batera-batera beldurtzen direla, izuak jotzen duela eta, umeak lepoan hartu eta toallak bertan behera utziz, denak ihes egiten ahalegintzen direla, nahiz eta -besterik uste arren- etorkinak ez izan, Xenpelarren ildotik, "gerraren zale baizik lanaren alde".

Demagun alarma gorriak Bruselako egoitzan jotzen duela eta OTANen gudarostea ziztu bizian jaisten dela Nerjako Europa Balkoiraino, heldu berri diren inbaditzaileek Europar Batasunaren interesak arriskutan jartzen dituztelakoan.

Zenbaitek uste izango du hau guztia zientzia-fikzioa dela edo neronek bart asmatu dudana amesgaiztoa baino ez. Bai eta ez. Arrazoizkoa, oraindik gertatu ez denez gero zientzia-fikzioa baita. Baina ez dut nik asmatua, sekuentzia horiek 1980eko hamarkadako film batek biltzen ditu-eta. Ez naiz tituluz gogoratzen eta, Felix Linares adiskideari aspalditxo laguntza eskatu nion arren, ezin izan dugu inon haren azterrenik aurkitu. Baina noizbait agertuko da eta, ustakabea edo, ordu arraroen batean telebistak eskainiko digu.

Filma izan bada, arasaren batean gordeta. Ahaztu ezinezko amaiera duena, gainera. Auskalo gero zer ote zen azpimarragarriago: marabunta beltz hura heltzen ikusita turista europarrek jarritako aurpegi ikaratiak... ala eurak bakean lehorretatu arren europarren ihes zoroa ulertzen ez zuten afrikarren harridura-begiak. Edozein modutan, bata zein bestea, genero honetako pasarterik ontxoenetako seguraski.

Auskalo zertan amaituko den Schengen hitzarmenaren afera, baina zine-zuzendari aintzindari bezain igarleak OTAN jarri zuen orain hogeitaka urte Nerjako Europa Balkoia defenditzen. Ez dugu ukatuko paterak argudiotzat hartuta azken bizpahiru urteotan estreinako egin omen diren filmen garrantzia.

Baina, garrantzia guztien gainetik, "estreinako" behintzat, ez dira. Ezta hurrik eman ere.

Eta, filma alde batera utzita... afrikarrek patxada handiz eta bake osoz benetan Europa inbaditzea erabakiko balute?

Orain dela berrogei urte 550 milioi ziren.

Egun, 1.200 milioi. Beste berrogei urte barru, 2.400 milioi izango omen. Nork esan du bertan geratuko direnik?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarteak
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diselina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Munduriano, Zorrotza Martin, Itsaso Bereizbar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 12
papera@goiena.com


ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Fax: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Fax: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

O.I.D. erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurjaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bildu Debagoiena



KOLDO GOENAGA
ELGETA

MIKEL BIAIN
OÑATI

INMA BERISTAIN
ANTZUOLA

IÑAXIO AZKARRAGA
ARRASATE

BEÑAT HERCE
ESKORIATZA

ANA BOLINAGA
ARETXABALETA

JESUS ELORTZA
BERGARA

eman
botoa



Ezkerrekoak, abertzaleak, soberanistak...

Bergarako Udaleko Langile Komiteari

Inazio Arriola

(Bergarako EAJ-PNVren Uri Buru Batzarraren eta zinegotzien izenean) Bergara

Lehenik, esan beharra daukagu EAJk Bergarako Udaleko langile guztiak errespetatzen dituela. Guk salatu nahi izan duguna Udal Gobernuaren kontratazio politika izan da. Krisi egoera batean, lau urtetan, langileriaren kontratazioa %25 igotzea ez dugu ikusten udal kudeaketa egoki bat bezala. Zuek GOIENAn EAJri zuzendutako komunikatuan aipatzen duzue "udal zerbitzuak zuzenean udalak kudeatzearen aldeko jarrera garbia" azaltzen duzuela. Deigarria egin zaigu langile komite batek Udal Gobernu batek hartutako erabaki politiko baten ondorioz udal kudeaketa konkretu baten defentsa egitea.

EAJk uste du langile komite baten egitekoa langile guztien lan baldintzak defendatu eta zaintzea dela. Bergarar guztiok dakigun bezala, kale-garbitaketa 14 langileren egoera ez da batere ona. Langile hauek lanpostua galtzeko arriskuan daude Bergarako Udal Gobernuak hartutako erabakiaren ondorioz. EAJk uste du langile komite honek ez duela hitz bakar bat ere azaldu langile hauen egoera salatzen eta haxe dela edozein langile komitearen egitekoa. Uste dugu hori eskertuko luketela zuen lankide diren kale-garbitaketa langileek. Oso deigarria da guretzat 14 lanpostu daudela jokoan eta zuen komiteak ez duela ezer esatekorik honi buruz.

Botoa batu

Aintzane Oiarbide

(EAJko Debagoieneko zerrendaburu guztien izenean) Bergara

Etzi hauteskunde eguna. Guztiok aukeratu ahal izango dugu nahi duguna. Hala defenditu du beti EAJk. Demokrazia kontua delako. Orain gure esku dago botoaren indarra baliatzeko.

Bakeak irabazi behar du eta bakea irabazi behar dugu igandean. Gizalegea urratuta dago hainbeste urtetako indarkeriagatik eta tentsio politikoagatik. Udalen erantzukizuna izango da bakezkoak egiten hastea, errespetua eta elkarrizketa landuz bizikidetzak berritzeko. EAJko hautagaiok gure onena emango dugu horren alde.

Euskadiko bakea politikoa ere bada. Herri bat gara eta herri-eskubideen jabe. Arrasate, Oñati, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Elgeta eta Antzuolan herritarrek Euskadiren erabakitzeko eskubidearekin bat egin dezaten lan egingo dugu EAJko gizon-emakumeok.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENak eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Demokraziaren eta bakearen bidetik, beti egin dugun bezala.

Gure etorkizuna ikuskizun dago. Euskadi eta euskal erakundeak zenbat eta burujabeago, orduan eta erabakimen handiagoa guk guztiok. Funtsezkoa dugu Debagoieneko udalak eta Diputazioa gure esku izatea, euskal kultura, ekonomia, gizarte-politika bereziak egiteko. Aldea dago nork agintzen duen. Ez dugu inolara ere Espainiaren antzera ibili nahi, langabezia itota, zorrak janda, politika noraezean. Horra sozialisten eta popularren bidea. Aldiz, esan dezakegu PNV dela sinesgarria eta fidagarria, serio lan egiteko gauza udaletan eta Diputazioan, herritarrekin eta gizarte-eragileekin batera.

Asko dago jokoan. Gipuzkoan nork aginduko duen erabakiko dugu: PSOE-PP fronteak edo EAJk eta abertzaleok, Markel Olano buru dela. Etxean geratuz edo abertzaleok barreiatuz ez gara urrutira joango, indar hartuko baitu PSOE-PP fronteak. Batuta behar ditugu botoak. Euskadiren bakeak eta erabakitzeko eskubideak hari luzea eta sendoa behar dute, EAJ-PNVren matazatik ateratzen dena. Hala izan da urteotan. Zuk eman diozu indarra, zure botoak. Orain ere, zure botoa EAJrentzat.

Hausnarketa egunerako gogoetak

Iñaki Idigoras Igartua

Oñati

Wikipediak honela dio: *Politika talde baten erabakiak hartzeko garaian egiten duen prozesu eta jokabidea da.*

Politikaz hitz egitean alderdiak datozkigu gogora. Zer dira hauek? Zein da "beren" proiektua? Nortzuk dira "beraiek"?

Zoritzarrez, daukagun sistemak ez du alderdi politikoez gaindiko beste partaidetzarik ahalbidetzen. Kooperatibetan, adibidez, zuzendaritzaren gainetik Kontseilu Errektorea dago, eta honen gainetik Langileen Batzarra. Mekanismoak badaude. Instituzioetan, herriak 4 urtetik behin dauka hitza, hauteskundeetan. Baldin eta gobernatzaren dutenen jarrera

irekiagoa ez bada.

Herritarren partaidetza politiko askoren ahoetan entzuten dugu. Kontua da, nola jasotzen dute herritarren beharren berri? Eskerak luzatzeko bideak hotzak dira: zigilu batekin estanpatuak; erantzuna ere idatziz etorri ohi da bueltan. Eztabaidarako tarte gutxi.

Umiltasuna, esker oneko izatea, barkatzen jakitea, errespetua. Ni beharrean, gu. Entzuteaz gaindi, aditzea. Adorea, maitasuna, batasuna, pasioa, konpromisoa, konfiantza, partekatzea. Non daude baloreok?

Boto eske orain. Eta emango dugu. Bestelako aukera gutxi baitugu parte hartzeko. Nori? Kontzientziari entzun. Baloreak? Partaidetza?

Krisitik ateratzen denak indartuta egin ohi du. Alderdi batek krisi latza izan du azken urteotan: barne gatazkak hasi, zatiketek xaxatu eta kanpo presioek eraginda. Jokalekutik kanpo atxikia. Indarberrituta orain, bidelagun berriekin, itxaropena sortuz. Lanerako irrikan, freskotasan eta sormenez blai, garai berri batera bidea egiteko gogoz. Aprobetxatu beharreko energia. Oñatin, partaidetza eta eztabaidarako aukera zabala eman dute programa osatzeko. Gure konfiantza osoa irabazi dute.

Galeanok jaso zuen utopiak zertarako balio duen? Bidea egiteko.

Helburuez gain, zein bide egin adostu behar dugu. Egunerokoa bidea egitea baita. Ekin diezaiozun elkarrekin, eta aniztasunean bada, hobe.

Ekinez egin eta eragin. Eta umorez bizi.

Iñaki Idigoras Igartuak, solaskide zenbaitzuekin partekatutako momentuen eraginez. Mila esker, zuoi.

Bejondeizula, Inaxio

Nuria Fernandez de Arroiabe, Unai Mendikute, Olaia Sagredo, Pili Muñagorri eta Asier Barrainkua Aretxabaleta

Azken asteotan ia aspertu arte ibili dira alderdi politikoak komunikabideetan eta herrietako txoko zein kaleetan euren mezuak eta promesak zabaltzen, hauteskunde prozesu guztietan gertatzen den moduan.

Ez da erraza gero eta indibidualistagoa den gizartean proiektu batekin bat egin eta haren aldeko konpromisoa hartu eta maila batean (nor berean) inplikatzeko, are eta gutxiago gizartean gutxietsita dagoen politikaren alorra izanez gero.

Hala eta guztiz ere, zorionez bada gaur egun politikan aritu arren erabateko konfiantza eta sinesgarritasuna ematen duenik ere. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, Aretxabaletako Aralarren aldeko botoa ematera bultzatu gaituen arrazoia, Inaxio Garro alkategaiak (Aretxabaletaren onerako oraindik alkate den herritarra) agintean egon den bitartean erakutsi duen estiloa: herritarren parte-hartzailera gustuko duena, besteekiko errespetuan oinarritu dena, herritar guztiengandik gertu dagoena, berdintasuna bultzatu duena, euskara bihotzean eta ezpainetan duena, sinesgarritasuna transmititzen duena.

Hauek guztiauek ez dira hitz hutsak. Hori guztiori urte hauetan parte hartu dugun herriko elkarteetan ikusi dugu (Leizarra Musika Eskolan, Kurtzebarri Eskolan, Basabe-Azpin, Akordeoi Orkestran, Abesbatzan, Iesbaa Sahararen aldeko elkarteetan, UDAn...), alegia, ahal izan duena egin duela Aretxabaleta hobetzeko ahaleginetan, politika eta alderdikeria kontuak alde batera utzi eta jo eta su jardun duela, herri-bokazioa duelako.

Herritar askoren izenean, eskerririk asko eta zorionak Inaxiori egin duen guztiagatik. Aretxabaletak bera bezalakoa behar duelako, maiatzaren 22an guk ez dugu zalantzarik.

Gazteok indarrak biltzeko dei egiten dugu

Amaia Etxabe

Arrasate

Arrasateko gazteok etxe duin bat eskuratzeko aukerarik ez daukagun gazteak gara, gure etorkizun laboralean argirik ikusten ez dugun gazteak, gure ikasketak aurrera eraman ahal izateko bermerik ez daukagunak edo kontsumora bideratutako aisialdi ereduak kontsumitzaera kondenuatuak gaudenak. Askatasunez adierazteko eta

antolatze eskubideak ere bermatuak ez daukagun gazteak gara.

Adibide hauek guztiek etorkizun beltza baino ez digute erakusten gazteontzako. Etengabeko eskubideen urraketa da gazteok jasaten duguna. Emakume gazte bezala zapalduak gaude, ikasle zein langile bezala, edota euskaraz bizi nahi dugun gazteon eskubideak ere urratuak zaizkigu. Instituzioetan ez daukagu ahotsik eta, gainera, gure iritzia ez da sekula kontuan hartzen. Gugatik erabakitzen dute, baina ez dute gugatik sufritzen. Aterabidea eman behar zaion larrialdi egoera da jasaten duguna.

Horregatik, konponbiderako garaia heldu dela esaten dugu. Aurre hartzeko momentua, indarrak bildu eta gure ahotsa entzunarazteko garaia. Dauzkagun alternatibak garatzeko momentua heldu da, gure bizi baldintzak hobetzeko dauzkagun proiektu errealek aurrera eramateko unea, gazte ahotsa berreskuratzeko unea. Independentzia da gure proiektua, gure etorkizuna guk erabakitzeko formula, eta Bildu da gure tresna. Instituzioak gazteoi zabalduko dion tresna, Euskal Herriak behar duen aldaketa politiko eta soziala ahalbidetuko diguna, ezkerreko perspektibatik oinarri aurrerakoietan eraikitako aldaketa.

Herriko gazte askok ez dugu egoera normalizatu batean bozkatzeko aukerarik izan. Salbuespen egoeraren belaunaldia gara. Azken hamarkadan ilegalizazioa eta joko zikin guztiak erabili dituzte ezkertiar eta independentistak udaletxe eta erakundeetatik kanpo utzi eta euren poltsikoetara begirako eta herri honen desagertapenera begirako politikak egiteko.

Baina oraingoan, abertzale eta ezkertiarrok indarrak bildu eta honekin bukatzeko aukera daukagu. Parte hartzeko ordua da, denon artean erabakitzeko ordua. Ustelkeria amaitu eta herritarrok dauzkagun arazoei aurre egiteko ordua da. Euskal Herri aske batera begira jartzeko sasoa da, eta, horretarako, gure herriak behar duen benetako aldaketarako Bildu da motorra. Gu independentistok gara motorra!

Aurreikus dezakegun etorkizun beltzari buelta emateko alternatiba erreala daukagu Bildu. Beraz, etorkizun hobe bat eraiki nahi duten gazte guztiei deitzen diegu indarrak biltzera, independentziaren alde apustu egitera, Bildu bozkatzera.

Euskal Herriaren geroa garelako, hain beharrezko zaigun aldaketa politiko eta soziala bermatuko duen indarra garelako, igandean, maiatzaren 22an, entzun dezatela gure oihua, independentziaren bidean, bete ditzagun ilusioz eta kolorez hauteskontziak.

Bozkatu Bildu! Bozkatu independentzia!

Joxe Rojas | Topaguneko Hedabide Saileko arduraduna

"Ezin dugu itxoin euskarazko hedabideak desagertzera, haien garrantzia aitortzeko"

- ▶ Euskarazko hedabide ez publikoek bizi duten egoera larriaz ohartarazi nahi dute
- ▶ "Publizitate instituzionalaren %25 euskarazko hedabideetan egitea eskatu dugu"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Topaguneko Hedabide Saileko arduraduna da Joxe Rojas. Euskarazko hedabide ez publikoak, tartean, Topaguneko tokian tokikoak, albiste dira egunotan, hainbat ekimen bideratu dituztelako elkarrekin, Horien gainean egin dugu berba Rojasekin (Etxebarri, 1971).

Zein da euskarazko hedabide ez publikoen egoera gaur egun?

Nahasi samarra. Batetik, denek onartzen dute euskarazko hedabide ez publikoek sekulako garrantzia dutela euskararen normalizazio eta sustapenerako; bestalde, ikusten dugu alor ekonomikoan sektoretzua osatzen dugula... Baina, hori guztia onartzen den neurrian, praktikan, sumatzen dugu erakundeen artean behar adina baino babes txikiagoa.

Topagunearen barruan dauden hedabideen egoera?

Hor ere argi-ilun handiak daude. Batetik, 2007a ezker gabilitza, hain zuzen ere, Jaurilaritzaren dirulaguntzei esker, audientzia neurketak egiten tokiko hedabide ezberdinetan. Eta ikusten ditugu oso datu positiboak. Euskaldungoaren ehuneko handi batengana heltzen gara eta erdaldunongan ere eragiten dugula. Baina, bestetik, euskarazko tokian tokiko hedabideek lan oso zaila egiten dute, baldintza zailetan dihardutelako, eta babes falta sumatzen da instituzioen aldetik.

Zenbat euskarazko hedabide daude Topagunearen barruan?

62. Horietatik, 33 aldizkari, 6 irrati, bi telebista eta 21 agerkari digital. Azken hauek, sarritan, dira besteen osagarri. Paperean zentratuta, Gipuzkoan 21 dira, Bizkaian 8 eta Nafarroan 4.

Audientzia datuak zelakoak dira?

Paperezkoetan, 33 aldizkari horien iristen gara 210.000 lagunengana. Kontuan izanda euskaldunak gara 800.000 gutxi gorabehera, ez da datu txarra.

Topaguneko hedabideen artean paperezkoak dira nagusi. Baina, kontuan izanda paperak bizi duen krisia, ez da arriskutsua hori?

Analisisa oso konplexua da. Audientzia neurketetan ikusi dugu sarearen garrantzia anekdotikoa dela oraindik tokian tokikoetan. Paperak dauka nagusitasuna oraindik. Gainera, papera krisian dago eta gainbehera dator, baina, gaur egun, oraindik ere, negozioa pape-rekoan dago. *The New York Times*-ek berak oraindik ez du asmatu zelan egin negozio sarekoarekin.



Joxe Rojas, Topaguneko Hedabide Saileko arduraduna, martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

Tokian tokiko hedabideak sarean eta teknologia berrietan gehiago murgildu beharra ikusten du Topaguneko?

Bai. Papera baztertzearekin batera, sareak gero eta presentzia handiagoa izango du eta, gainera, oso bitarteko merkea da. Urratsak emteko azpiegiturak behar dira eta Ikerketa eta Garapenean inbertsioak egin behar dira. Esaterako, aipatu dugun *The New York Times*-en formulak balio dio euskarazko tokian tokiko hedabide bati? Ikertu beharrekoa

"Papera gainbehera dator, baina, oraindik ere, paperezkoetan dago negozioa"

"Euskarazko tokiko hedabideak heltzen gara 210.000 lagunengana"

da. Teknologia berrietan sakondu egin behar da, baina ezin gara mugatu besteak egin dutenera, baizik eta hurbilketa propioa egin behar dugu.

Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak dio hausnarketa egin behar dutela euskarazko hedabideek.

Egia da Arabako egoerak kezkatzen gaituela, besteak beste, Arabako ikurretako bat, *Geu*, desagertu egin delako. Egia da, edozelan ere, badabilzala antolatzen beste zer-bait sortzeko. Bestalde, Gipuzkoan

tokian tokiko aldizkari asko dago, baina asko direla esatea ez zait oso egokia iruditzen, ze dauden aldizkari edo hedabideak ez baitira kapritxo sortu, behar bati erantzuteko eta esfortzu handiarekin baizik. Prest gaude hausnarketa egiteko eta modu eragin-korrangoan lan egiteko.

Debabarrenean lanean ari dira hango hedabideak elkarrekin zerbait egiteko. Hori da bidea?

Bai, batzea eta elkarlana. Komunikazioa areagotu... Elkarlanetik zertan irabaz dezaket aztertu eta esfortzuak bateratzea da gakoa.

Euskarazko hedabide ez publikoek hainbat ekimen bultzatu duzue azkenaldian...

Bai. Autonomia Erkidegoko erakundeekin aritu gara, Eusko Jaurilaritzarekin eta hiru aldundiekin. Eta alderdi politiko gehienekin ere bai.

Ze mezu helarazi diezue?

Batetik, gure egoera ez dela ona eta babes handiagoa behar dugula; sektore handia gara: zenbat lagun gabilzan, zenbat diru mugitzen dugun... Eta, gero, bi eskara zehatz egin dizkiegu: bat, erakunde publikoek zertan eta non inbertitzen duten publizitatean eta, bi, eskatu, publizitate instituzionalaren %25 euskarazko hedabideetan egitea. Bestetik, eskatu zaie dirulaguntza publikoa %25 igotzea datorren urtean, ze azkeneko urteetan murrizten joan baitira. Eta epeen gainean ere egin diegu eskera, ze, gaur egun, sarritan, urtea aurrera doanera arte ez baitugu jakiten ze dirulaguntza jasoko dugun eta noiz jasoko dugun.

Ze harrera izan duzue?

Modu orokorrean, ona. Denok hartu gaituzte ondo eta ulertu egin dute gure arazoa. Gainera, prest agertu dira euskarazko hedabideen sektorearekin batera hausnarketa egiteko. Borondatea eta gogoa, behintzat, badago.

Eta dirulaguntzetan?

Erantzuna ez da horren beroa izan: dirulaguntzei eustearrekin nahikoa izango dela...

Erakundeek diruz lagunduta bizi zaretela entzun ohi da sarri.

Baina gaztelaniazko hedabideetara dirutzak doaz, ez dirulaguntza modura, publizitate inbertsio modura baizik.

Euskarazko hedabideen egoera jendartera hedatzeko publizitate kanpaina abiatuko duzue, ezta?

Bai. Mezua da hedabide hauek oso garrantzitsuak direla, eta ez dugula itxoin behar desagertu arte garrantzi hori aitortzeko.

HERRIAK



Mikel Aranburu, Miren Urkiola eta Aratz Losada, Oñati Irratiko estudioan. | MIREIA BIKUÑA

ESANAK

"Oñatiarren kolaborazioa oso inportantea da irratiari; eskerrik asko"

"Herrian sortzen diren berrien aldeko apustua egin genuen"

MIREN URKIOLA | ZUZENDARIA

Urkiolak. Handik, Olakua auzora, hango dorretxera aldatu zuten irratiak: argitasun eta leku handiagoarekin.

Dena den, leku aldaketa ez da izan irratiak bizi izan duen aldaketa bakarra. Oñati Irratia egiten hasi zireneko materiala eta egungoa oso bestelakoak dira. "Nahasketa mahaia bera da, baina gainerako material guztia aldatu egin dugu. Badakizu, teknologia... Grabazio luzeetarako rebox bat erabiltzen genuen, bi orduko grabazioak egiteko aukera ematen ziguna. Gainera, irrati saioen sarrerak eta publizitatea kasetetan grabatuta genituen", esan digute.

Bestalde, musika euskarriak ere aldatu egin dira. "Biniloek xarma berezia zuten. Bada, orain dauden euskarriekin erosoago egiten dugu lan. Gainera, musika askoz garbiago entzuten da", azpimarratu digu Urkiolak. Dena den, urtemuga ospatzeko Bob Marleyren biniloa berreskuratu zuten *One love* kantua entzuleei eskaintzeko.

Zuzeneko saioak

Astelehenetik egubakoitzera arteko saioez gain, ezohiko egunetan beste hainbat egin dituzte. Besteak beste, San Migel jailetako saio bereziak. Jailetako pilota txapelketako finala ere zuzenean eman izan dute Herri Egunean.

Dena den, lehen aldiz, saskibaloia partidua eman zuten zuzenean hilaren 7an. Irratiaren urteurrenaren eta Sustrai Aloñaren EBA ligarako igoeraren ospakizunak bat egin zuten. "Zuzeneko harekin hasi genituen irrati ospakizunak. Gainerako egunetan, gure kolaboratzaile izandakoak gonbidatu ditugu irratiari. Orduko saioak gogoratu, egun zertan diharduten jakin, eta irratiak zer eman zien galdetzeko", esan digu Urkiolak.

Oñati Irratiak beste 20 urte iraungo ote duen galdetuta, hauxe esan digu: "Espero dut baietz. Kolaboratzaile finak ditugu, eta euren laguntzarekin posible izango da".

OÑATI

Oñati Irratia: 20 urte herriko albisteak eta bitxikeriak kontatzen

- ▶ Hilaren 11n ospatu zuten urteurrena eta saio bereziak egin dituzte
- ▶ Lehen saioan bezala, Bob Marleyren kantu batekin hasi zuten saioa

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

1991ko maiatzaren 11n, 11:00etan egin zuen lehen emisioa Oñati Irratiak, FMko 102an –egun, 107.4an emititzen dute–. San Migel Txiki jailetako zapatua zen, eta, urduritasunak tarteko, Bob Marley omendu zuten. Egun hartan 10 urte bete ziren abeslari jamaikarra hil zela, eta haren *One love* kantua izan zen uhin bidez emititu zuten lehena. Ordutik hona, 20 urteko ibilbidea egin du Oñati Irratiak. 20 urte herriko kontuak uhin bidez zabaltzen. Hain justu, horixe zen eta da irratiaren helburua. "Herrian sortzen diren berrien aldeko apustua egin genuen. Orduan bazeuden ikuspegi orokorrarekin albisteak ematen zituzten irratiak. Hurbilagoko gaiak dira gure erreferente. Debagoienarekin zerikusia duten gaiak ere ekartzen ditugu gurera, baina, ahal dugula, behintzat, oñatiar ukitua edo ikuspun-

tua ematen diogu", esan digu lehen emisioetik Oñati Irratiko ahotsa izan den Miren Urkiolak.

Horretarako, herriko albiste hurbilagoak zabaltzeko, kolaboratzaile asko izan dituzte irratiari. Hasierako urteetan Arrasate, Bergara eta Legazpiko kronikak egiten zituzten, eta arratsalde parteko saioak kolaboratzaileek egiten zituzten. Egun, baina, kolaboratzaile kopurua asko jaitsi dela esan digu: "Arrasateko eta

Legazpiko kronikak jasotzen ditugu oraindik, eta martitzen arratsaldeetan Mikel Aranburuk ordubeteko saioa egiten du. Dena den, oñatiar guztiak dira, modu batera edo bestera, irrati kolaboratzaile. Kintada edo hitzaldi baten oharra ekartzen dutenak, gure lehiaketetara deitzen dutenak, gurean publizitatea ipintzen dutenak... Guztion artean egiten dugu Oñati Irratia. Hori horrela, eskerrik asko, guztiei!".

Bob Marley

Oñati Irratia astelehenetik egubakoitzera emititzen dute 12:00etatik 13:30era eta 19:00etatik 20:00etara. Goizeko saioetan hiru dira ardatz nagusiak: Txantxiku Berri agenda, albistegia eta Kirolaren Txokoa.

Hasierako urteak kultura etxe zaharreko ganbaran egin zituen. "Ez genuen argi naturalik, baina txoko hark xarma berezia zuen. Egurra zen nagusi", esan digu

Irratiko irudiak ez du aldaketarik izan

Frekuentzia aldaketa, egoitza aldaketa, material aldaketa... Bilakaera handia izan du Oñati Irratiak 20 urteotan, baina hedabidearen irudia ez dute aldatu. Hasierako bera mantendu dute. Txantxikua eta mikrofonoa dira haren irudiak. Txantxikua oñatiarren ikurretako bat delako, eta mikrofonoa hedabidea delako. Urdin kolorea da nagusi. Mikrofonoak gorri koloreko babesa dauka.



'Emakumeak protagonista' ekimeneko lehen hitzaldia, "hunkigarria eta arrakastatsua"

Maddalen Iriartek Edurne Brouard elkarrizketatu zuen jendaurrean, Berdintasun Sailaren eskutik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udaleko Berdintasun Sailaren eskutik, martitzenean abiatu zen *Emakumeak protagonista* deritzon ekimena. Lehen saioan Edurne Brouard AEK-ko arduraduna elkarrizketatu zuen Maddalen Iriarte kazetariak. Giro atsegin eta gertukoan egindako elkarrizketa izan zen; bi protagonistak eta antolatzaileak oso gustura geratu ziren saioaren ostean.

Ikusle gehienak emakumeak izan arren, gizonezko asko ere bertaratu ziren. Saioak aurrera egin ahala, Kultureteko klaustroan jarritako eserleku ia guztiak okupatu ziren.

"Ekimen oso interesgarria"

Maddalen Iriarte kazetariaren galderei esker Edurne Brouard gertutik ezagutzeko aukera izan zuten ikusleek. Besteak beste, euskalgintza, herrigintza eta politikagintza izan zituzten hizpide eta elkarrizketa saioaren amaieran ikusleek Brouard eta Iriarteri zerbait galdera egin zizkioten.

Bi emakume protagonisten-dako halakoak ekimen "oso interesgarriak" dira. Brouardek halako saioen "feedback-erako



Kultureteko klaustroan elkarrizketatu zuen Iriartek Brouard, zuzenean eta jendaurrean. | JOKIN BEREZIARTUA

ESANAK

"Elkarrizketa polita eta hunkigarria eskaini digute"

MAITE BARREÑA | ANTOLATZAILEA

aukera eta gertutasuna" nabarmendu zuen: "Sentipenak emateko eta jasotzeko aukera ematen dit. Formatu polita izateaz aparte, eraginkorra da". Iriartek ere jendearengandik hain gertu egoitea "aberasgarria" dela esan zuen: "Herri honek behar duen hausnarketarako saio bikainak dira halakoak", gaineratu zuen. Antolatzaileak ere oso pozik zeuden

elkarrizketa saioaren ostean. Hala adierazi zuen Maite Barreña Emakume Txokoko kideak: "Borobil irten da. Elkarrizketa polita, hunkigarria eta hausnarketarako gonbita egiten duena eskaini dute Maddalen eta Edurnek. Parte-hartze aldetik ere oso harrera ona izan du, eta gainera, emakumeak gehiengo izan arren, gizonezko askotxo agertu dira".

Urbanoak bi geltoki berri izatea adostu zuen osokoak

J.B. | ARRASATE

Autobus urbanoaren zerbitzuan bi geltoki berri jartzea onartu zuen osokoak astelehenean. Bata, Altamirako Jose Luis Iñarra kaleko 21-31 zenbakien artean, eta bestea, Malbinetako-Gorostiza auzoa-goialdean dagoen Maitena kalean.

Altamirako auzotarrek hainbat urte daramate mugikortasun-arazoak salatzen. Bi urte eman dituzte sinadurak batzen, eta tarte horretan 118 sinadura lortu dituzte. Horregatik, auzotarrek Udalari eskatu izan diote igogailu publikoak goraino luzatzeko, edo igogailu hori auzunearekin elkartzeko pasabide batekin-edo-. Eta hiri-autobusa haraino heltzea ere eskatu izan dute. Bada, azkenean lortu dute; udalbatzak aho batez onartu zuen.

Osokoak, agur kutsua

Astelehenekoa ez zen azken osokoa izan -akten sinadurarako beste bat egingo da-, baina zinegotzi gehienek balorazio txiki bat egiteko erabili zuten. Agintaldi "gazi-goza" izan da gehienendako.



ARKAUZ
MUEBLAS
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAR
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA **FAGOR**
banatzaile ofiziala

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA **expert**
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2011 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Bihar hasiko dira, AEDren eskutik, Literaturjauziak

J.B. | ARRASATE

Bihar hasiko da AEDk euskal literatura bultzatu eta arrasatearrei gerturatzea helburu duen Literaturjauziak ekimena. Lehen edizioa iaz udazkenean egin zen eta aurten udaberriaren egitea erabaki dute, adierazi dutenez, kalean ekintzak egiteko giro hobea egongo da-eta.

Sei hitzordu

Sei ekintza antolatu dituzte: bihar mikrotestuen tailerra egingo dute Unai Elorriagarekin. Lau orduko ikastaro trinkoa izango da eta maiatzaren 18a baino lehen eman behar da izena. Matrikula 10 euro da -8 euro AEDko eta Topaguneko bazkideek-. Maiatzaren 24an, Koldo Izagirrek euskararen egoeraz idatzi duen saiakera aurkeztuko du, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean.

Maiatzaren 25ean herri irakurraldia egingo dute: Seber Altube literaturaren plaza bihurtuko dute, 18:00etan hasita. Gainera, bigarren eskuko liburu eta CD azoka jarriko dute Zahar Berrikoek. Hilaren 26an, *Leiduteko irrikaz* kale antzerkia izango da herriko alde zaharrean, 19:00etan; eta maiatzaren 27an, Paddy Rekalderen *Spray* liburuan oinarritutako muntaia: gaztetxean izango da, 22:00etan. Azkenik, maiatzaren 23tik aurrera *Liburuak aske!* ekimena izango da herriko txoko ezberdinetan.

Ekinekoek atzerritar legedi berria azaltzeko hitzaldia antolatu dute

Ekineko eskutik, Mikel Mazkarian abokatu eta SOS Arrazakeriako kideak Atzerritar Legearen araudi berriaren gaineko hitzaldia egingo du hilaren 24an, 17:30ean, Kulturateko areto nagusian. Bi tarte izango ditu hitzaldiak: batetik, Mazkarianek araudi berria aurkeztuko du jendaurrean; eta, bestetik, galderendako tartea egongo da.

Al-Andalus elkarteko Kultura Asteak hilaren 29ra arte iraungo du

Arrasateko andaluziarrak Kultura Astea ospatzen ari dira. Aurtengo egitaraua Musakolako jaietako erretiratuendako afariarekin zabaldu zuten eta hilaren 29ra arte iraungo dute ekitaldiek. Hitzordu garrantzitsuena, urtero moduan, hilaren 28ko afari handia izango da. 21:30ean izango da, elkartearen bertan.



Bildu: "Lan zintzoa egin dugu; izango ditu fruituak"

Ekitaldi jendetsua egin zuten eguaztenean; Martin Garitano han izan zen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bildu eguaztenean Arrasateko Herriko plazan egindako ekitaldian herritar ugari elkartu zen. Txalapartaren hotsarekin hasi zen ekitaldia eta bi herritarrek egindako aurkezpenaren ostean Inazio Azkarraga-Urizar alkategaiak hartu zuen hitza: "Badakit Arrasate moduko herri baten ordezkari izateak erantzukizun handia suposatzen duela". Bestalde, "ilusioa" piztu duen "lan zintzoa" egin dutela adierazi zuen, eta "argi" duten lan horrek fruituak emango dituela.

Azkarraga-Urizarren arabera, ezberdintasunak alde batera utzi dituzte Bilduko zerrendak osatzeko: "Zerk batzen gaituen bada-kigu: Euskal Herriaren independentziak eta beste eredu sozial baten aldeko borrokak. Euskal Herriak bizi duen aldaketaren protagonistak izango gara".



Inazio Azkarraga-Urizar ekitaldian, atzean Bilduko hautagaiak dituela. | J.B.

"Gertukoei eskatu, lotsa barik"

Alkategaiaren adierazpenen ostean, Arrasateko hautagaiak banan-banan igo ziren koalizioari bozkatzeko arrazoiak ematera. Gero, Martin Garitano Gipuzkoa-

ko Batzar Nagusietarako zerrendaburuak eta Pello Urizar EAKo idazkari nagusiek ere egin zuten berba. Martin Garitanok "lotsa barik" gertukoei Bilduren aldeko botoa eskatzea proposatu zuen.



EAJren ekitaldiaren amaiera; Garitano alkategaia, bigarrena eskuinetik. | JULEN IRIONDO



EAJ: "1.300 langabeei lagunduko diegu"

"Beste lau urte geldi" ez egotea aldarrikatu zuen Garitanok martitzeneko EAJren ekitaldi nagusian

J.IRIONDO / J.BEREZIARTUA | ARRASATE
Biteri plazan egin zuen martitzen iluntzean EAJk eguneko kanpaina ekitaldi nagusia. Juan Karlos Garitano alkategaiarekin batera Joseba Egibar GBBko burua,

Iñigo Urkullu EBBkoa eta Markel Olano Batzar Nagusietarako hautagaia izan ziren hizlari.

"Ezin dugu beste lau urte geldi egon". Egungo Udal Gobernuarekiko kritika iradokiz hasi zen

Garitano. Udalaren kudeaketa ereduaz aztertu beharra nabarmendu zuen, bertako baliabideak hobetzeko: "Ohiko gastua igo gabe herriak behar dituen inbertsioak egin ahal izatea lortu behar dugu. Bestetik, 1.300 langabe pasa daude Arrasaten; Udalak kontuan izango ditu", esan zuen Garitanok. Herriaren industria pabiloi eta merkataritza lokal ugari hutsik daudela eta Udalak lokal horiek enpresa ekintza berrietarako erabiltzeko neurriak hartu behar dituela gehitu zuen. Pertsonen formazioa bultzatzearen garrantzia ere azpimarratu zuen, kalitatezko enplegu baterako gertu egon daitezkeen. Euskalgintzaren eta bakearen alde egingo duela ere agindu zuen alkategaiak.

"Bilduren mataza ez da erreala"

Bestalde, Joseba Egibarrek adierazi zuen Bilduren zazpi hari-muturreko mataza ez dela erreala, korapilo pila bat agertuko direla barruan eta korapilook moztu egin beharko dituztela ezinbestean. Olanok, azkenik, EAJ PP-PSOE itunaren aurkako "alternatiba bakarra" direla esan zuen.

"Lehen indarra izango gara"

Azkenik, Pello Urizarrek hartu zuen hitza. "Bildu efektua" aipatu zuen: "Bildu efektua errealtate bat da, Estatuaren aurrean herri moduan erantzuten jakin duena, gure etorkizuna erabakitzeko oztopoen aurrean".

Gainera, Pello Urizarrek EAJko Joseba Egibarren adierazpenak ere izan zituen hizpide: "Beste alderdiek badakite bai Arrasaten eta bai Gipuzkoan lehen indarra Bildu izango dela. Horregatik ari dira ezkututzen egia adierazten duten inkestak. Hortik urduritasunak sortutako erasoak: zertara dator bestela PNVk, atzo [martitzena] bertan, Arrasaten esandakoak? Bilduren artile mataza korapiloz beteta dagoela? Aniztasunaren sinboloak horrelako kezka sortzen dio PNV-ri? Ez da izango ezberdinen artean biltzeko konpromisoak agerian uzten duela PNVren benetako helburua ez dela Euskal Herria, PNV bera baizik?". Amaitzeko Urizarrek berak ere Bilduren mezua zabaltzeko eskatu zien bertaratuakoei.

Ekitaldiaren amaieran herri-programak eta domekarako boto-txartelak banatu zituzten.



EB-Berdeak: "Giltza izan gaitzke"

Astehenean Seber Altube plazan izan ziren Roberto Berrio alkategaia eta Mikel Arana Gipuzkoako Batzar Nagusietarako zerrendaburuak. Berrioren iritziz, aurreikuspenak onak dira: "Betidanik bozkatu gaituztenek babesa emango digute. Gainera, Udal honetako giltza izateko aukera handiak daude".



Berrio programa banatzen. | J.B.



PSE-EE: "Besteena ez bezala, programa zehatza da gurea"

J.B. | ARRASATE

Hainbat asmo eta proposamen ditu PSE-EEK Arrasaterako: "Guk programa zehatza eta izen-abizenekin aurkeztu dugu, besteen programek ez dute ezer zehatzik", adierazi du Aritz Arrieta alkategaia. Arte eszenikoen eskola, Eroski ondoko geltoki intermodala, leku publikoetan kalitatezko

wi-fi guneak sortzea, bosgarren edukiontzia... hainbat proposamen aurkeztu ditu asteon.

Aldundia, herritarren zerbitzura

Bestalde, atzo Miguel Buen diputatu nagusirako hautagaiak herritarren zerbitzura dagoen Diputazio gardena aldarrikatu zuen, EAJren "eskandaluen" aurrean.



PSE-EEren atzoko Laubide plazako ekitaldia: Miguel Buen berbetan. | J.I.

Igogailu zerbitzua: merkeagoa eta euskaraz

Hemen Igogailuak enpresak igogailuak hobeto zaintzen ditu, matxuren iturria aztertuta | ASIER ALKORTA

Igogailuak hobeto zainduz eta matxurak behar bezala aztertuz, Hemen Igogailuak enpresak euskarazko zerbitzua, prezio merkeagoak eta berehalako arreta eskaintzen dizkie bezeroei. "18 edo 20 etxebizitza dauden eraikin baten hileko kuota 10 euro merka diezaikegu bezeroari, eta, ondorioz, urte bukaeran komunitate osoak 1.500 eta 2.500 euro bitarteko superabita eduki dezake gurekin, orain arte ez bezala".

Pertsona bat, etxebizitza bat erosten duenean, komunitateko kuota "garestia" izaten dela konturatzen da. Igogailu kuota, garbiketa, administrazio kontuak... Azkenerako, auzokide bakoitzak 60 euro inguru ordaindu behar izaten ditu hileroko, "dirutza erraldoia". "Guk hileko kuota hori merkatu egin dezakegu, urtean 120 euro aurrezteko aukera eskainiz", argitu dute Hemen Igogailuak enpresako arduradunek.

Kontuak aterata, komunitateak 1.500 eta 2.500 euro bitarte aurrez ditzake Hemen Igogailuak kontratatuta. "Aurrezten den dirua komunitateak fondo bezala erabil dezake, orain arte ez bezala".

MATXURA EGOKI AZTERTU

Kontuak igogailura murriztuz gero, auzokide bakoitzak hilean 17 eta 20 euro bitartean bideratu behar izaten ditu igogailuaren mantentze lanak. Hau da, guztira, atari bakoitzak, hileroko, igogailua edukitzeagatik 200 eta 300 euro artean ordaintzen du. Hemen Igogailuak, kontratu berbera eginez, 150 euroko kuota eskaintzen dute, BEZa barne.



Hemen Igogailuak enpresako langilea, igogailuaren funtzionamendua egokia dela ziurtatzen. | HEMEN IGOGAILUAK

Enpresa handiek ez bezala, Hemen Igogailuak, matxurak momentuan bertan konpontzeaz gain, arazoaren iturria bilatzen dute eta igogailuak ahalik eta matxura gutxien edukitzen saiatzen dira. "Gainerako enpresek horrenbeste teknikari dituzte, arazoa lehenbailehen gaintik konpontzen dute, sakondu gabe. Guk berehalako tratua bera eskaintzen dugu, baina gure teknikarien lana eraginkorragoa da; askotan, igogailua hobeto zaintzen dugula esan dezakegu, arazoa errotik kolpatzen dugulako. Gainera, ondo

"Komunitateak dirua aurreztuko du gurekin"

Enpresak bulego berria zabalduko du bertan

zaindutako igogailu batek urtean matxura gutxi edukitzen ditu".

Urte askoan igogailu zerbitzua beste enpresa batekin hitzartuta eduki eta gero, diru gehiagorik ez galtzeko unea dela deritzo enpresak. "Guk ulertzen dugu enpresa aldaketa batek askori beldurra sor diezaikeela, baina gure kontratua urte batekoa da". Horrela, bada, gustura ez badaude, berriro enpresaz aldatzeko aukera edukiko du komunitateak. Hala eta guztiz ere, Hemen Igogailuak enpresak lana "ezin hobeto" egiten duela dio. "Guk

badakigu gure zerbitzua ezin hobea dela. 200 igogailutik gora kudeatzen ditugu, eta, oraingoz, bezero bakar bat ere ez dugu galdu".

EUSKARAZKO ZERBITZUA

Gainera, zerbitzua euskaraz eskaintzen du enpresak. "Ordua da eskualde honetan hain arrunta den kontratu bat euskaraz sinatu ahal izateko. Euskarazko zerbitzua ematea da logikoena, eta, horrela, bezeroak komertzial batekin euskaraz berba egin ahal izatea".

Enpresako kudeatzaile eta arduradunekin euskaraz hitz egiteko aukera horretaz gain, bezeroak teknikariekin ere "poliki-poliki" euskaraz hitz egin dezakeela diote Hemen Igogailuak. "Teknikariek momentu honetan euskaraz ikasten dihardute".

Bertoko igogailu batzuk ere kudeatzen ditu enpresak, eta, horregatik, aurten, laster, Debagoienean bulego bat zabalduko dute Hemen Igogailuak. "Enpresa Gasteizen sortu bazen ere, bertan ere lan egiten dugu eta bada garaia enpresa bertora ekartzeko".

Beraz, bide horretatik, bezeroak enpresa bertatik bertara edukiko du eta harremana zuzena izango da.

ENPRESAREN INPLIKAZIOA

Etorkizunari begira, enpresak bertan igogailu gehiago kudeatzea espero du. "Ziur gaude poliki-poliki aurrera egingo dugula". Eskualdeko gauzeekin ere inplikatzeko asmoa dutela diote. "Lanpostuak sortu, gustura lan egin eta harreman paregabeak sortzeko asmoa daukagu".



Zerbitzurik onena, prezio ezin hobean!
Zure komunitateak igogailuaren mantentze-lanetan %50 aurreztuko du.

Informa zaitez:
Tel.: 943 04 40 01
debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com

Laster Arrasaten!



- Ohar eta erreskateen asistentzia
- 24 ordu jarraian
- Asteburu eta jaiegunak barne
- 10 urteko esperientzia



GIARTZU estetika zentroa

Tel.: 943 76 30 05 / 943 76 35 71 BERGARA www.giartzu.com

"Berrikuntza eta aholkularitza bateratuta lortzen ditugu emaitzak"

30 urteko ibilbidea eduki arren, estetikak etengabeko formakuntza eta merkatuko baliabide onenak eskatzen ditu.

Maria Isabel, 30 urtek luzerako emango dute.

Ba bai, egia da. Asko eta orokorrean oso onak. Estetikako lehen kongresura joan ginenean uste genuen dena eginda zegoela, baina... gaur egun, Madril, Paris... toki guztietan ikasten da zerbait berria.

Estetika bezalako sektore batek eguneraketa konstantea eskatzen du, ezta?

Bai, formakuntza ezinbestekoa da. Kontuan izan behar da uneoro-uneoro tratamendu berriak agertzen direla; duela bi urte berritzailea zena orain zaharkituta gelditu da. Egunetik egunera, tratamendu eraginkorragoak ezagutzen ditugu.

Esan beharrik ez dago, Giartzun, merkatuko tresneria berriena duzuela.

Bai, noski. Kabitazioa gantz geruza lodia eta zelulitisa ezabatzeko tratamendu berriena da. Irratifikuentzia monopolarra, berriz, punta-puntako teknologia da. Horrekin, gorputza eta aurpegia birmoldatzeaz gainera, estriak eta orbainak kentzeko aukera daukagu.

Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen tratamenduak?

Tratamendu ugari eskaintzen ditugu eta guztiek oso emaitza onak izaten dituzte. Zelulitisarenak arrakasta handia dauka, baina aurpegiaren eta gorputzaren birmoldaketarekin lortzen diren emaitzak ezin hobekak dira. Denborak atzera egiten duela dirudi, urteak desagertu egiten dira eta aurpegiak beste argitasun bat lortzen du. Gure tratamendu guztiek aholkularitza zerbitzua izaten dute eta jendea oso gustura irteten da. Estetikaz gainera, erlaxazio tratamenduak ere egiten ditugu, harriekin...

Zure bezeroen %30 gizonetakoak dira. Horrek harritu egin zaitu?

Ez. Gizonak, emakumeek bezala, azal arazo berberak izaten dituzte, eta guk gure burua zaintzen badugu... Gainera, orain modan dago, gizonetakoek beldurra galdu diete tratamenduei eta aurpegia asko zaintzen dute. Gainera, alde ederra dago!

Dagoeneko uda gainean dugu eta azala zaindu egin behar da; ze gomendatzen duzue zuek?

Elikadura berrantolatu beharra dago, sasoi honetako zenbait elikagai oso lagungarriak izan daitezke kolore hobea lortzeko. Gainera, eguzkia neurritz hartu behar da eta ordutegiak ere bere garrantzia dauka. Hoberena da eguzkia berandu samar hartzea. Ez du merezi hilabete beltzaren egotea eta gainontzeko 11 hilabeteetan azala hondatuta edukitzea.

Maite Otaño
Estetizista

Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
Nutrizionista

Gema Otaño
Estetizista



Aurrerantzean eskola bakarra izango dute herriko trikitilariek

Jardunek eta Bergarako Musika Eskolak bateratze akordioa sinatu dute

I.GALLEGO/A.ALKORTA | BERGARA

Urte askoan nor bere aldetik trikitia bultzatzen ibili eta gero, Bergarako Udal Musika Eskolak (BME) eta Jarduneko Trikiti Eskolak elkarlaneko hitzarmena sinatu dute, eta eskola bakarra sortu. Hitzarmenarekin Udalak "pozik" dagoela azpimarratu du.

Jardunek orain arte trikitiaren gainean egindako lana "txalotzekoa" dela esan du Musika Eskolak. Eta, bide beretik, BMEk azken urteetan egindako lana ere "nabarmena" izan dela gaineratu du, halaber. Baina helburu berak tarteko, bi eskolek bat egin dute eta orain arte nork bere aldetik bultzatu duena orain biek bateratuta egingo dute.

Akordio "erraza"

Marije Ugalde Bergarako Musika Eskolako zuzendariaren esanetan, akordioa iristea "oso erraza" izan da. Azken finean, bi eskolek helburu berbera zuten: trikitia eta panderoa plazaratzea, herritarrei gerturatzea eta instrumentu herriko horiek sendotzea. "Elkarlan honekin trikitiak bizirik jarraitzea bermatuko dugu".



Jardun, Musika Eskola eta Udaleko kideak, egitasmoa aurkezten. | IMANOL GALLEGU

Hitzarmenarekin herriak hezikuntza musikalean erreferente bakarra izatea bilatu dute Jardunek eta BMEk.

Hitzarmena orain sinatu badu-

te ere, azken urteetan elkarlanean aritu izan dira bi eskolak. Eta herriko ekintzetan elkarrekin parte hartu dute, talde bakarra osatuta: Bergarako Trikitilariak.

ESANAK

"Lau urteko lanaren ostean pozgarria da proiektu hau gauzatzen ikustea"

AGURNE BARRUSO
ALKATEA

"Jardunek egin duen moduan, trikitia plazaratzen jarraitu nahi dugu"

MARIJE UGALDE
BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA



IMANOL GALLEGU



"Trabazteko lanean gabiltza"

Mari Carmen Barrenetxeak ez du bere asmoa ezkututzen: enplegua sortzea buru duen programa baten oinarrituta, Bergara gidatzeko prest dagoela dio. Mezua zabaltzeko, arrosak, gozokiak eta programak banatzen dihardu.

Nagusiendako eta haurrendako antzerkia asteburuan

Gaur, egubakoitza, XL Town delako antzezlanaren egingo du Pikor Teatro taldeak Zabalotegi aretoan. *Erosi eta janzten dugun erroparen atzean dagoen errealitatea zein da?* galderari erantzuneko diete ikuskitzunean. 22:00etan izango da emanaldia eta sarrerak 5 euro balio du.

Bestalde, bihar, zapatua, kale antzerkia egongo da. 18:00etan izango da, San Martin plazan -euria egiten badu Zabalotegi aretoan-. Hain justu ere, Panta Rhei antzerki taldeak *Monster Show* delako antzezlanaren egingo du.

MH Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta
www.imh.es

Zatoz!
Tel 943744132

HEZIKETA ZIKLOAK
TXANDAKAKO INGENIARITZA
Ate IREKIAK: Maiatzak 28, 11:00etan



ingeniaritza Aurrematrikula: ekainak 17
Ikasi eta lan... zure txanda!

IMH Elgoibar HEZIKETA ZIKLOAK
aurrematrikula / matrikula
Ekainak 1-10 uztailak 4-8

"Etxeko-lan guztiak ondo egin ditugun sentazioarekin goaz"

Agintaldi osoan, Bergarako Udalaren zorra ia bi milioi jaitsi dute

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Lau urtean zehar betetako proiektu garrantzitsuenen artean, zinegotziek ondoko puntuak nabarmendu dituzte: Gizarte Zerbitzuen eskaintza zabaltzea, kutsadura maila txikitzea, enplegua berpizteko egitasmoak, kirol arloko azpiegiturak hobetzea, turismoaren eta herriko ondarearen alorrean egindako lana, landa eremuen baldintzak hobetu izana, euskararen alorrean egindako lana eta kultura eskaintzaren zabalkundea.

Begarako udal taldeak 2007ko udal hauteskundeetarako aurkeztutako programa "ia oso-osorik" bete duela esan du Agurte Barruso alkateak. Besteak beste, lau urte hauetan "herria berpizteko egindako ahalegina" eta Udalean "ezarritako demokrazia erreala" azpimarratu dute bertaratu ziren zinegotziek. Esandakoari errepa-



Udal taldeko zinegotziak eta Jesus Mari Garitano aholkularia. | IMANOL GALLEGO

ratuz: "Udala eta herria hurbildu egin ditugu". Bada, egindako lanaz harro sentitzen direla argi dago.

Azken egunotan, kanpainen entzundako zenbait kritikari ere

buelta eman diote. Barrusoren hitzetan: "Kritika asko entzun ditugu, baina oraindik ez dugu irtenbide zuzenik entzun". Dena den, triunfalismo faltsuetatik urrun, gestioak zenbait akats izan

ditzakeela onartu du irtetear dagoen udalbatzak; hala ere, "ahalegin eta asmo onenarekin" egin dutela esanda laburbildu dituzte lau urte hauetan egindako gestio lanak.

Obrak eta oreka ekonomikoa

Aurrekontu, zor eta egitasmoen arteko oreka mantendu nahi izan dute. "Zenbait proiektu, aurrekontua dela-eta, baztertu egin behar izan ditugu", esan zuen Barrusok. Hala ere, udalbatzak, prentsaurrekoan, aurrera eramandako hamaika egitasmo, proiektu eta azpiegitura aipatu ditu. Gainera, hurrengo Udalak horrela onartzen badu, hurrengo urteetan egingo diren zenbait proiekturen lehen pausoak ere eman dituzte. Proiektu horiek guztiak aurrekontuari begira egin dira. "Batzuek kontrakoa dioten arren, Udal honen zorra ia bi milioi jaitsi dugu", adierazi zuen Aitor Goitik, Ogasun zinegotziak.

Irtetear dagoen udalbatza iritsi arte azpikontratatuta zeuden zerbitzu batzuen kontrola berreskuratzeko udal gastuaren murrizketa ekarri du, eta, horren ondorioz, zorra ere nabarmen txikitu dute.

OHARRAK

TRIKITIXA EGUNERAKO TXARTELAK SALGAI

Ekainaren 4an Durango-Iurretan ospatuko den Euskal Herriko Trikitixa Eguneko bazkarira joateko izenematea zabaldu dute Jardunen. 15 euro ordaindu beharko dira maiatzaren 25a baino lehen.

SAN JOXEPE ELKARTEAREN OHARRAK

Hilaren 26an Irunera egingo duten mendi ibilaldirako izenematea zabalik dago: 07:00etarako egin dute hitzordua autobus geltokian, gero Zumarragan tren hartzeko. Eta jakinarazi dute irailean Cadizera egingo duten bidaiaren izena emateko ez dela derrihorrezkoa elkarteko kide izatea. Gainerako erretiratu eta pentsiodunendako ere zabalik dago, hilaren 31ra arte.

BILDUREN KANPAINA BUKAERAKO JAIA

San Martin plazan egingo dute, 20:30ean eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

LABek eta ESK-k hauteskundeak irakurketa egin dute

Udaleko LABek eta ESK-k "kezka, amorru eta egonezina" azaldu dute, erredakziora bidalitako oharrean "azken agintaldian bidaia-lagun izan dugun Gobernu taldea osatzen duten hauteski gehienei ukatu eta oztopatu egin dietelako berriz aurkezteko eskubidea". Eta, horren haritik, "Udalak eta Bergarak asko galtzen" dutela diote. Era berean, "kanpainen baitan bereziki EAJren eskutik langileok jasotzen ari garen tratu ez egokia eta bidegabea", salatzen dute. EAJk, bestalde, langile guztiak "errespetatzen" dituela dio, eta salatzen dutena dela Goneruaren kontratazio politika.

EAJ krisi egoera honi buelta emateko "aukera bakar" moduan aurkeztu da

Alkategaiak eta Egibarrek bozka baikotzaren indarra azpimarratu zuten

I. GALLEGO | BERGARA

Bergaran dagoen langabezia maila eta industriaren gainbehera. Horiexek dira Aintzane Oiarbide Bergarako alkategai jeltzaleak momentu honetan dituen kezka nagusiak, eta, haren esanetan, herrian etorkizuna egon dadin, beharrezkoa da "Bergara ezberdin bat".

Domekan botoa ematearen garrantzia azpimarratu zuen Oiarbidek, eta zentzu berean hitz egin zuen Joseba Egibarrek ere. Haren esanetan, botorik ez ema-



Aintzane Oiarbide Bergarako alkategaia eta Joseba Egibar. | IMANOL GALLEGO

tea gutxien gustatzen zaizun alderdiaren alde egitea da, eta "kritikoak" ere botoa ematera animatu zituen.

Denborak duen garrantzia

GBBko presidentearen hitzetan, erakundeek pultsua hartu behar diote egoerari, eta egun ez da horrela gertatzen ari. Horren adibide jarri zuen gaur egun euskal ekonomia Europakoa baino hiru aldiz motelago hazten ari dela. Bergararen kasuan, berriz, diru publikoarekin jendea kontratatu beharrean hazkunde ekonomiko orekatuaren premia azpimarratu zuen.

Egibarrek gaineratu zuen jeltzaleek eskaintzen duten proiektua proiektu koherentea dela, eta hori erakusten duela orain arte izandako ibilbideak.

*piñtxo
potea*
Matxiategin

Ostiraletan 19:00 - 21:00

Etorri eta gozatu!



Aralar - Kayak - Matxiategi - Toki-Ona

Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe ezagutzeko irteera egingo dute

Etzi, domeka, egingo dute 3-4 orduko espeleoabentura irteera; izena aldeztu aurretik eman behar da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Arrikruz barne-barnetik ezagutzeko irteera egingo dute domekan. Hain zuzen ere, espeleoabentura irteera egingo dute. Iaz egindako deialdiek izandako erantzuna ikusirik, udarako proposamenen artean, Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe konplexu karstikoa ezagutzeko ibilaldia egingo dute.

3-4 orduko ibilaldia da, eta interesatuek aldeztu aurretik eman behar dute izena 943 08 20 00 telefonoan. Gehienez 20 pertsona

onartuko dituzte. Parte-hartzaileak 16 urtetik gorakoak izan beharko dute. Antolatzaileek aholkatzen dute arropa eroso eramatea. Gainera, frontala eta katiuskak beharrezkoak izango dira.

Eszentrika

Arrikruz barne-barnetik delako ibilaldian lur azpiko ondarea ezagutzeko aukera egongo da. Arrikruzeko galerian fosil eta aktibo batzuk bisitatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Gainera, Marcel Lopurben galeria ikusteko aukera izango dute. Hor dago ikusgai Arrikruzeko eszentrika, eta beste hainbat gauza; besteak beste, estalaktikak, estalagmitak, zutabeak, kanpai itxurako koladak, eta gours-ak.

Urrira arte zortzi irteera

Domekako irteeran parte hartu ezin dutenek, aurrerago izango dituzte beste hainbat; hain zuzen ere, ekainetik urrira arte zortzi egingo dituzte: hilero bana, eta

uztailaren eta abuztuaren bina. Hurrengo irteeren datak dira: ekainaren 18a; uztailaren 9a eta 23a; abuztuaren 6a eta 20a; irailaren 17a; eta urriaren 15a.

Jurasikoa eta Kretazikoa

Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe konplexu karstikoa Jurasikoa eta Kretazikoa, herrialdean existitzen ziren itsasoetan sedimentazio eta kareharrizko arroken eraketa gobernatu zituzten prozesu geologikoen emaitza da.



Bilduko kideak eta herritarrek, koalizioak egindako bideoa ikusten San Lorentzon. | MAIDER ARREGI

"Herriak aldaketarako gogoa" duela esan zuten, Bilduk egindako ekitaldian

Eguaztenean, hainbat herritarrek egindako bideoa aurkeztu zuten



M-22 **Gizarte**

**ongizatea,
Hamaikabaten
oinarria**

Hamaikabaten hainbat ordezkari egon ziren astelehenean Oñatiko alkategai Amaia Intza babesten; besteak beste, H11-eko presidente Iñaki Galdos, Ogasun diputatu Pello Gonzalez eta Politika Sozialeko foru diputatu Maite Etxaniz egon ziren. Intzak esan zuen euren programaren oinarria gizarte ongizatea dela. Horren harira esan zuen: "Sozialdemokraziaren esparruak badauka zer eman herrian; lehentasunak marka ditzakegu eta hortik diferentziak ezarri".

M.B. | OÑATI

Bildu koalizioak kanpainako azken-aurreko ekitaldia egin zuen eguaztenean San Lorentzon. Hainbat herritarrek "herriarendako" grabatutako bideoa aurkeztu zuten Garoa eta Aldapa tabernen arteko plazan. Bideoan, Bilduren programaren ildo nagusiak jaso dituzte. Ekitaldia jendetsua izan zen. Emanaldiaren bukaeran hitza hartu zuen Mikel Biain alkategaiak. Esan zuen azken ekitaldi politikoa, nagusia, gaur, egubakoitza, egingo dutela. 19:00etarako egin dute deialdia Herriko Plazan.

"Emaitza historikoa"

Eguazteneko ekitaldiaren bukaran Mikel Biainek esan zuen herrian "aldaketarako gogoa" sumatu dutela: "Herritar askoren animoak jaso ditugu, eta esan digute aldaketarako gogoa dutela. Dagoeneko domeka heltzeko gogoa daukagu. Botoa eman eta emaitzak ikusi. Historikoak izango dira Bildu koalizioarendako. Askotariko kinielak egin ditugu, baina, oraingoz, isilean gordetzea hobe dela uste dut".

Lizargarate trikitizale taldekoen eskutik erromeria egingo dute

Lizargarate trikitizale elkar-tekoek erromeria egingo dute bihar, zapatua, Ona tabernaren aurreko plazatxoan, 22:30ean. Miren, Agur eta Gorka izango dira musika jarriko dutenak. Aurretik, baina, kalejira egingo dute egungo eta lehengo trikitilari-ek. 40 bat lagun kalerik kale ibiliko dira trikitiekin 18:00etan.

180 neska-mutiko eskolarteko bertsolari txapelketan

Eskolarteko txapelketako kanporaketa Oñatin jokatu dute gaur. Bertso-paperetan Arrasateko, Aretxabaletako, Elgoibarko, Urretxuko eta Oñatiko bertso eskoletako ikasleak lehiatu dira (15:00-16:00). Ondoren, bat-bateko saioan Donostiako, Urretxuko eta Alegiako zortzi gazte egingo dute saioa, Santa Anan.

OHARRAK

KONTZERTUA

Shut Up! taldeak kontzertua emango du gaur, 20:00etan, Anton tabernan. Funk-rock instrumentala lantzen dute, eta kideak dira Aby Kem eta Mahaster River taldeetako kide ohi Fernando Laskurain (gitarra-jotzailea), Mikel Azkargorta (baxu-jotzailea) eta Mikel Ilarduia (bateria).

DEIALDIA

1946an jaiotakoek irteera berezia egingo dute ekainaren 4an. Interesatuek izena eman behar dute maiatzaren 28a baino lehen Izarraitz tabernan edo Urrutia dendan. Antolatzaileek dei berezia egin diete guztiei irteeran parte har dezaten.




M-22

Aralarkoak herritarrekin

Aralarko alkategai Miren Arregi udal hauteskundeetarako programa banatzen egon zen astelehen arratsaldean Herriko Plazan. Besteak beste, zerrendako bigarren Anton Ugarteren laguntza izan zuen.

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2011

ALKATEGAIEI ELKARRIZKETAK



ARRASATE **18**
BERGARA **24**
OÑATI **29**
ARETXABALETA **36**
ESKORIATZA **40**
ANTZUOLA **44**
ARAMAIO **46**
ELGETA **48**
LEINTZ GATZAGA **51**

BERBA BITAN



INAXIO AZKARRAGA-URIZAR

Elorrio.
49 urte.
LAB sindikatuko liberatua.



"Jendearen elkarlana da garrantzitsua"

"Herritarren hitza eta gardentasuna dira gure gestio ereduaren tresnak. Helburua izango da Udala arrasatearregandik ahalik eta gertuen egotea. Horretarako, guztion arteko harremanak eta auzolan dinamikak sustatuko ditugu. Jendearen elkarlana oso garrantzitsua da, ekarpenak eta ekimenak jasotzeko".

Inaxio Azkarraga-Urizar | Bilduko alkategaia

"Udala arrasatearregandik ahalik eta gertuen egotea da gure helburua"

USOA AGIRRE | ARRASATE
Elorriarra da Inaxio Azkarraga-Urizar, baina ondo ezagutzen du Arrasate; 26 urte daramatza bertan bizitzatzen. Udala arrasatearregandik hurbil egotea nahi du eta horretarako herritarrei bitartekoak eskaintzea da helburua.

Hirigintza

"Berria eraiki aurretik eraikita dagoenari ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatuko gara. Mugikortasunaren arazoei konponbidea bilatzeko saiakerak egingo ditugu, beti ere oinezkoiei, bizikletei eta garraio publikoari lehen-tasuna emanez. Etxebizitza hutsen erabilpena sustatuko dugu; etxebizitzaren alokairuen alde gaude eta horretarako alokatzeko neurri pizgarriak bultzatuko ditugu".

Ingurumena

"Kontsumo basatiaren espi-raleatik ihesi zaborraren

gutxitzea, birziklatzea eta berrerabilpena garatzeko politika egingo dugu. Zero zabor helburu hartuta, zabor biltzea sailkatuaren aldeko apustua egingo dugu. Herritarren inplikazioa lortzeko informazioa zabaldu eta eztabaida soziala bultzatuko dugu. Naturguneak garbitu, txukundu eta berreskuratu egingo ditugu. Herri barruko aparkaleku eta trafikoaren antolaketa orokor bat egingo dugu. Herrirako desegoki eta txikitzaileak izan daitezkeen proiektuei aurre egingo diegu, eta gai hauei buruz herritarren artean informazioa zabaldu eta eztabaida sustatuko dugu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Jaiak antolatzeko orduan herri ekimen, mugimendu zein jai batzordeekin batera elkarlanean arituko gara. Euskal Herriaren eta Arrasateren historia eta ondarea ezagutzera emateko egitas-

moak bideratu eta oroimen historiko hurbilena indartuko dugu. Hau da, herriko kultur ondarea beste belu-naldiei transmititzeko tresna eta bitartekoak eskainiko ditugu. Herrian sortzen diren elkarte berriei sostengu eta babes emango diegu. Gainera, beraien jarduera egonkortzeko lan egin eta martxan daudenekin elkarlana bideratuko dugu. Musika etxearen proiektua eguneratu eta bere bideragarritasuna aztertuko dugu. Gazteriaren arloan, gazteek erabakitzeke, antolatzeko guneak eta egitasmoak bultzatu eta babestuko ditugu. Drogamenpekotasunaren egoera eta gaia aztertu: alde

batetik, kontsumo arduratsuaren prebentzioa eta sentsibilizazio kanpainak egin; eta bestetik, sortzen dituen ondorioak aztertuko ditugu".

Euskara

"Euskararen erabilera plana bultzatzen jarraituko dugu, beti ahozkoari indarrak jarrita. Udal zerbitzuetan herritarrek euskara hutsean harremanak izan ditzaten animatu eta hizkuntza eskubide urraketak direnean salaketa horiek bideratzeko babes eskainiko dugu. Herritar elkarte, erakunde eta merkataritzan euskalduntzean eragingo dugu. Euskararen ezagutza eta erabilera ziur-

tatu eta bermatzeko ildoak garatuko ditugu. Euskalkiaren erabilera areagotzeko beharrezkoak diren bitartekoak erabiliko ditugu".

Gizarte ongizatea

"Emaus, Gureak eta Ausolan moduko gizarteratze programak indartuko ditugu. Zaharren egoitzaren eskualdatzea Foru Aldundiarekin modu egoki eta duinean lortuko dugu. Udalak kudeatzen dituen zerbitzuak udalak kudeatzen jarraitzea nahi dugu. Horretarako, beharrezkoak diren baliabideak Foru Aldundiari exijituko dizkiogu. Herritarren jakintza aberasteko helburuarekin auzolanaren bitartez esparru ezberdinetan adituak diren pertsonen jakintza-transmisio lana bideratzeko egitasmoak bideratu".

Kirola

"Lehiakortasuna alde batera utzi eta herritarrek kirola praktikatzera animatu nahi ditugu. Arrasatearrei jarduera fisikoa burutzeko erraztasunak eman, aukera ezberdin eta anitzak eskainita. Kirol instalakuntza itxi nahiz irekien azterketa burutu, auzoetakoak barne. Hauen hobekuntza bideratu eta erabilera sustatzeko".

"Alokairurako neurri pizgarriak bultzatuko ditugu"

"Zabor biltzea sailkatuaren aldeko apustua egingo dugu"



www.bildu.info

bildu
arrasate

eman
botoa



BERBA BITAN



JUAN KARLOS GARITANO

Antzuolan jaioa.

61 urte.

Aurre-erretiratu.



"Gure botoak EAJn batzeko unea da"

"EAJk herritarren neurriko programa ona du Arrasaterako. Horregatik, eta Gipuzkoaren eta Euskadiren alde ere lanean ari garelako, garrantzitsua da botoa guri ematea. Maiatzaren 22an etxean geratzeko eta boto abertzalea barreiatzeko aurrerantzean espainolista indartzen dute. Botoak EAJn batzeko unea da".

Juan Karlos Garitano | EAJko alkategaia

"Politika egiteko modu berria behar du Arrasatek, arlo guztietan"

GOIATZ ARANA | ARRASATE

EAJrentzat, elkarrizketa eta elkarlana beharrezkoak dira Arrasate aurrera ateratzeko; hori da euren marko orokorra eta estilo politikoa, baita alderdiaren programaren irizpide nagusia ere, Juan Karlos Garitano azaldu digunez.

Hirigintza

"Aparkalekuen arazoari heldu behar diogu. Larraldi kasuek eramaten gaituzte ospitale inguruan autoa uztera -gehienetan-; bada, bertan dagoen arazoari behin-behineko soluzioa eman behar diogu ahalik eta azkarren, eta behin betiko irtenbidea adostu Osakidetzarekin. Herriko kaleetan aparkalekuak erregulatzeko ere beharrezkoa da; Biterin eta Laubiden, esaterako. Arrasate garbi eta zaindua bultzatzea ere badugu helburu: bakearen aurpegia erakusten hasi, kale eta hormak zaindu, eta herria berritu".

Ingurumena

"Lau urtean kaxa baten izan dute Arrasate Iraunkorra ekintza plana. Ondorengo urteetarako ze aukera eta erronka ditugun zehaztu eta zer egin proposatu du plan estrategiko horrek, baina Udalak bazter baten izan du agintaldi osoan. EAJk gaurkotu eta hobetu egingo du. Klima aldaketari aurre egiteko, adibidez, energia egoki erabiltzeko eta autoa neurrian hartzeko politika bideratuko dugu, anhidrido karbonikoaren emisioa murrizteko: %20, 2020rako. Hondakin organikoak batzeko bosgarren edukiontzia jarriko dugu eta San Josepe harrobia biziberritzen lagundu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kultura da herriaren bihotza eta arnasa. Herriko hainbat kultura talde egotza egokia behar dute, eta gogotik saiatuko gara erlo-

juaren eraikinean musika etxea egiteko. Aisialdiarekin lotuta, hainbat ekitaldi antolatuko ditugu, ikusteko, entzuteko eta parte hartzeko, herrian bertan; eta zinema-aretoaren eta kafe antzokiaren bideragarritasunaren alde egingo dugu. Bestetik, arrasatear guztiei eta, bereziki, gazteei, *bostEkoa* eskainiko diegu EAJtik: Errespetua, Elkarrizketa, Elkarlana, Elkartasuna eta Erabakia. Horrekin guztiorrekin, elkarbizitza eraikiko dugu".

Euskara

"Arrasaten ugaria da euskarazko kulturagintza -AED eta GOIENA kasu-. Krisia nabaria da arlo guztietan,

baina hitz ematen dut kultura eta euskara bultzatzeko Udalaren dirulaguntzak ez direla jaitziko. Euskararen normalizazioa arautuko duen udal ordenantza ere falta da eta beharrezkoa da egitea. Gure herrian euskarak aurrera egin du nabarmen, baina ez dugu hainbeste erabiltzen; eguneroko bizimoduan ohitura hori har dezagun, lagunduko dugu Udaletik. Etorrinekin ere ezin gara ahaztu: munduko 55 herritako mila etorkin baino gehiago bizi dira Arrasaten. Askok gure aitaita-amamak zaintzen dituzte eta ume txikiak dituzte. Herrian hobeto integra daitezten, euskara hurbilduko diegu".

"Gogotik saiatuko gara musika etxea egiteko"

"Beharrezkoa da gure enpresa eta komertzioak ondo joatea"

Gizarte ongizatea

"Giza elkartasuna eta gure ekonomia dira oinarri nagusiak. Lehenik, behartsuenak eta arriskuan dauden pertsonak lagunduko ditugu, zuzentasunez. Arrasatearren %12 lan barik daude, etorkinak %5 dira eta 65 urtetik gorakoak %20. Pertsona horien aldeko politika egiteko, beharrezkoa da gure enpresa eta komertzioak ondo joatea. Hutsik dauden pabiloi industrial eta lokal komertzialak mar txan jartzeko plana egingo dugu, eta herriko merkatua berritu; ez dugu igoko gastu arrunta eta diru sarrerak bermatuko ditugu Udalean".

Kirola

"Kiroldegiari serio heldu beharra dauka Udalak; kiroldegiaren kudeaketak txartel gorria merezi du. Horri buelta emango diogu, herriari benetako kirol zerbitzua eskaintzeko. Arrasateko kirol sistema egituratzen ere hasi beharra dago, kirolarekin zerkusia duten guztiekin: ikastetxeak, kirol elkar-teak, kirol enpresak... Udalak, onerako, benetako bultzada eman behar dio kirolari. Herriko bideak berreskuratzeko asmoa ere badugu, Besaiderekin elkarlanean".

DOZKATU EAJ PNV

Arrasate

Arrasate



ONENA EMATEKO GARAIA



BERBA BITAN

**ARITZ
ARRIETA**Arrasate.
33 urte.
Politikaria.**"Instituzioak
erakarriko
ditugu"**

"Aldaketa lasaia ekarri gura dugu Arrasatera eta helburua Arrasate bailarako hiriburua izatea da, aukera instituzionalez balia gaitzen; horren adibide da ospitalea. Halako instituzioak erakarriko gura ditugu eta herri osoaren mesedetan izango da hori. Garapenaren alderdia da sozialista".

Aritz Arrieta | PSE-EE-PSOeko alkategaia**"Garapenaren alderdia da sozialista eta Arrasate bailarako hiriburua izango da"**

JON BEREZIBAR | ARRASATE
Erakundeetan pisua eman gura diote herriari; instituzioak, batetik, eta instituzionalizazioa bide moduan, bestetik. Euskarari eta kirolari egunak eskainiko dizkiete, eta, kultura iman bilakatuta, herriko merkataritza piztu. Arte eszenikoen zentroa da proposamen deigarrietako bat. Horrekin guztiorrekin Arrasate Debagoieneko herri nagusi izanik hiriburua izan behar duela dio, baita maila instituzionalean ere, horrek eman diezazkiokeen aukerez baliatzeko.

Hirigintza

"Alderdi sozialista betidanik arduratu izan da auzoez eta gure helburuetako bat da hango irisgarritasuna konpontzea. Jakin badakigu zenbait auzotako arazoa orografia bera dela; bada, oztopo arkitektonikoak kendu nahi ditugu eta hiri barruko autobusaren ibilbidea berrikusiko dugu.

Ardatzetako bat izango da San Frantzisko eliza osteko biribilgunetik Muxibarko-rainoko ibilbidea berriz antolatzea, batez ere ibilgailuei dagokienez. Argiaren kontsumoa murrizteko, argiterian aldaketak egin-got ditugu".

Ingurumena

"Ingurumena lantzeko bi puntu garrantzitsuenak iruditzen zaizkigu Monterron eta Santa Barbara parkeak herriko berdegune nagusi moduan. Horrez gain, bosgarren edukiontzia ipiniko dugu, ez dugu eta atez ateko bilketan sinesten. Ikusi den moduan, horrek eragingo du *zabor turismoa* delakoa. Usurbilen, adibidez, martxan jarri zenean, *zabor turismo* hori Donostialdean egin zen, jendea beste herri batzuetara joaten zen zaborra botatzera".

**Kultura, aisialdia,
gazteak**

"Gure programako puntu-rik azpimarragarrietakoa

da. Alkate moduan kultura kaleetara atera nahiko nuke, eta, hala, herriko komertzioa ere piztuko dugu. Elkarrekin uztartu behar ditugu kultura eta merkataritza, eta Arrasate bailara osorako erakargarri egin. Kultura eskaintza bera erakargarri eginda, herriko merkataritza piztea lortuko dugu. Proiektu nagusi eta erakargarrietako bat arte eszenikoen eskola

**"Arte
eszenikoen
zentro bat
eraikiko dugu"****"Kulturarekin
merkataritza
ere indartzea
nahi dugu"**

izango da, Gipuzkoa osoan lehena izango dena, eta erreferente bilaka dadila gura dugu. Leku publikoetan 24 orduz kalitatezko eta doako wi-fia ipiniko dugu, gazteentzat, haiek baitira erabiltzaile nagusiak, baina baita herritar guztientzat ere".

Euskara

"Egun bat instituzionalizatu nahiko genuke. Euska-

**"San Frantzisko
eta Muxibar
arteko ardatza
hobetuko dugu"****"Etxebizitzarako
Jaurlaritzarekin
hitzarmanak
gingo ditugu"**

raren Eguneko maratonia izango da proposamenetako bat eta Zarautzen egiten duten moduko Euskararen Eguna antolatuko genuke. Eta Udaleko Euskara Plana berrikusi egin beharko litzateke. Egunen instituzionalizazioa garrantzitsua da".

Gizarte ongizatea

"Hiritarrei alokairuko etxebizitzak eskaintzeko Jaurlaritzarekin egingo dugu lan, hitzarmen bidez haiegi gure lur publikoak utzita. Elkarlana izango da gakoa. Etxez etxeko laguntza indartu egingo dugu, beharra sumatu dugu-eta. Nagusien ongizateak ere arduratzen gaitu, eta baliabideak emango dizkiegu egoitzei".

Kirola

"Bailarako ekipamendu onena dauka Arrasatek, baina bada zer hobetua instalazioez gain. Kirola sustatu eta ekipamenduak hobetzeko dotazio berezia abiatu gura dugu urtero, hori izango da konpromisoetako bat. Egunen instituzionalizazioari garrantzitsu deritzogu; horregatik, kirolari zuzendutako egun berezia antolatuko dugu, euskararekin proposatzen dugun moduan. Ohiko kirolez gain, futbola, sakibaloia-eta, kirol ezberdinak ere sustatuko ditugu".

Itziar Lamarain | Arrasateko PPko alkategaia**"Zinema-areto egokia behar dugu, lau bat zinema-areto txikiko zinema bat"**

ENEKO AZKARATE | ARRASATE
Hurrengoak hirugarren agintaldia izango du Gasteizen bizi den Itziar Lamarain arrasatearrak.

Hirigintza

"Arrasatek ez dauka lursail handirik hirigintza alorrean gauza berezirik egiteko. Hortaz, planteatzen duguna da Plan Orokorra berritzea, ze zortzi urte baitaizka oraingoak eta berria egin beharra dago; hala ere, presio egin behar dugu Mondragoeko udal kargu guztiok batera Eusko Jaur-laritzan, Debagoieneko tranbia egiteko; mugikortasunaren aldetik aurrerapen handia izango litzateke eskualde honetarako".

Ingurumena

"Arrasaten aire garbia behar dugu; erreka garbiak, enpresek erreka isurtzen duten zikinakeriak saihestu behar dira... Baina zera azpimarratu gura dut: hemen, Herriko Plazan, begiratu besterik

ez dago; pintadak besterik ez dago; kartelak, pegatinak... Herria zikindu besterik ez dute egiten, bisitarien begien aurrean itxura kaskarra ematen dugu. Eta eskatu gura diet kartelak-eta edozein tokitan jartzen dituztenei ohar daitezela, herria zikindu eta ingurumenari kalte egiteaz gain, diru asko gastatzen dugula txukuntze eta garbitze lanetan. Sentitzen dut, baina egoera hau salatu beharrean nago, ze horiek jartzen dituztenek ekologiztatzen baitute euren burua, baina ez dira ekologistak".

**Aisialdia, kultura,
gazteria**

"Kapitulu zabala da hau. Nik uste dut, alor honetan,

**"Mugikortasun
aldetik, tranbia
beharrezkoa da
eskuialderako"**

Arrasateko Udalak egiten dituela gauzak. Zentzu horretan, balorazio positiboa egiten dut. Hilero kultura egitarau zabala prestatzen da. Egia da, hala ere, beste gauza batzuk ere egin daitezkeela. Harrigarria egiten zait, esaterako, talde pribatu bat dagoela, Izaskun Murgia elkarte lirikoa, zarzuela antolatzen duena urtean behin. Bi egunean. Jendez gainezka egoten da. Eta ezin zaie eskatu zarzuela hori antolatzen duten partikular horiei egun gehiagotan eskain dezatela. Baina horren arrakastatsua bada, ezin daiteke bultzatu Udaletik?

Bestalde, aisialdiari dagokionez, zinema-areto

**"Euskara eta
gastelania dira
nire hizkuntzak;
biak gura ditut"**

egokia behar dugu. Ez mul-ti-zinema handia, baina bai lau zinema-areto txikiko zinema bat. Uste dut erren-tagarria izango litzatekeela, baina ez gara gauza lortzeko enpresa pribatu batek zinema aretoa kudea dezan.

Eta, nagusiei begira, astero dantzaldi bat antola daiteke... zer dakit, ba, horrelako kontuak...".

Euskara

"Euskarari buruz galdetzen didazue, baina eten txiki bat egin gura dut. Gazte-riaren alorrean esan gura dut une honetan pentsatzen ari garela gazteriarendako gune bat egitea herriaren erdian. Bestetik, ludotekek ondo funtzionatzen dute. Euskarari dagokionez, esan behar dut euskararen defendatzailea naizela, euskara erabilia izan dadila gura dudala. Euskara Biziberrit-zeko Plana egin genuen eta horretan sakonduko dugu, euskara lehen-tasun

BERBA BITAN

**ITZIAR
LAMARAIN**Arrasate.
65 urte.
Autonomoa.**"Ideologiari
begiratu barik,
herriaren alde"**

"Azken zortzi urteak eman ditut mondragoetarron alde lanean, ideologiari begiratu barik, arrasatearrondako ona dena babesten, guztiondako ona dena laguntzen. Eta berdin segituko dut. Nik ez ditut proposamen handiak egiten, proiektuen gaineko promesak egiten. Lana eta borondatea eskainiko ditut".

izan dadin. Elebitasunaren aldekoa naiz. Euskara nire hizkuntza da, gastelaniarekin batera".

Gizarte ongizatea

"Oso garrantzitsua da, lehen-tasunezkoa. Arrasateko Udalak inbertsio handiak egin ditu alor honetan. Egia da etorkizuna ez dela oso baikor egoteko modukoa, baina oso zehatzak izan behar dugu gizarte ongizate-terako diruen banaketan. Esan gura dut Arrasaten ere gehiegikeriak gertatzen direla, diru gehiegi banatzen dela, eta uste dut hausnarketa egin behar dugula gizarte ongizateko diruen banaketari dagokionez".

Kirola

"Kiroldegi eta, oro har, kirol instalazio onak dauzkagu. Falta dena da instalazio horiei probetxua ateratzea. Kirol elkarte eta taldeetakoak ari dira, erabiltzen dituzte instalazioak, baina gainerako hiritarrak animatu gura ditut kirola praktikatzera. Hemen nago ni, ia egunero joaten naiz -eta igeri egitera. Hortaz, hauxe nire deia: egin kirola, badakizue-eta burua osasuntsuago dagoela sasoi-tsu gaudenean. Eta ez bakar-rik gazteei edo umeei, baizik eta nagusiei, adineko-iei, ere egiten diet dei".

"Pertsonak baino ez diote zentzurik ematen Arrasateri. Gure herrian bizi, disfrutatu eta, batzuetan, sufritzen dugun 22.000 gizon-emakumeok erronka hau dugu: Arrasateko elkarbizitza hobea, atsegina eta segurua izatea lortzea. Direnak eta ez direnak egingo ditut hori lortzeko.

Badakizu aspaldiko urteotan erabatekoa izan dela nire konpromisoa Arrasaterekin. Badakizu beti ibili naizela arazoaren soluzio bila, arazoak nork zituen edo zein ideologiakoa zen alde batera utzita. Badakizu beti izan naizela zorrotza arrasatearren diruarekin eta beti saiatu naizela aurrekontuko euro bat bera ere alperrik ez gastatzen. Badakizu beti egon naizela, nagoela eta egongo naizela zuri entzuteko prest.

Horregatik, datorren maiatzaren 22an zure konfiantza lortzea espero dut, bai eta zure botoarekin datozen 4 urteetarako zinegotzi moduan lan egiteko "kontratatu nauzula" ere. Nire dedikazio osoa, ondradutasuna, lana eta esperientzia jarriko ditut Arrasateren alde."

Arrasate mugitzen ari da

**ICIAR
LAMARAIN**

Alderdi Popularraren alkatetzarako hautagaia



populares
guipuzcoanos

www.ppguipuzkoa.com



BERBA BITAN



**JOXE
ETXEBERRIA**

Berastegi.
60 urte.
Fundizioko diseinugilea.



"Parte-hartzea bideratuko dugu herri-lanarekin"

"Gogoeta moduan planteatuko genuke etorkizuna josi egin behar dela, eta joste horretan sartzen dira herritarrak.

Parte-hartzea ahalbidetzeko, bi norabidetan landu behar da: Udaleko teknikari eta politikarien aldetik, batetik; eta herritarrek duten parte izateko gogotik, bestetik".

Joxe Etxeberria | Aralarko alkategaia

"Etorkizuna josteko, herritarren parte-hartzea bultzatzea ezinbestekoa da"

AITZIBER ARANBURUZABALA |
ARRASATE

Joxe Etxeberria berastegi-garria da jaiotzez. Maisu ikasketak egitera Arrasateko Eskola Profesionalera etorri zen, 14 urterekin, eta bertan geratu. Datorrena hirugarren agintaldia du.

Orain urtebete izan zuen erorketa baten ondorioz egin zioten operazioan sortutako arazoak tarteko, makuluak ditu egun lagun; hala ere, oraindik erreku-peratze bidean bada ere, animoso eta indartsu dela dio Etxeberriak.

Hirigintza

"Inportanteena barne-konexioa, herri antolatu bat, herria bizi izateko gune bat eratzea da.

Horretarako, Egitamu Orokorra berritu beharra dago eta hor hainbat aldaketa proposatzen ditugu: gune berriak eratu behar diren (Garagartzan kasu), daudenak berritzea aztertzea (San Josepe kasu).

Programaren ardatz dugun barne-konexioa lortzeko, TAO sistema planteatzen dugu. Ez dugulako lortzen herri barruan autoaren mugikortasun logikorik; hau da, goizean lanera datorrenak egun osorako okupatzen du aparkalekua erdigunean, beste inori aukera kenduta. Nolabaiteko irten-bidea, bada, TAO sistema litzateke, nahiz eta Udalarentzako kostua izan.

Horrekin batera, komertzioa herrigunean antolatu gura dugu, herrigune bizia helburu".

Ingurumena

"Inguruneak ere hirigintzarekin zerikusia duenez, sailen arteko lotura aldarrikatzen dugu.

Zaborren kudeaketari dagokionez, Aralarrek garbi esaten du errauskailu zentralik ez dela behar eta zaborrak ahalik eta gertuen kudeatu behar ditugula; horretarako, ze sistema erabili behar dugun herri-

tarren artean eztabaidatu beharko litzateke".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kultura arloan Aralarrek planteatzen duena da Elma eraikina gestionatzeko antolaketa behar dela herriko taldeen beharrak aztertu eta horiek jasota, Hirigintza Sailetik bideratu.

Aisialdiari helduz, gauza asko sartzen diren atal horretan, besteak beste, herriko ibilaldiak daude, bidegorriak, besteak beste; daudenak lotu egin beharko lirakeke. Hirigintzarekin planteamendu koordinatua eskatzen du.

Gazterian gauzarik inportanteena da gazteria

herri honetako partaideak direla, eta, beraz, eurek ere zer esana dutela herrian gauzatzen diren gaietan. Horretarako, euren aldetik ere autogestioan bizi izatea da garrantzitsua".

Euskara

"Euskara Biziberritzeko Plana martxan jartzea izan da gure asmoa bi agintalditan: lehenengoan erdi bideratuta geratu zen, baina bigarrean gelditu egon da zentzu orokorrean.

Aralartik uste dugu norbanakoak euskararekiko jarrera positibo eta militantea izan behar duela; era berean, talde eta erakundearen artean harremanak edukitzea ezinbestekoa dela

deritzogu, osotasunean euskararen planak martxan jartzeko".

Gizarte ongizatea

"Hemen sartu nahiko nuke kontzeptu berri bat, lagun batek esan zidan moduan: 'Osasuna da gure ondasuna'. Hori horrela, osasuna bere osotasunean hartu behar dela uste dugu. Hau da, hezkuntzak badauka zerikusia osasunean, baita hirigintzak ere, eta baita beste hainbat arlo ere: elikadurak, aisialdiak, nekazaritzak...

Orduan, bada, arlo horiek guztiak lotuta planteatu beharra ikusten dugu, herri baten ikuspuntutik, azpiegitura guztiak oinarri edo kontuan hartuta".

Kirola

"Alde batetik, talde antolatuak daude; talde horiei erantzuna eman behar zaie. Gaur egun badakit arazo batzuk daudela, eta horiek AUKEAren bitartez konpondu beharrekoak direla iruditzen zaigu.

Eta beste alde batetik, kirolari ez-profesionalak ditugu; aire zabalean, edo nork ibiltzeko gero eta aukera gehiago ditugu herrian. Haientzako ere Udalak bultzatutako osasun kontrolak eskaini beharko lirakekeela uste dugu".

"Gurpildun aulkidunak jarriko nituzke hirigintzakoekin"

"Parte-hartzea gauzatzeko kultura sortu beharra dugu"

Bozkatu

aralar

**IREKI
BIDEA**

**BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI
EZKERRARI**

ARRASATEN



BERBA BITAN


ROBERTO BERRIO

 Arrasate.
 48 urte.
 Langilea.

"Herriaren iritzia entzunda lan egingo dugu"

"Euskal ezker federalistaren aukera bakarra ordezkatzeko du Ezker Batua-Berdeak alderdi politikoak Arrasateko Udalean; lanpostuak eta gizarte eskubideak defendatuko ditugu eta ongizate maila handiago izateko gogor egingo dugu lan, betiere herritarren iritzia entzunda".

Roberto Berrio | EB-Berdeetako alkategaia

"Etxebizitza duinaren eskubidea defendatuko dugu"

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Politikan hasi berria den arren, Roberto Berrio gogotsu eta ilusioz beterik dago bizitzako etapa berri honetan. CCOO sindikatuan lanean ibili da eta ezkerreko politikak defendatu ditu. Orain, instituzioetatik lan egin nahi duela azaldu digu Arrasateko langabezia amaitzeko eta sexu berdintasunaren alde gogor lan egingo du.

Hirigintza

"Etxebizitza duinaren eskubidea defendatuko du Ezker Batua-Berdeak alderdiak. Horretarako, alokairuan hartzeko etxebizitza babes-tuen promozioen alde egingo dugu, eta hutsik dauden etxebizitzak alokairu sozialean kaleratzeko egingo dugu lan. Horrez gain, hutsik dauden etxebizitzak zergak handitzea defendatuko dugu. Dentsitate txiki-kiko zonak, Bustinza edo Barrutieta moduko auzoetan, esaterako, etxebizitza

babestuak egiteko gune deklaratzeko Herriko Lurralde Antolamenduko Plan Orokorra aldatzea proposatuko dugu.

Herriko komertzioa defendatzeko, berriz, komertzio-guneen plan sektoriala betetzea eskatuko dugu. Gainera, auzoen mantentze egokiaren alde egingo dugu lan, auzoak konponduz, konkretuki San Josepe eta Gorostiza, betiere kontserbazio, irisgarritasun eta ingurumenaren aldeko irizpideak oinarri hartuta".

Ingurumena

"Ingurumena babesteko konpromisoa hartzen du Ezker Batua-Berdeak alderdiak. Ingurumenari dagokionez, azpimarratu gura dugu Udalatxen kontserbazioa defendatuko dugula eta horren alde egingo dugula lan.

Horretarako, baina, kanteraren, harrobiaren esplotazioaren lizentziaren

kontrol zehatza exijituko eta egingo dugu, eta Udalatxen barruko egoeraren berehalako azterketa ere abiatuko dugu. Modu horretan, Udalatx barruko esplotazioa gelditzea eskatuko dugu, eta Udalatx ingurua biotopo izendatzea izango da gure helburu nagusia".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Gazteekin eta gazteendako egingo dugu lan, euren beharrei, arazoei eta irtenbidea emateko. Euren behar dituzten baliabide kulturalak eta aisialdikoak eskainiz, euren iritzia kontuan izan eta gero egingo dugu lan.

"Politika fiskalaren erreforma eskatuko dugu"

Gainera, uste dugu beharrezkoa dela gazteak kulturara hurbiltzea, bilerak, ikuskizunak eta entseguak egiteko espazioen bitartez eta aisialdi alternatiboa eskaintzeko beharrezkoak diren askotariko esperientziak bultzatuta".

Euskara

"Udal agintaritzaren bitartez defendatu eta garatu behar dugu euskara, euskara ezagutzeko eta zuzen komunikatzeko herritar orok duen eskubidea bermatuta, bai administrazioan, baita gainerako esparruetan".

Gizarte ongizatea

"EAJ, PSOE eta PP alderdiak ongizate sistema prin-

"Udalatx ingurua biotopo izendatu nahi dugu"

tzatzen ari dira egunero, eta horrela jarraitzen badute, apurto egingo dute. Alderdi horiek justuak ez diren erreforma fiskalak ari dira aplikatzen, maila altuko herritarrei mesede eginda eta diru poltsa publikoak hustuta. Eta alderdi horiek, eurak dira diotenak ez dagoela dirurik gizarte zerbitzuendako, osasunarendako, hezkuntzarendako, pentsioendako...

Politika horien aurrean, politika fiskalaren errepa-so sakona defendatuko du Ezker Batua-Berdeak alderdiak, gehien duenak gehiago ordain dezan, modu horretan zerbitzu publikoak bermatzeko, hala nola osasuna, hezkuntza eta pentsioak. Ongizatea ez galtzeko aukera alternatiboak daude eta hori lortzeko lan egingo dugu ezkerretik".

Kirola

"Gertuko kirol ekipamenduen eskaintza handiagoa izatea proposatuko dugu. Hau da, gazte guztiek baldintza beretan kirol instalazioetara joateko aukera ahalbideratzen duen prezioen politika aurrera eramatea da gure asmoa eta apustua. Oinarriko kirola lehiarako kirolaren gaitetik defendatuko dugu Ezker Batua-Berdeak alderditik".

BOZKATU


UDAL HAUTESKUNDEAK 2011

badago arrasate hobetzerik

[zerbait egin daitekeela pentsatzean, egia bihurtzen da] F. Hebbel


**PSE-EE
PSOE**
Eman botoa

**Elkarrekin
bat eginez**
Aritz Arrieta
 Zure Alkatea


BERBA BITAN



**JESUS
ELORTZA**

Bergara.
51 urte.
Langilea.



**"Mintegiaren
permuta
premiakoa da"**

"Herriak premiazko bi proiektu handi ditu: batetik, Errege Mintegiaren permuta; eta, bestetik, zaharren egoitza berria.

Mintegian Udal Liburutegia eta Zientzien Museoa egiteko aukera izango dugu. Zaharren egoitza, berritu beharrean, toki hobera lekualdatuko dugu, eta erabiltzaileen erosotasuna handitu".

Jesus Elortza | Bilduko alkategaia

"Hondakinak modu selektiboan jasotzea guztiz ezinbestekoa da"

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Ubera auzoan jaiotako bergarar horrek asko maite du bere herria. "Bergara herri ona da, baina hobetzeko asmoarekin gatoz", diosku. Proiektu asko ditu buruan eta herria eta herritarrak ondo ezagutzen dituela antzematen da. Hona hemen galdetutako gai ezberdinen gainean hurrengo lau urteetarako dituen proposamen eta ekintzak.

Hirigintza

"Plan Orokorra onartuta dago eta alde zaharreko plana ere bai, hori aurreko Udalak aurrera ateratako proiektua da, eta gu proiektu horren alde gaude. Orain gure txanda da hori garatzeko, herri jasangarria lortu nahi dugu, eta, noski, bergararren premiei erantzungo dien herri orekatua nahi dugu".

Ingurumena

"Udal eraikinek erabiltzen duten energia hobeto kudea-

tu nahi dugu, ahal den heinean kontsumoa jaisteko. Bestalde, zabor eta hiri hondakinak birziklitzeko apustuari gogor ekingo diogu. Gure ustez, hiri hondakinak modu selektiboan batzea ezinbestekoa da. Horrez gainera, AHT eta Gueñes itsasoko goi tentsioko linea, gure proiektuak ez diren arren, herria zeharkatzen duten zatietan ahalik eta kalte txikien sortzeko lan egingo dugu. Bergarako bidegorri sarea handitu egingo dugu, egun herriko sareak gainontzeko herriekin loturarik ez du-eta".

**Kultura, aisialdia,
gazteak**

"Bergararroi asko gustatzen zaigu kultura, bai sortu eta baita kontsumitzea ere; horretarako, gure asmoa antzoki anitza egitea da. Ez da antzerkirako soilik izango, erabilera anitz ugari izango ditu. Horrekin batera, kaleko kultura ere garatuko dugu. Bergarak

berezkoa duen herri giroa ere indartu nahi dugu. Horretarako, kultura ekintzak deszentralizatu egingo ditugu. Kultura ekintzak ez dira erdialdean pilatuko, herriko auzo eta landa auzoetara ere eraman nahi dugu kultura".

Euskara

"Bergara oso herri euskalduna da, baina jende askok euskara dakien arren, jakinduria maila hori ez da askorik igartzen. Herri mailan akats txiki bat daukagu; izan ere, euskara ez dugu behar beste erabiltzen. Errealitate horretatik aldentzeko, Bergarako ahalik eta eragile gehienekin jarriko gara harremanetan, euska-

ra dakien herria izatetik euskaraz bizi den herria izatera pasatzeko. Hori lortuz gero, salto kualitatibo handia izango da Bergararentzat. Gainera, UEMAKo kide gara eta horrek ere asko lagunduko digu".

Gizarte ongizatea

"Oso kontzeptu zabala da hau. Krisiak errealitate berriak sortu ditu, eta, aurrekontu orokorra jaitsi egin den arren, gure erronka nagusia da gizarte ongizateak lortutako eskubideak bermatzea eta garatzen jarraitzea. Horretarako, zenbait plan abiaraziko ditugu; horietako bat dagoeneko onartua dagoen migrazio plana izango da. Plan

horren bitartez, Bergarara iristen diren etorkinei herria integratzeko bidea erraztuko die. Etorkinek era zuzenagoan ezagutuko dituzte gure kultura eta ohiturak; horrekin batera, guk ere euren kultura eta ohitura ezagutuko ditugu. Horrekin guztiarekin batera, Berdintasun Plana ere garatuko dugu. Plan hau onartuta, dago baina guri dagokigu herria aurrera eramatea. Plan horren bitartez, gizonetako eta emakumezkoen arteko ezberdintasunak ezabatzen saiatuko gara. Bestalde, aktibitate soziala indartu egin nahi dugu, eta, horretarako, pisuak alokatzeko orduan zubi-lanak egingo ditugu. Gainera, gure konpetentzia ez den arren, lana sortzeko merkataritza sustatuko dugu eta enpresak ere gure industrialdeetara erakaritzen saiatuko gara".

Kirola

"Herritar talde bat dagoeneko hasi da kirol ekintzei buruzko ikerketa sakona egiten. Horrekin bukatzean, Udal moduan gure gain hartuko dugu txosten hori. Herritarrek egindako informere orokor horrek herritarrek nahi duten kirol eskaintza ezagutzeko aukera zuzena emango digu eta horri eutsiko diogu".

**"Bergarak
kultura
kontsumitu eta
sortzen du"**

**"Denen premiei
erantzuten dien
herria garatu
nahi dugu"**

bildu bergara
eman botoa

www.bildu.info/bergara/
bergara@bildu.info

- 1 Jesus Elortza
- 2 Jaione Isazelaia
- 3 Lauri Askargorta
- 4 Leire Iruin
- 5 Maren Belastegi
- 6 Arianne Kareaga
- 7 Piti Madariaga
- 8 Maider Arregi
- 9 Jabi Bengoa
- 10 Alan Gutierrez
- 11 Amalia Albeniz
- 12 Jabier Garmendia
- 13 Nagore Iñurrategi
- 14 Iñaki Arizmendarreta
- 15 Arantzazu Zabaleta
- 16 Ander Elortza
- 17 Nerea Agirrezabal
- 18 Nora Madariaga
- 19 Elsa Manso
- 20 Iraitz Arizabaleta

BERBA BITAN


AINTZANE OIARBIDE

 Errenteria.
46 urte.

Ikus-entzunezko saioen zuzendari eta ekoizlea.


"Industriari bultzada eman behar zaio"

"Gure programaren funtsa industriaren garapena da. Industriari bultzada handia eman behar zaio eta horretan saiatuko gara ekimen publiko eta pribatuekin. Bestalde, udal kudeaketa zorrotza egingo dugu. Ez zaigu ondo iruditzen krisi garaian kontratazioak %25 igotzea, azken lau urteetan egin duten moduan".

Aintzane Oiarbide | EAJko alkategaia

"Lana da gazteek behar duten lehena eta gure programaren funtsa hortik doa"

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
Hemen EAJren programa-
ren ardatzak.

Hirigintza

"Pozten gara guk aurreko agintaldian egindako proiektuak jendearen gustuko izan direlako; Irala kalea, adibidez. Proiektu hori guk egin genuen, nahiz eta orain exekutatu den, eta horren haritik jarraituko dugu hirigintzako beste proiektu batzuekin.

Bestalde, uste dugu arazo ikaragarria dagoela trafikarekin Ibargarai, Fraiskozuri, Masterreka gunean. Hori guztia bial bakar bihurtu da, ordu puntetan pilaketa handiak izaten dira. Azken lau urteetan ez dugu irtenbiderik izan, areagotu egin da arazoa, eta guk irtenbidea emango diogu.

Horrez gain, oso garrantzitsua da, gure ustez, apar-kaleko publikoa egitea, duela lau urte esan genuen moduan. Orduan nahiko aurreratuta geneukan

proiektua, baina, ikusi dugunez, ez da gauzatu eta ez dira alternatiba berriak mahai gaineratu".

Ingurumena

"Diputazioak garapen iraunkorreko atalaren barruan lan handia egin du. Guk, bide horretan jarraituz, esango nuke Bergaran oso garrantzitsuak direla ingurumenari dagokionez gure nekazariak. Landa auzoetako plangintza berria egin dugu eta adibide moduan jarriko nituzke Debagoieneko Landa Garapena eta Berpiztu programak. Alderdi moduan ordu asko sartu ditugu horretan. Nekazariak dira gure ingurumena zaintzen duten pertsonarik garrantzitsuenak. Hortaz, behar dituzte zenbait azpiegitura, Landa Garapena eta Berpiztu programetan azaltzen dugun moduan, eta horren alde lan egingo dugu.

Energia berriztatzaileen arloan, berriz, bide berri

bat dago industriak zabalteko, eta bide hori jorratuko dugu Udaletik".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kultura ekoizpen maila handiko herria da Bergara. Azpiegitura batzuk jarri ditugu martxan, Aroztegi aretoa esaterako, baina musikarako auditorium baten beharra ikusten dugu, eta bada garaia horri bultzada emateko. Ikusi behar dugu guztion artean nolakoa nahi dugun eta zenbat diru duen Udalak.

Gazteriaren kasuan arazo larriena lan falta da eta hori da gazteek behar duten lehen gauza. Eta gure programaren funtsa hortik doa. Bergarako industria nahi-

ko gainbehera dago, oso kezkatuta gaude egoera horrekin. Jendea langabezian geratzen ari da eta gazteak, ikasketak bukatu eta aukerarik ez badute industrian kolokatzeko, kale gorrian geratuko dira".

Euskara

"Euskara sustatu nahi dugu, bai lan munduan, kalean, eskoletan... Garrantzi berezia jarriko dugu ume eta gaztetxoengan; izan ere, azken urteetan Bergarako euskararen zein euskara batuan giro erdarakoi handia dago. Aipatu nahiko nuke, baita ere, Aranzadik eta Aldundiak sinatu duten hitzarmena. Denborak arazoia eman digu azkenean;

poztarria da Aranzadiren arazoa guk konpondu izana, neurri batean, mapa eskolarrak aurrera egiteko".

Gizarte ongizatea

"Bergarako ahulenen alde egingo dugu beti, neurri bezala. Bestalde, gure nagusien kasuan arazo nahiko larria dugu egoitzarekin, leku falta dagoelako. Duela lau urte Aldundiarekin negoziatu genuen egoitza handitza eta hark lanen %75 ordaintzea. Hori ez da egin eta ez da beste alternatibarik ipini. Bada, ahalegin berezia egingo dugu Bergarako leku handiagoa izan dezan erresidentzian.

Bestalde, aipatu nahiko nuke elikagaien bankua. Horren alde ere egingo dugu, eta eskertzekoa da zenbat jende dabilen boluntario hor lanean. Hori da gure ongizatearen erredua".

Kirola

"Uztartu nahi ditugu kirol elkarten ekimen pribatuak eta Udalaren Kirol Zerbitzua. Kirol egitura berria sortu behar dugu elkarlanean, eta finantzazio modu berriak bultzatu. Bestetik, haurrek bermatuta izan beharko lituzkete Agorrosingo ikastaroak, hainbesteko itxaron-zerrenda barik. Horri buelta emateko plangintza bat proposatuko dugu".

"Ibargaraiko trafiko arazoari irtenbidea emango diogu"
"Bada garaia auditoriumari bultzada emateko"


ONENA EMATEKO GARAIA

BERBA BITAN



JUANJE AMASORRAIN

Bergara.
58 urte.
Dendaria.



"Dendak ixten ari dira; horrek kezkatzen nau"

"Dendaria naizen aldetik, asko kezkatzen nau herrian denda asko ixten ari direla azkenaldian. Komertzio hori berreskuratzea oso garrantzitsua da, eta horretan lan egin behar dugu. Udalak eta Bedelkarrek harremanak sendotu dituzte, eta hori oso garrantzitsua da. Bide horretatik jarraitu beharra daukagu".

Juanje Amasorrain | Aralarko alkategaia

"Errentan emateko etxebizitza soziala bultzatzeko momentua dela uste dut"

ARRITXU BARRUSO | BERGARA
Juanje Amasorrain ezaguna da herrian. Dendaria da; Irala kalean argazkizkidea dauka. 58 urte ditu eta independente moduan aurkeztu da Aralarko zerrendaburu.

Hirigintza

"Azken urteetan, beste herri batzuetan gertatu den moduan, Bergara ere asko hazi da eta garapen handia izan du; batez ere, Ibargarai inguru horretan. Gauza asko oso ondo egin dira, baina, hirigintzari dagokionez, faltan igartzen dut etxebizitza sozial gehiago. Alokairuko etxebizitza soziala bultzatzeko momentua dela uste dut, eta are gehiago orain bizi dugun krisi ekonomikoarekin. Horrek izan behar luke lehentasuna momentu honetan".

Ingurumena

"Bergaran oso berdegune politak ditugu, baina asko eta asko ez dira behar beza-

la erabiltzen, eta horrek pena ematen dit. Arrizuriagako parkea, esaterako, ahaztu samar egon da; txukundu eta herritarrendako zabaldu beharko litzatekeela uste dut. Santa Ana parkea ere zoragarria da, eta baita Errekaldekoa ere. Bestalde, uste dut Artzamendi goian dagoen parkea edo berdegunea ere txukundu egin beharko litzatekeela".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Gazteriak autonomia izan behar duela uste dut. Gazteek euren ideiak dituzte eta euren proiektuak aurrera eraman behar dituzte. Ingurua eta ingurukoak errespetatzen dituzten neurrian, libre izan behar dute euren ideiak garatzeko. Udalak egin behar duena da, ahal duen neurrian, gazteei euren proiektuak garatzen lagundu. Aisialdiari dagokionez, berriz, uste dut Jardunek oso lan txukuna egiten dela eta lagundu egin behar zaiola bide horretatik jarrai-

dezan. Gauza bera diot San Joxepeko erretiratuen inguruan. Ekintza pila bat antolatzen dituzte eta oso garrantzitsua da egiten duten lana".

Euskara

"Bergara bezalako herri euskaldun baten euskararen aldeko aldarrikapenak egin behar izatea triste samarra iruditzen zait, baina egin beharrekoa da. Euskara bultzatu egin behar da; bultzatu eta erabili: etxean, lagunekin, lantokian, kalean... Euskara gorroto dutenak euskarara gerturaztea oso zaila izango da, baina erakutsi behar zaie euskara ez dela kontra egiteko arma bat, euskara hiz-

kuntza ederra dela erakutsi behar zaie, harreman politikak eta sendoak sortzeko balio duena. Euskara maitatu eta erabili egin behar dugu eguneroko-egunero ahal dugun guztietan".

Gizarte ongizatea

"Udalak gizarte zerbitzuen programa sendoa bultzatu behar du; eta ez bakarrik baztertuta dauden pertsonendako, baita baztertzeko arriskuan dauden pertsonendako ere. Ez dugu nahi gure herritarren artean ezberdintasun nabarmenik egotea: batzuek dena eta gehiago izatea eta beste batzuek ezer ez. Guztiek minimo batzuk izan behar dituzte gizarteratu ahal izateko".

teko eta gure artean gustura egoteko. Etorkinei ere lagundu behar diegu, noski, gizarteratzen lagundu; euren kultura daukate eta hori onartu behar dugu, baina, era berean, kultura integratzailea sortu behar dugu. Amaitzeko, eta zaharren egoitzari dagokionez, Mizpirualde ez da toki aproposa; mugikortasun arazo handiak dituzte. Badakit azken Udal Gobernuaz aztertzen ibili dela non kokatu zaharren egoitza, eta Poligono ingurua ere aipatu izan da. Uste dut Poligonoa oso beteta dagoela, eta beste toki batera mugituko nuke".

Kirola

"Kirola oso garrantzitsua da eta argi dagoena da jendeak gero eta kirol gehiago egiten duela: bizikleta, mendia, futbola eta abar. Nik uste dut egin behar dena dela gaur egun dauden kirol jarduerak, ekintzak eta instalazioak bultzatzea. Jendeari zabaldu behar zaion mezua da kirola oso garrantzitsua eta osasungarria dela. Kirolzaleek kirola eta kirol-jarduerak sustatu behar dituzte, eta Udalak horretan lagundu. Bestetik, aipatuko nuke Labegarietako kiroldegia apur bat utzita dagoela eta txukundu egin beharko litzatekeela".

"Euskara erabili egin behar dugu egunero, ahal den guztietan"

"Zaharren egoitza tokiz aldatu beharra dago"

Bozkatu

aralar

IREKI BIDEA
BERGARAN

**BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI
EZKERRARI**





BERBA BITAN

**MARI CARMEN BARRENETXEA**

Donostia

53 urte.

Etxekoandre eta ikaslea.

**"Maiatzaren 22an, jendeak bota dezala"**

"Alderdi sozialistatik eskatzen dut jendea ez dadila hauteskunde egunean etxean geratu, joan dadila botoa ematera; honekin gure ordezkariak aukeratzeko eskubidea erabiltzen dugu.

Nik alderdi sozialistaren aldeko botoa eskatzen dut, baina jendea mobilizatu dadila, aukera dezala eta erabaki".

Mari Carmen Barrenetxea | PSE-EEko alkategaia**"Errege Seminarioko patioan garajeak eraikitzea sustatu eta babestuko dugu"**

TXOMIN MADINA | BERGARA

Donostian jaiotakoa izan arren, Bergaran bizi da azken 30 urte hauetan. Agintaldi honetan alderdi sozialistak Udalean izan dituen bi zinegotzietako bat izan da.

Hirigintza

"Hirigintza arloan, orain arte burutu diren baina gelditu dauden ekintzak babesten eta sustatzen jarraituko dugu; esaterako, Errege Seminarioan garajeak eraikitzea. UNEDen permuta ere burutuko dugu. Horretaz gain, Barrenkale kalea oinezkoendako egingo dugu. Gazte eta langabeendako errentan hartzeko babes ofizialeko etxeak eraikitzearen aldekoak ere bagara".

Ingurumena

"Gerriko berdea babestu dugu beti, horren alde gaudete eta Udalak ingurumenaren alde hartutako neurrien alde egingo dugu beti. Horretaz gainera, parke eta

lorategi publikoen zaharberritzearen alde gaudete; esaterako, Arrizuriagakoa eta Errekaldekoa. Ingurumenaz berbetan jarraituta, bosgarren edukiontzia alde egiten dugu birziklapenerako: konpostajea egiteko modu arrazoizkoa da, garbiagoa eta ekonomikoagoa, eta horrela energia berriztagarrien alde egiten dugu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kultura gure gizartearen oinarria da, pertsona moduan aberasten gaitu, hazkundera da. Herrian gertaera oso garrantzitsuak ditugu: zinema, antzerkia, erakusketak... Horiek eskatzen dute ondo prestatutako lokala, espazioa izango duena. Horregatik, auditoriuma eraikitzearen aldeko apustua egiten dugu, horrek eroango gaitu eta izen handiko gertaera hauei merezitako garrantzia ematera. Gazteriaren arloan, era-

kundeetatik gertu egotearen aldeko apustua egiten dugu, euren ahotsa entzun dadila. Enplegua sortzeko politiken aldeko apustua egiten dugu, gazteak gara daitezten, pertsona moduan hazi eta emantzipatu".

Euskara

"Gure herrian lortu da euskara hitz egiten duen jendearen kopuruan hazkundera garrantzitsua egotea:

"Hirigintzan, Barrenkale kalea oinezkoendako egingo dugu"

"Euskararen pauso erraldoiak eman arren, beti dago egitekoa"

bizitzako esparru ezberdinetan euskararen erabilera eta haren normalizazioak pauso erraldoiak eman ditu, baina beti dago gehiago egiteko. Euskara denon ondarea da, bakoitzak ahal duen neurrian, denok erabili behar duguna. Alderdi sozialistak, guk, horren alde lanean jarraituko dugu hau horrela izan dadin: denon ondarea dela uste dugu. Udalarekin politikak

"Auditoriuma eraikitzearen aldeko apustua egiten dugu"

"Gazteak erakundeetatik gertu egotea gura genuke"

sinatuko ditugu hori horrela izateko; bizitzako eta herriko esparru guztietan erabiltzeko".

Gizarte ongizatea

"Gizarte kontuetan gauza asko dago egiteko, eta hori, beste gauza askoren artean, Udalak dituen baliabideen arabera da. Beste gauza batzuen artean, doako osasun zerbitzu eta hezkuntza herritar guztientzat ere badakar gizarte ongizateak. Bestalde, baita baliabiderik ez dutenak, beharra duten pertsonak, Udalera joan ahal izatea, eta euren dagoen ondatsunak euren esku jaritzea".

Kirola

"Alderdi sozialistan uste dugu gutxienez kirolen alde egin behar dela; esaterako, gimnasia erritmikoaren alde. Beste kirol batzuk sarriago praktikatzeko dira. Kirola eskoletatik sustatu gura dugu, baita gazteriaren artean ere; izan ere. Kirola osasuna da, poztasuna, dinamismoa, bizi kalitatea, eta jendea elkarrengana hurbiltzea dakar. Gura dugu kirola eskola barruko eta kanpokoa izatea; ikasgarria lantzea, eta baita hortik kanpo ere. Kirolak indarra ematen digu, baita osasun fisikoa ere".

Antonia Galiot | Ezker Batua-Berdeak alderdiko alkategaia**"Herritarren parte-hartzea bultzatzeko herri kontseiluak sortuko ditugu"**

ASIER ALKORTA | BERGARA

Ezker Batua-Berdean zerrendaburua da Antonia Galiot. Herriari begira egin beharreko lan garrantzitsuenak herritarren parte-hartzea bultzatzea, politika ekonomiko berria martxan jartzeko, gizarte zerbitzuak gehitzea eta euskararen aldeko ekimenak sustatzea direla dio, besteak beste.

Hirigintza

"Gizartera begirako hirigintza aurrerakoa egin behar dela uste dugu. Hirigintza mota honek pertsonak elkartzeko eta erlazionatzeko balio behar izan du. Administrazio publikoak ere zoruaren inguruko erabakiak hartu behar ditu, interes publikoari garrantzia emanez, eta ez interes pribatuei. Eta herritarren parte-hartzea garrantzitsua dela uste dugunez, parte-hartze hori sustatuko dugu, araudia eginda. Alokairuko etxebizitza sozialak bultzatuz, herrian hutsik dau-

den etxeak zerrendatu eta gazteei eskainiko dizkiegu. Mugikortasunaren alorrean, urbano zerbitzua martxan jartzea proposatzen dugu. Izan ere, autobus txiki batekin herriko edozein tokitara hel gaitzake eta horrek aparkatzeko daukagun arazo konponduko du".

Ingurumena

"Politika hau oso garrantzitsua da. Proposamen moduan, energia berriztagarriak erabiltzen dituztenei laguntza publikoa ematea, isuri eta hondakin toxikoen kontrol zehatza egitea eta kutsadura akustikoaren aurkako ekintzak bultzatzea aurreikusten dugu. Zirkulazioa txikitu

nahi dugu, garraio publikoa bultzatuta. Bertoko landare espezieen kontserbaziorako berreskurapenerako programa sustatuko dugu. Orokorrean, ingurumenaren alorrean egiten diren ekintza positiboak sustatuko ditugu. Abiadura Handiko Trena kapitalaren gutizia dela uste dugu, herriak ez du eta hortik probetxurik ateratzen".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Inposatzen diguten ohitura kontsumisten kontra eginez, gizarteari begirako kultura laikoa bultzatuko dugu. Gure sustraien identitatea bilatuko dugu. Kultura garapena gauzatzeko

bi bide jarraituko ditugu: kultura prezio merkeko ikuskizun moduan erakutsi eta Arte Eskola bultzatuta eta kultura elkarteak lagunduta. Gazteek euren ekintzak egin ahal izateko guneak behar dituzte, eta, horregatik, irrati librea, gaztetxea eta mota horretako ekintzak bultzatuko ditugu. Doako wi-fi guneen esparrua zabaldu nahi dugu, egun dagoen eskaintza handituta. Gazteek Udalean euren lekua eduki behar dutela uste dugu, eta, ondorioz, politika zehatzak garatzeko herri kontseiluak sortuko ditugu. Gazteria naturalki sortzailea da, baina gazteria sortzaile ez bada, gizartearen zerbait oker doa".

Euskara

"Euskara gure hizkuntza denez, euskararen alde egingo diren ekimen guztien alde egiteko konpromisoa hartzen dugu. Agente guztiekin lan egingo dugu eta

BERBA BITAN

**ANTONIA GALIOT**

Bergara.

52 urte.

Administrataria.

**"Politika ekonomikoak aldatuko dugu"**

"Ezkerreko aukera bakarra gara eta autodeterminazio eskubidea defendatzen dugu.

Krisi ekonomikoari aurre egiteko lan egingo dugu, politika ekonomikoak aldatzeko plan berriekin. Behin eta berriz diogu krisialditik ateratzea posible dela. Zatoz guregana demokrazian parte hartzera".

horiei gure babesa emango diegu. Udal euskaltegiei babesa emango diegu. Eta gure seme-alabak eskola euskaldun baten hezteko guraso elkarteekin lan egingo dugu".

Gizarte ongizatea

"Alor honetan erreforma fiskala eskatzen dugu. Gehiago ordain dezala gehiago duenak. Horrela, osasuna, hezkuntza eta pentsioak bezalako zerbitzu publikoak bermatuko dira. Hala eta guztiz ere, gizarte zerbitzuak gehitzea proposatuko dugu. Bergaran 804 langabe daude orain eta horiekin komisio bat sortu behar da, enpresaburuekin elkarlanean jarduteko. Udal enpresak sortu eta horien kudeaketa publikoa bultzatzea beste bide bat izango da. Genero berdintasunerako plan integrala bultzatuko dugu, biktimak babesteko".

Kirola

"Gastu handia egin eta gero, ez dugu lortu kirolgunea hobetzerik, eta hori salatu egin behar dugu. Kirol elkarte guztien ekimenak babesten baditugu ere, gazteei euren lekua eskainiko diegu eta haiengana heltzen saiatuko gara. Horretarako, eskola kirolari emango diogu garrantzia".

"Kulturaren gure sustraien identitatea bilatuko dugu"

"Gazteria sortzailea ez bada gizartearen oker doa"



BERBA BITAN

**JOSU GARITAONANDIA**

Bergara.

43 urte.

Metagrako langilea.

**"Politikarien erretiro osoa gaitzesten dugu"**

"Berdeok herriarentzat lan egin nahi dugu. Ingurumena, gazteria eta kirola zainduta eta, nola ez, ekonomia jasangarria bultzatuta.

Egun, politikariek zazpi urtez lan egin ostean erretiro osoa jasotzeko aukera dute, eta hori ez da bidezkoa, gu eskubide horren kontra gaude eta egongo gara".

Josu Garitaonandia | Bergarako Berdeak-eko alkategaia**"Gazteek pairatzen duten langabeziak bereziki kezkatzen gaituen gai bat da"**

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Herriar bakoitzari hausnarketa egiteko eskatzen dio Garitaonandiak. "Alderdi guztiek indarkeria gaitzesten dutenez, orain beste pauso bat jotzera deitzen ditugu". Haren ustez, politikak eta errealitateak hurbilago egon behar dute. Politikari guztiak herriaren mesedetarako daude, eta hori da Berdeen helburu nagusia, Bergara hobe eta jasangarriena lortzeko helburuarekin.

Hirigintza

"Zirkulazioa hobetzeko, Labegarietan eta gasolindegia parean aparkaleku gehiago jartzea proposatzen dugu. Aparkalekuok herri-gunearekin urbano zerbitzu batekin lotuko genituzke. Gure asmoa argia da: herri barruko zirkulazioa desbi-deratzea".

Ingurumena

"Puntu hau da gure alderdiaren ardatz nagusia. Adituen hitzetan, 50 urte barru

berotegi efektuaren ondorioek ez dute atzerapausorik izango; horregatik, martxan jartzeko garaia iritsi da. Ibaiak garrantzi handia dauka herriarentzat eta araztegi planek ez dituzte herri osoko urak tratatzen. Guk errealitate hori aldatu egin nahi dugu. Ibaiaz gainera, gure basoek ere zaintza berezia eskatzen dute. Horretarako, Debabehe eta Debagaraiak egindako planari helduko diogu. Lursail publikoetatik helduko genioke plan honi, eta apurka jabego pribatua gehitzeko hainbat plan jarriko ditugu martxan. Hori guztia gutxi balitz, berde garenez, pape-raren erabilera ere txikitu egingo dugu. Buzoneoa erabili beharrean, kartelak ipiniko ditugu eta epea amaitu ostean kendu egingo ditugu kartelok".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Gazteen alorrean langabezia da herri honek duen

arazo nagusia. Langabezia txikitzearen alde egingo dugu eta ahalegin guztiak egingo ditugu pertsona bat urte bat baino gehiago langabezia ez egoteko. Hori lortzen ez badugu, gure gestioa frakasotzat joko genuke eta hurrengo hauteskundeetan gure alderdiko zerrendaburu langabezia epe luzez egon den pertsona bat jarriko dugu. Herri kontsulta baten bitartez aukeratuko genuke Berdeen hurrengo alkategaia".

Euskara

"Herriaren elkarte asko ditugu eta urte hauetan lan polita egin dute. Hala ere, oraindik euskaldun berri

asko dago hemen. Gure ustez, herri mailan, euskaldun berriek euskara erabil dezaten giroa ez da aproposena, eta euskaldun berri hauek herriaren euskara erabil dezaten ekimen berriak sortzea ezinbestekoa da. Guk euskaldun berri bat eta euskaldun zahar bat elkartzea proposatzen dugu; horrela, euskaldun berriaren euskara indartzeaz gainera, herriaren euskara erabiltzera ohituko genuke".

Gizarte ongizatea

"Lehenik eta behin, herriaren behar eta zenbat dauden jakitea ezinbestekoa dela uste dugu. Gure ustez, herriaren kekek nora

iristen diren eta nola kudeatzen diren jakitea ere ondo legoke. Udalak, osakidetzan gertatzen den moduan, herritarren eskakizunak zein puntutan dauden jakinaraztea behar-beharrezkoa da. Nik udaletxean hainbat kexa jarri izan ditut, eta, arazo horiek ez konpontzeaz gainera, ez dut erantzunik jaso, eta hori ez da bidezkoa. Ziur nago jende askok ere kexa bera duela. Herri-tarrek helarazitako kexei jarraipena egitea beharrezkoa dela uste dugu".

Kirola

"Bergarak dituen kirol azpiegiturak zaindu eta, kasu batzuetan, berri-egin behar dira. Bergarako Berdeen ustez, kirola mugimendua da; horregatik, ziburuetatik hasi eta kiroldegietaraino, guztiak konpontzea beharrezkoa dela uste dugu. Horretarako, baina, aurrekontua ezingo da kirol partidatik atera. Kirol arloak duen dirua bandalismoak egindako kalteak ordaintzeko erabili beharrean, beste toki batzuetatik atera beharko litzatekeela uste dugu. Gauzak horrela, kirol azpiegiturak indartu eta berritzeaz gainera, aktibitate ugari martxan jartzeko aukera izango genuke".

"Ingurumena zaintzeko planak ez dira atzeratu"**"Azpiegiturak berritzeaz gain, kirol ekintzak sortuko ditugu"****BOZKATU**

UDAL HAUTESKUNDEAK 2011

badago bergara hobetzerik

[zerbait egin daitekeela pentsatzean, egia bihurtzen da] F. Hebbel

**ALKATEGAIEI ELKARRIZKETAK****GOIENA.NET**

ALKATEGAIEN ELKARRIZKETAK ETA HERRIZ HERRIKO BIDEO GUZTIAK, HEMEN:

WWW.GOIENA.NET/GAIA/HAUTESKUNDEAK

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

BERBA BITAN


LOURDES IDOIAGA

Oñati.
60 urte.
Merkataritza-peritua.


"Programa berritzailea daukagu"

"Oñatiarren bizi kalitatea hobetzea da helburu nagusia, eta, horretarako, esperientziadun zerrenda aurkezten dugu. Etengabeko hobekuntzarekin konprometitzen gara, eta programa berritzailea daukagu esku artean. Giza balioak indartuko ditugu. Oñati humanoagoa egingo dugu".

Lourdes Idoiaga | EAJko alkategaia

"Oñati jasangarriago eta atsegina baten alde lanean jarraituko dugu"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiarra jaiotzez, 60 urte ditu eta azken bostetan Oñatiko alkatea izan da. Aurretik Lagun Aron egin zuen lan kooperatibista moduan. Merkataritza-peritu ikasketak egin zituen. Bi seme-alaba ditu, euren bikotekideekin, eta biloba txikia: Ekain. Ezkonduta dago. EAJren programak bost ardatz ditu, eta helburu guztiak lortzeko "lana, lana eta lana" agintzen du. "Zintzotasunez, berdintasunez eta gardentasunez egingo dugu lan", esan digu.

Hirigintza

"Orain arte egin dugun moduan, herri atsegina egin jarraituko dugu: espaloiak zabaldu eta bidegorria txertatzen jarraituko dugu. Bestalde, San Lorentzo eta Errekaldeko eraberritzeak bukatuko ditugu. Gainera, oraindik ez dugu erabaki zeintzuk, baina haurrentako bi jolas-gune estali egingo ditugu.

Gure apustua da herri jasangarriago baten alde egitea. Bide horretatik jarraituko dugu".

Ingurumena

"Bosgarren edukiontzia alde egin dugu, eta lanean jarraituko dugu. Gainera, energia jasangarriak gartzeko ekintza plana abiaraziko dugu. Gure arduretako bat izango da landa-uzoen hobekuntza lan egitea, eta nekazaritza eta abeltzaintza sektoreetan enplegu sorrera sustatzeagatik hobariak emango ditugu. Bestalde, herri inguruetako eremuetan oinezkoendako ibilbideak sendotuko ditugu: gure asmoa da gerriko berdea sortzea. Gainera, herrian ditugun ibilbide naturalak hobetuko ditugu: Zañartun argiteria aldatu genuen, eta orain, Olapoto inguruan dagoen Kilometroak eguneko ibilbidea txukunduko dugu. Bestalde, Alkateen Ituna sinatzeagatik bete

beharreko konpromisoak beteko ditugu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Herriko kultura taldeek eta eragileek sortzen dituzten ekimenak babestu egingo ditugu: antzerkigintza, kultura ondarearen gainean, literaturan... Musika egiten diharduten taldeendako lokal berriak prestatuko ditugu. Bestalde, ETEO egondako eraikinari zer erabilera eman diezaiogun zehazteko ideia lehiaketa egingo dugu, eta natura-turismoa bultzatuko dugu. Bestalde, aisialdirako ortuak martxan ipiniko ditugu: norberaren erabilera edo produktuen salmentarako".

"Gerriko berdea sortuko dugu herria inguratzen"

Euskara

"Hainbat eragileren laguntzarekin lortu dugu herriko hizkuntza normalizazioa %80-85 inguru izatea. Herri euskalduna gara eta izaera hori mantendu behar dugu, kosta ahala kosta. Gainera, etorkinen eta batez ere haur-etorkinen bertakotze programa indartu egingo dugu. Oñatira datozenak gizartean integratzea ezinbestekoa da".

Gizarte ongizatea

"Pertsonak dira EAJren programako ardatz nagusietako bat, batez ere pobrezian daudenak. Gizartearen bizitza iraupena asko luzatu da gurean, eta, hori kontuan

"Atletismo pista egokituko dugu Urrutxun; zor diegu"

hartuta, ekintza bereziak antolatuko ditugu nagusien zahartzaro osasuntsuak aurrera eramateko: esperientzia eskola martxan jartzeko asmoa daukagu, besteak beste. Bestalde, larrialdietarako etxebizitzak martxan ipiniko ditugu. San Martingo babes ofizialeko azken blokean egokituko ditugu sei etxebizitza. Era berean, Enplegu Plana eta emakumeen inguruko programak sustatzen jarraituko dugu".

Kirola

"Kirola oso garrantzitsua da Oñatin. Kirolari asko daude: batzuk federatuak eta besteak popularrak. Urrutxuko kirolgunea arantza da guretako, ezin izan dugulako osotasunean egin. Baina zorra daukagu atletismo sailekoekin. Entrenatzeraz Zumarragara joaten dira. Hori horrela, Urrutxun atletismo pista egingo dugu. Bestalde, oñatiar askok jokatzen dute tenisean, baina eguraldiarengatik oso baldintzatuta daude. Hori horrela, tenis pistetako bat estali egingo dugu. Aloña Mendi kirol elkarte eta Antxintxiketan oso inportanteak dira guretako, eta horiek ere babestu egingo ditugu hurrengo agintaldian".



ONENA EMATEKO GARAIA

BERBA BITAN



MIKEL BIAIN

Oñati.
33 urte.
Langilea.



"Oñatiarrekin batera eratu nahi dugu Oñati"

"Guk oñatiarrei epe luzerako herri proiektu konprometitua eta koherentea eskaintzen diegu. Azken batean, Oñati beste era baten eraikitze apustua egiten dugu, ikuspegi aurrerakoi batetik eta herri partaidetza oinarri izango duena. Gu ez gatoz orain artekoa desegitera, gure jarrera eraikitzailea da".

Mikel Biain | Bilduko alkategaia

"Herritarren parte-hartzea eta euren ekimenak dira garrantzitsuak guretzat"

IRATI GOITIA | OÑATI

Mikel Biainek politikan ez du militantzia aktiborik izan, baina ilusioz beteta dator. Oñatiarrekin batera herri bizia eratu nahi du.

Hirigintza

"Etxebizitza alorrean, etxebizitza publikoaren aldeko apustua egiten dugu eta garrantzitsua deritzogu horretarako lur erreserba bermatzeari. Bestalde, egun dauden etxe hutsen erabilera bultzatu behar da. Oñatiarrei, gazte zein helduei, egokitutako etxe tipologia bultzatu behar da. Hor aipatu behar da ETEO-ko eraikin zaharrerako dugun proiektua: alokairu apartamentu txikiak egitea.

Guretzat beste aspektu garrantzitsu bat bidegorri sarea bukatzea da. Oinezkoentzako ibilbideak konpontzeko beharra ere badago. Eta azkenik, plazako pilotalekuan aisialdigunea sortzeko aukera ikusten dugu,

frontoia estalita. Horrek ekarriko luke Santa Marinako merkatua behera jaitsi eta bi merkatuak bateratzea".

Ingurumena

"Ingurumena nekazaritza eta hirigintzarekin harreman estuan egon beharreko gaia da. Basogintzan, gure apustua da: bertako lur jabe eta baserritarrek espezie autoktonoen alde egitea.

Zabor kudeaketaren ereduari dagokionez, atez atekoaren aldeko hautua egiten dugu. Frogatu da eredu hori erabilita %85eko birziklapen tasak lortzen direla. Beraz, erraustegiaren makro-proiektua ez dago, inondik inora, justifikatuta. Erraustegiak zorpetze maila ikaragarria dakar gipuzkoar guztiontzat eta ingurumenarentzat izugarriko kaltea".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kultura ikusten dugu herri-
tik irteten den espresio

bezala. Oñatiko koadrila, elkarte edo auzoetatik sortzen diren ekimenak dira guretzako garrantzitsuak. Horrela, uste dugu herriko kultura programazioak hor oinarritu beharko lukeela nagusiki. Baina gure proposamen konkretuak ere baditugu: txokolataren interpretaziogunea egitea, gaztelekua kafe antzoki publiko bilakatzea eta ETEO kultura eta arte sorkuntzarako gun bilakatzea".

Euskara

"Euskara gure herriko identitate elementu nagusi izaki, bereziki zaindu beharreko arloa da. Udalak Udala Euskaltegiaren aldeko apustua egin behar duela uste

dugu. Bestalde, UEMAN sartzeko hautua egiten dugu. Etorkinak euskalduntzeko plangintza baten beharra ere ikusten dugu; horrek Udala Euskaltegiarekin batera joan behar du".

Gizarte ongizatea

"Zaharrei dagokionez, Bizitza Plan Independentearen aldeko apustua egiten dugu. Jende adinduarentzat kalitatearen ikuspegitik eredu egokiena da eta ikuspegi ekonomikotik jasangarriena. Egia da, baina, gaur egungo ereduarekin batera uztartu behar dela. Bestalde, aipatu behar da edadeko jendea zaintzen lan egiten dute pertsonen for-

mazio aldetik behar batzuk dituztela, eta, alde horretatik, Udalak badu lana egiteko. Guk argi dugu etxeko laguntza zerbitzuan herriko jendearen aldeko apustua egin behar dela, eta hor lanpostuak sortzeko aukera ikusten dugu. Heinean, kalitatearen aldeko apustua egiten dugu.

Etorkinei dagokionez, udal mailan harrera protokolo bat egin beharra dago. Atzerritarrek Oñati-
ra heltzen direnean jakin dezaten zer zerbitzu eta baliabide dituzten euren eskura.

Emakumea, berriz, aparteko arlo bezala ikusten dugu. Diagnostiko bat egin eta hori oinarri hartuta lau urteko plangintza egiteko asmoa dugu".

Kirola

"Herriko eragile ezberdinekin elkarlanean programa orokorra sortu beharra dago. Guk uste dugu kirola ikuspegi konpetitibotik ez ezik, balioen ikuspegitik ere landu beharreko gaia dela. Ditugun proposamen zehatzak honakoak dira: Azkoagaingo aparkaleku arazoa konpontzea, plazako pilotalekua estaltzea eta San Lorentzoko kirol instalazioak berritzeko proiektua egitea".

"Gure jarrera eraikitzailea da, proposamen zehatzekin"

"ETEO bilakatu nahi dugu arte eta kultura sortzeko gun"



BERBA BITAN



MIREN ARREGI

Oñati.
31 urte.
Administrari komertziala.



"Lan egiteko konpromisoa eta ilusioa daukagu"

"Bost balio zabaldu gura ditugu: ezkerdintza, bakegintza, herrigintza, politikagintza eta euskalgintza. Gure proiektua ezkerdintza, abertzalea eta euskalduna da. Oñati eraikiko dugu abertzaletasunetik, betiere aniztasuna aintzat hartuta. Lan egiteko konpromisoa eta ilusioa daukagu".

Miren Arregi | Aralarko alkategaia

"Bizi izateko herriak gura ditugu, eta Oñati horietako bat izango da"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Miren Arregi Oñati Ezkerretik koalizioako kide izan da azken agintaldian. Maiztaren 22ko udal hauteskundeetara zerrenda propioa aurkeztuko du Aralarrek, eta hura izango da zerrendaburu. Giza Balia-bideetan lizentziaduna, 31 urte ditu.

Hirigintza

"Herri orekatu eta bizigarri baten alde egiten dugu. Herritarren parte-hartzearekin eraikitako herria gura dugu. Bizi ahal izateko herriak gura ditugu. Iraunkortasuna txertatu nahi dugu hirigintza arloko garapenean, hori delako herria bizigarriagoa egiten duena. Gure lehentasunak dira: oinezkoendako guneak bermatzea eta etxebizitza berrietan alokairuko etxebizitza sozialak bultzatzea. Merkataritza arloan oso inportantea da merkataritxikien alde egitea. Gainera, bizikletak aparkatzeko

gune gehiago egingo ditugu, eta garraio publikoaren alde egingo dugu".

Ingurumena

"Oñati osasuntsuagoa gura dugu, bizi kalitate hobea duena eta ingurumena errespetatzen duena. Gure konpromisoak dira: ingurumen arloko heziketa eta sentibilizazio kanpainak egitea, landa-garapena eta ortu ekologikoak bultzatzea, eta uraren kultura bultzatzea, kontsumoa murriztuta. Bestalde, bereziki zainduko ditugu herriko lorategiak".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kultura bizipen bezala ulertzen dugu. Hori horrela, herriko talde eta eragileak dira gure motorra, eurak dira bizi ematen diotenak: merkataria, ikastetxeak, elkarteak... Herriak dituen beharrik zehazteko haiekin guztiarekin egingo dugu berba. Bestalde, auzoetako jaiak babes-

tu eta diruz lagunduko ditugu, oso inportanteak dira-eta. Umeen aisialdirako ekintza gehiago antolatuko ditugu, ez bakarrik Gabonetan eta udako oporretan. Bestalde, gazteak oso inportanteak dira eta babestu egingo ditugu".

Euskara

"Euskara eta euskararen normalizazioa herriko esparru guztietara zabalduko dugu. Dena den, euskararen aldeko lanean guztion ekarpenak ezinbestekoak dira. Askotan, euskara kultura erreferente moduan ikusten da, eta bigarren mailan geratzen da. Guk euskara maila horretatik kendu eta komunikaziorako erremi-

ta gisa erabiliko dugu. Oñatiar gehiengo euskalduna da. Hori horrela, UEMAn sartzeko apustua egingo dugu. Euskara ez da galtzen ez dakienak ikasten ez duelako, dakienak egiten ez duelako baizik. Hori horrela, bizi gaitzean euskaraz eta egin dezagun euskaraz!".

Gizarte ongizatea

"Gizarte ongizatean guretzako garrantzitsua da arlo honetako gabeziak zeintzuk diren antzeman, eta horiei irtenbidea ematen ahalegintzea. Hori bai, lehentasuna emango diegu umeei, gazteei eta hirugarren adinekoei. Aralarko kideek herritar guztien alde

lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, inolako bazterketa barik, dela jatorria, hizkuntza, arraza, adina edo sexu joera. Herria gartzeko inportanteak diren alorretan herritarren parte-hartzea bultzatzeko ahalegina egingo dugu. Oñati solidarioa eta demokratikoa izatea lortu behar dugu.

Arlo honetan kontuan hartuko ditugu lehen mailako gizarte arreta bermatzea eta etorkinen parte-hartzea bultzatzea. Azken horiei euskara ikastaroak emango dizkiegu, euskalduntze aldera lehen pausoak eman ditzaten. Bestalde, egun, bazterketak eta pobrezia ezaugarri zehatzak ditu: emakumearekin eta iraupen luzeko langabeziarekin zerkusua duten ezaugarriak".

Kirola

"Bizi kalitate oneko gizarte aurreratu eta ezaugarrietako bat da kirola egitea. Hori horrela, kirola egiteko azpiegiturak babestuko ditugu. Ezinbestekoa da igerileku berria egitea. Egundakaguna txiki geratu da. Kirol arloan izango ditugu kontuan: eskola kirola sustatu, kirolaren balioak indartu eta kirol elkarteak sendotzea. Euskal kirola indartzeko apustua egingo dugu".

"Iraunkortasuna txertatuko dugu hirigintza arloko garapenean"

"UEMAn sartzeko apustua egingo dugu"

Bozkatu
aralar

IREKI BIDEA
OÑATIN
BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI
EZKERRARI



BERBA BITAN



AMAIA INTZA

Oñati.
37 urte.
Irakaslea.



hamaikabat

"Gizarte zibilari eman behar zaio protagonismoa"

"Gobernantzaren, politika publikoen eredu berriaren indar egin nahi dugu, ze horrekin protagonismo handiagoa emango baitzaio gizarte zibilari. Bestetik, kontuan izanda bizi dugun krisi ekonomikoa, inportantea da Hamaikabateko zerrendan goazen pertsonok dugun esperientzia".

Amaia Intza | Hamaikabateko alkategaia

"Langabeek bizitza-erritmo normala berreskuratzeko ekimenak behar dira"

JULEN IRIONDO | OÑATI

Gizarte ongizatea jotzen du Amaia Intzak Hamaikabaten eta alderdiaren proposamenen bizkarrezur; kirolari dagokionez, San Lorentzoko gunea egokitzea proposatzen du; eta kultura arloan egungo herri ekimenen sarea mantentzea, baina, era berean, beste kultura espresio batzuetara irekitzea.

Hirigintza

"Aurreko agintaldian planteatutako proiektu gehienak burututa daude. Beraz, oraingo asmoa da egitea duela lau urteko irisgarritasun planaren zabaltzea: kasu honetan, osasun etxearen ingurua, San Juan kalea eta unibertsitate inguru hori irisgarria bihurtzea. Bestetik, nahi dugu auzogune berriak bizigune egokiak izatea; hor dugu San Martin, eta inguruko zuhaiztia aisiarrentzat ere aberasgarri izateko. Aisiarrentzat ere aberasgarri izateko, haurtxo txikiak jarraitu behar da, baita energia mota berrien aukera aztertuz ere; energia termikoarena, adibidez. Bestalde, eraikinetan energia kontsumoaren aurrepenaren aldeko apustua egiteko prest gaude, eta, jakina den moduan, bosgarren edukiontzia aldeko apustua egiten dugu".

blanca bezalako auzogune degradatuxegoak, eta horietan erreparatzea eta horiek eraberritzea ideia egokia dela pentsatzen dugu Hamaikabaten".

Ingurumena

"Oraintxe hasi dira Arantzazu eta Urtiagain arteko saneamendu obrak. Inguaruari mesede handia egingo dioten lanak dira. Aurreko agintaldian ere egin zen lan horretan; hartu ziren erabakiak ingurumena zaintzeko eta apustua egin da, adibidez, energia berriztagarrien aldetik: eguzki plakak jarri dira azokan eta kiroldegian, eta hortik jarraitu behar da, baita energia mota berrien aukera aztertuz ere; energia termikoarena, adibidez. Bestalde, eraikinetan energia kontsumoaren aurrepenaren aldeko apustua egiteko prest gaude, eta, jakina den moduan, bosgarren edukiontzia aldeko apustua egiten dugu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Azken lau urteetan neu izan naiz Kultura batzordeburua eta hasieratik oso doitzeko ekonomiko gogorak egin behar izan ditugu. Apustua edo nahia izango litzateke orain arte bezala daukagun herri ekimen sare hori mantentzea, horri babesa ematea, baina baita irekitzea beste kultura espresio anitzago batzuetara. Eta bestetik, oso ideia ona izango litzateke etorkinek dakarten aberastasuna ikusi eta aprobetxatzea oñatiarrentzat ere aberasgarri izateko. Aisiarrentzat ere aberasgarri izateko, haurtxo txikiak jarri beharko lirateke

martxan; asteburuetan gero eta guraso gehiago geratzen dira Oñatin eta haiendako oso aukera ona litzateke asteburuetan seme-alabekin gauzak egin ahal izateko plan batzuk garatzea".

Euskara

"Euskararen alde asko egin dute Oñatiko taldeek eta erakundeek ere egin dituzte planak. Baina uste dut ez garela erlaxatu behar eta euskararen aldeko beste gauza batzuk, agian kreatiboagoak, egin beharko ditugula. Etorkinei begira ere, uste dut integratzaileko oso tresna inportantea dela, haiek euskararen murgilduz gizarte kohesioa lortzeko".

Gizarte ongizatea

"Gaur egungo egoera ekonomikoa dela eta, jende kopuru bat lanik gabe, egoera larrian geratu da; familia sostengu garrantzitsua da, baina Udaletik ekimenak jarri beharko lirateke martxan jende horrek bere bizitza-erritmo normala errekuera dezan. Bestetik, gure gaur egungo gizartean zahartzea da arazorik larrienetakoa, eta ahalegina egin behar dugu pertsona nagusiak euren etxebizitzetan mantentzeko ahalik eta duintasun handienarekin, horretan diharduten erakundeek laguntzeko eta haietan inbertitzeko, ahalik eta zerbitzu onena eman dezaten. Azkenik, oso inportantea da beharra dutenak zaintzen dituzten familiako zaintzaile horiek zaintzeko programak garatzea".

Kirola

"Kiroldegia nahiko masifikatuta dago gaur egun. San Lorentzoko gunea eraberritu beharko litzateke kiroldegian lasaiago ibili ahal izateko. Beste arazo bat da kirol minoritarioek ez dutela zabalpen egokirik. Egin beharko litzateke nolabaiteko dibulgazio lana kirol horiek ezagutzeko eta jendeak haiek aukeratzeko bidea izan dezan".

"Zaintzaileak 'zaintzeko' programak egin behar dira"

"Etorkinen integratzaileko tresna ona da euskara"



AMAIA INZA

OÑATIKO ALKATETZARAKO
HAMAİKABATEKO HAUTAGAIA



H1!ek POLITIKA EGITEKO ERA BERRI BAT AHALBIDETUKO DU

Hamaikabat Udaletxearean atek eta lehiok irekitzeko borondatearekin dator, eta horrela politika egiteko era berri bat martxan jartzeko. Udala bizilagunen eta elkarten topaleku izan behar du, horrela adostasuna posible izan dadin eta oñatiarren arazoak konpontzeko benetan lan egin dezan.

Zuretzat lan egin nahi dugu

Gure jarrera ireki, gardena, parte hartzekoa, bakegile eta integratzailearekin.

Udaletxearean atek herritarrei zabaltzeko eta udal arduradunekin harreman zuzena ahalbidetuz, Oñatiko bizilagunen eskaeren erantzun egokia lortzeko.

Kalean politika eginez, Oñatiarren eguneroko kezkei so eginez, udalak bere bizilagunen arazoak konpontzen ahalegindu behar duelako.

Oñatiarren proiektua eraikitzeko, hiri kalitatean eta bertako ekonomian oinarrituta. Oñati kudeatzeko era berri bat. Desberdinen arteko elkarbizitza hobetzearekin ilusionatuta dauden pertsonen topaleku izan nahi dugu.

PELLO GONZALEZ

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIRAKO
HAMAİKABATEKO HAUTAGAIA



AGINTEA ZUREA DA, nolako Gipuzkoa nahi duzun erabaki dezazun. Guk, zuretzat lan egin nahi dugu. **ZURETZAT LAN EGIN NAHI DUT.**

Zuk nahi baduzu, hau da egingo dugun ekarpena:

- **Gobernu Onaren aldeko jarrera irmoa.** Gardentasunez jokatzeko duen gogorria eta aukeratzeko duen gogorria ematen duena. Herritarrek parte hartu egingo dute Gobernuan.
- **Gure enpresen berrikuntza eta lehiakortasunaren aldeko konpromisoa, krisitik indartuta atera gaitezke.** Enpresetan langileen parte hartzea bultzatuz eta lanpostuen sorrera sustatuz.
- **Gipuzkoako kohesio sozialaren alde egingo dugu lan.** Zerga sistema bidezkoago bat finkatuz, gehien duenak gehiago eman dezan. Eta iruzurraren aurkako borrokan jarraituko dut. Iruzurra egiten duenak, denok iruzurtzen baikaitu.
- **Guztionezko gizarte zerbitzuak sendotuko ditugu.** Duintasuna eta elkartasuna ardatz hartuta, guztiok elkarrekin aurrera egin dezagun.
- **Gipuzkoa akordio handien bidetik eraikiz.** Lurralde batu bat nahi dugulako, frentismorik gabe, inor baztertzeko ez duena.
- **ETAren amaierarekiko exijentzia.** Biolentzia gabeko eta bere justifikaziorik gabeko herria eraiki behar dugulako.

OÑATIK AUERRERA EGIN DEZAN LAN EGINGO DUGU

ZURETZAT LAN EGINGO DUGU



«Beti zuk aukeratutako kargu publikoa izatearen kontzientzia osoaz. Arduraz jokatuko dut, babesa eman didatenei huts egin gabe».

BERBA BITAN



KARMELO PEREZ DE ALMARAZ

Soraluze.

45 urte.

Admin. kudeatzailea.



Ezker Batua
Berdeak

"Ezkerra da aldaketarako aukera"

"Oñatiarrei eskatu nahi diet ezkerri bultzada emateko eta etxean ez gertzeko, bozkatzera irteteko. Kaleko kritikak eta solasak alde batera utz ditzatela eta bozka dezatela Oñatiko eskuinaren feudoaz amaitzeko. Ezkerra bozkatu behar dugu, ezkerreko koalizio bat da gobernu aldaketarako aukera eta bidea".

Karmelo Perez de Almaraz | EB-Berdeetako alkategaia

"Enplegua sustatu gura dugu programa ezberdinak martxan jarrita"

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Aurtengoa hirugarren agintaldia du zerrendaburu gisa Karmelo Perezek.

Hirigintza

"ETEOko gunean dauden eraikinak berrerabiltzea proposatzen dugu. Aisialdia, kultura eta kirola batuko genituzke. Bertan egongo lirateke arlo horiei dagozkieen elkarte eta udal instalazioak. Hala, gastu orokorra aurreztuko genuke. Oñatiko zentro zibikoa izango litzateke. Larrañako institutuan dauden kirol instalazioak ere berreskuratatu nahiko genituzke herritarrendako. Auzotarrarekin elkarlanean, auzoetan hondatuta dauden guneak konpondu gurako genituzke. Etxebizitzetako dagoenez, ez dugu gehiago eraiki nahi, errehabilitazioaren aldeko apustua egiten dugu. Edadetuendako etxebizitza babestuak eta gazteendako alokairua bultzatzen ditugu".

Ingurumena

"Energia berriztagarrien alde egiten dugu, bai kaleko etxebizitzetan eta baita baserrietan ere. Ingurumenaren aldeko jarduerak bultzatzeko Natur Eskola agente dinamizatzaile gisa nahiko genuke ezarri. Adibidez, Iturrigorriko basoa turismora edota gazteen ikasketetara bideratuko genuke, horien balio ekologikoak sendotzeko. Oñatiko errekaen bio-dibertsitatea erreperatzea eta enpresa guztien inpaktu ekologikoaren azterketa egin nahiko genuke. Helburua ibai osasuntsuagoa lortzea da. Eta nekazaritzaren biztanle kopurua eta haren jarduera ekonomikoa zein den finkatu nahiko genuke. Nekazaritzaren aldeko apustu sendoa egin nahi dugu. Horretarako, I+G arloko proiektuak bultzatuko genituzke diru-laguntzen bitartez. Atez ateko zabor bilketaren alde ere egiten dugu. Aizkorri-

ko parkerako autokarabamentzako aparkalekua eta San Martin eta ETEOko parke publikoak berreskuratzea ere proposatzen dugu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Larraña institutuko erakina eta bertako pilotalekua berreskuratzen baditugu, gazteendako zein helduendako kirolgune aproposa genuke hor. Adibidez, multi-kirola egiteko. Eta 18 urteko gorakoendako, gaztetxe-fundazio berria egingo genuke. Hura ere ETEOko instalazioetan kokatuko genuke. Izan ere, orain dauden egoitzan lan handia egin badute ere, ez daude baldintza onenetan. Bidegorria

zabaldtu nahi dugu: San Pedrotik Usakoraino, inguru horretan uda sasoiari jende asko dabil-eta".

Euskara

"Euskaltegia zentralizatu genuke euskararen garapenerako. Funtzio publikoa izango luke. *Kontzejupetik* eta Oñati irratiko programa zehatzekin, berriz, etorkinei eta adinako pertsonen laguntza emango genieke. Hala, euskaltegiara joan ezin direnek aukera izango lukete euskara ikasteko. Erabilera bultzatzeko lehiaketak eta ekintza ezberdinak egingo genituzke. Bereziki oñatiarra, geure euskara bultzatzeko".

Gizarte ongizatea

"Udal politikari dagokionez, lana sustatu eta sortzeko lan egin nahi dugu: lanpostu publikoaren eta kalitatezkoaren alde eta azpikontratazioak baztertuta. Zuzenean egin nahiko genituzke kontratazioak Udaletik. Europako gizarte fondo eta INEMeko laguntza programen bitartez, Udaleko langabeen poltsako pertsonen lana bilatzea da gure asmoa. ETEOko espazioa aprobetxatuz, lana sortuko genuke. Autonomoendako mikro-enpresak ere bultzatu nahi ditugu enplegua dinamizatzeko. Etorkinei dagokionez, Eusko Jaurlaritzak landutako *Liburu zuria* eta etorkinak babesteko programa bultzatzen dugu. Umeei dagokionez, haur eskola Udalarena izateari utzi eta publikoa izatearen aldeko apustua egiten dugu; Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarena izatea, alegia".

Kirola

"Denendako multi-kirolaren aldeko apustua egiten dugu eta 11 urtetik gorako arteko lehiakortasuna amaitu gura dugu. Kiroldegien egungo kudeaketa ere errebisatuko genuke. Adinekoendako, aldiz, ariketa fisikoa egiteko aparailuak jarriko genituzke herriko parkeetan".

"ETEOko eta Larrañako guneak aisirako nahi ditugu"

"Alokairuaren eta etxebizitza babestuen alde egiten dugu"

BOZKATU



UDAL HAUTESKUNDEAK 2011

badago oñati
hobetzerik

[zerbait egin daitekeela pentsatzean, egia bihurtzen da] F. Hebbel



SAIO BEREZIA

- ▶ Debagoieneko datu guztiak
- ▶ Eguneko gorabeherak
- ▶ Ordezkaritza politikoen iritzia

GOIENA TELEBISTA | ZUZENKOA | HAUTESKUNDEAK

MAIATZAK 22, HAUTESKUNDE EGUNA, 19:45 |

GOIATZ ARANAK ETA JULEN IRIONDOK AURKEZTUTA

MIKEL LEZAMIZ ETA UNAI SALABERRIAREN ANALISIEKIN



UDAL ETA FORU
HAUTESKUNDEAK 2011

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

BERBA BITAN



MANOLI BARRENETXEA

Donostia.
52 urte.
Psikologjako ikaslea.



"Herritarrak Udalera hurbil daitezela"

"Oñatiarrei esan gura diedana da udal jarduerara hurbil daitezela. Etor daitezela eta eska dezatela, gu eurei zerbitzatzeko gaude. Euren eskaeren gainean lan egin behar dugu; hortaz, guk lan egin ahal izateko jakin egin behar dugu zehazki zer gura duten. Bada, eskatuko nieke etor daitezela Udalera".

Manoli Barrenetxea | PSE-EEko alkategaia

"Gure proposamena da domeka arratsaldeetan kiroldegia zabaltzea"

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI
Manoli Barrenetxeak Blanca Roncal ordezkatu zuen Oñatiko Udalean 2010eko otsailean. EHUn Psikologia ikasketak egiten dihardu Barrenetxeak. Beti izan dituela ideia sozialistak azaldu digu. Euren ardatza kultura izango dela dio, "kultura gauza ororen oinarria" delako. Programako gainerako puntuak labur azaltzeko eskatu digu.

Hirigintza

"Hirigintzaren gainean esan behar dut orain arte alderdi sozialistak hitzartu eta babestu duela alokairuan emateko etxebizitza publikoen eraikuntza Oñatin. Eta aurrerantzean ere babestuko ditugu etxebizitza publikoetarako sarbidea ahalbidetzen duten ekimenak eta hirigintza garapen jasangarriak bultzatuko ditugu, betiere herritarren beharrak aintzat hartzen dituzten ekimenak badira".

Ingurumena

"Uste dugu ingurumena denona dela eta zaindu egin behar dugula, oraina izateaz gain etorkizuna ere bade-lako; gure etorkizuna da, eta baita gure seme-alaben etorkizuna ere. Hortaz, ingurumenaren alde egiteko energia jasangarrien alde egiten dugu, etxeetako hondakinak birziklatzearen alde egiten dugu, organikoa gainerako hondakinetatik bereiztearen alde egiten dugu, eta, duda barik, bosgarren edukiontziaeren alde gaude. Hori izango da gure apustua".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Uste dugu kultura gauza ororen oinarria dela. Hezkuntza, askatasuna eta integrazioa da kultura. Sozialistek gogor egingo dugu lan kulturaren alde, eta lan egiterakoan kontuan hartuko dugu kultura epe luzerako proiektua dela. Kultura plurala hedatu gura dugu, gure lurraldearen aberastasuna

indartuko duen kultura. Gazteei dagokienez, uste dugu artikulatu behar dugula Udaletik gazteengana doan komunikazio eredua. Gazte kolektiboa oso handia da eta talde bakoitzak bere beharrak ditu. Komunikazio kanal hauek osatu behar ditugu euren nahiak zeintzuk diren jakiteko, baina batez ere udal jardueran inplikatzeko izan behar du beharrezkoa komunikazio kanal horrek. Gazteek eskatu eta exijitu egin behar digute, baina horretarako errekurtsoak jarri behar dizkiegu".

Euskara

"Elebitasun integratzaile baten alde egiten dugu

apustu; izan ere, euskara ulertzen dugu guztion patrimonio eta aberastasun moduan. Udaleko euskara sustapen akordioak sinatuko ditugu, eta sozialistek ezarriko ditugun politika linguistikak aurrerakoitasunean eta adostasunean oinarritutako politikak izango dira".

Gizarte ongizatea

"Gaur egun ezagutzen dugun ongizate-estatu politikoa sozial-demokraten ondorioa da. Politika horiek gizarteak kohesionatzen dituzte. Gure politikak, hain zuzen, sozial-demokratikak dira. Guretzako ongizate kulturak esan gura du, besteak beste, kalitatezko eta doako hezkuntzak

"Etxeetako hondakinak birziklatzearen alde gaude"

"Udalaren eta gazteen arteko komunikazioa sortu behar da"

eta osasun zerbitzuak herritar guztiendako izan behar dutela".

Kirola

"Kirola aisialdia da, osasuna da eta kohesio soziala da. Alderdi sozialista lanean dabil ikasleen parte-hartze tasa igotzeko kirolean, bai eskola ordue-tan eta baita eskola ordue-tatik kanpo ere. Bestalde, bizi esperantza eta egoera fisiko eta psikologikoaren ardura gehitzeak ekarri du kirola-osasuna eta kirola-aisialdia binomioen eskaeraren igoera. Gure ustez, eskaera horiei instituzioek erantzuna eman beharko liekete. Oñatiren kasuan, gure proposamenen artean dago negu partean domeka arratsaldeetan kiroldegia zabaltzea; izan ere, uda partean jendea kanpora mugitzen da gehiago, baina neguan ez. Kiroldegiko ordutegia luzatzea sustatuko dugu aisialdi osasuntsua eta umeak dituzten familiek domeka arratsaldeetan kiroldegia erabiltzeko aukera izatea, eta, nola ez, baita gainerako erabiltzaileek ere. Batez ere krisiak familien aisialdian eragina izan duela kontuan hartuta, ordutegi luzatze honekin kostu bako aisialdia bermatuko diegu herritarrei".

Aintzane Oiarbide
Bergarako Hautagaia

Juan Karlos Garitano
Arrasateko Hautagaia

Lourdes Idoiaga
Oñatiko Hautagaia



bozkatu EAJ PNV
jakin eta ezin

DEBAGOIENARI

BERBA BITAN



JULIO PEREZ DE ARRILUZEA

Gasteiz.
36 urte.
Zientzia Politikoetan
lizentziaduna.



"Herriak PP behar du, oreka mantentzeko"

"Azken urteotan PP Udalean egotea onuragarria izan da herriarentzako. Orain arte Udalak herria berea balitz bezala jardun izan du. Oñatik PP behar du; oreka mantenduko duen alderdia behar du. Oñatiar baina aldi berean Espainiaren parte sentitzen diren horiek guztiak defendatzeko gatzoz".

Julio Perez de Arriluzea | PPko alkategaia

"Enplegua sortzen badugu, herritarrek gizarte zerbitzurik ez dute beharko"

L. KORTABARRIA - A. ALKORTA | OÑATI

"Euskaldun eta espainiar" sentitzen diren oñatiarren botoa eskatzen du Julio Perez de Arriluzea. Enplegua sortuz, hainbat arazo, ingurumenaren eta ongizatearen alorrekoak batik bat, konponduko direla dio PPko hautagaiak.

Hirigintza

"Alor honetan herriko erdigunea indartzea izango da gure zeregin handienetarikoa. Lortu nahi dugunaren ideia argi eta garbi daukagu. Funtsean, herriko erdigunea indartu nahi dugu; inguru hau gune kultural eta sozial bilakatu nahi dugu. Horrela, Foruen plaza eta inguruak indartzearen alde egingo dugu, San Juan kalea eta Atzeko kalea oinezkoentzako kale bilakatuta. Momentu honetan plazan dagoen aparkalekua ere herriko beste leku batera eramango dugu. Bide horretatik plaza handitzea lortuko dugu. Eta

horretaz gain, oinezkoek leku handiagoa izango dute inguru horretan. Espaloiak zabaldu egin nahi ditugu, eta, bide horretatik, herri erosoago eta zabalagoa edukitzea lortuko dugu".

Ingurumena

"Oñatiren inguru paregabea indartu gura dugu, garapen ekonomikoarekin lotuta. Proiektu interesgarria daukagu hori lortzeko, baina, esan bezala, alor ekonomikoarekin lotuta dagoen proiektua da. Izan ere, Oñati leku paregabea dago, baina ikuspegi turistikotik indartu egin behar da inguru eder hori. Herriko ekonomia suspertuz, turismoaren sektorea indartuko dugu, eta, hala, ingurunea indartzea, zabaltzea eta haren mantenua bermatzea lortuko dugu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Gure alderdiak teknologia berriekin konpromisoa du, eta, inguruko herrietan egin

duen moduan, bertan ere wi-fi guneak ezarri gura ditugu, doan; oraindik horrelakorik ez daukagu eta beharrezkoa ikusten dugu. Teknologia berrien aldeko apustu garbia egiten dugu guk. Herritarrei Internetera sartzeko azpiegiturak eskura jartzeaz gain, irakaskuntzaren alorrean ere teknologia berri horien erabilpena indartu eta bultzatu egingo dugu".

Euskara

"Euskararen irakaskuntza dagoen eskaerari egokitu behar zaio. Oñatin euskaraz asko hitz egiten da, eta, ondorioz, seguruenik, irakaskuntza ere gehiago egokitu beharko da. Dena dela, euskara zein gaztelania erabili,

norberaren eta familiaren erabakia izan behar du, eta horretan ez dago zertan gatazkarik sortu, ez hizkuntza batengatik ezta bestearengatik. Administrazioek auzi honetatik aparte egon behar dute. Norbanakoek askeak izan behar dute hizkuntza bat edo beste erabiltzeko, eta, ondorioz, administrazioek legeak eskatzen duenera mugatu behar dute la uste dugu".

Gizarte ongizatea

"Gizarte zerbitzuei dago kienez, guk aurrera darabagun politikaren arabera, egokiena inork zerbitzu hauen beharrik ez edukitzea litzateke. Hau da, denondako lana egon dadi-

la eta familiek ez dezatela gizarte laguntzen beharrik izan. Horretarako, enplegua sustatu behar da. Zapaterok aurrera eroandako politikaren ondorioa izan da langabezia, eta guk horri irtenbidea topatu nahi dugu. Gaur egun bizi dugun egoeraren aurrean, hau da aurrera eroan daitekeen gizarte politikarik onena. Gizarte zerbitzuetan asko gastatzen dutela esaten duten horiek langabeziari ezin diezaioketela aurre egin esan nahi du. Familiek lana eduki behar dute eta guretzat hori da funtsezkoena, enplegua sortzea eta langabezia amaitzea".

Kirola

"Gazteak gero eta sedentarioagoak dira eta ez dute kirol askorik egiten. Guk bestelakoa proposatzen dugu: eskoletatik kirol ekintzak sustatzea eta bideratzea. Gazteei kirola egitea eta kalera gehiago irtetea zein ona den irakatsiko zaie eskolan. Aisialdi aktiboa bultzatzen dugu. Familien aldetik, elikadura-hezkuntza hobea bultzatuko dugu. Izan ere, gaur egun loditasun arazoak dituzten gazte asko daude. Gainera, beste herri batzuetan egin izan den moduan, aire zabalean gimnasia instalazioak ipin daitezkeen gura dugu".

"Kulturaren alorrean wi-fi guneak dira gure apustua"

"Euskararen alorrean Udalak legera mugatu behar du"

Mikel Uribetxebarria
Aretxabaletako Hautagaia

Maria Eugenia Arrizabalaga
Antzuolako Hautagaia

Aitor Urrutia
Eskoriatzako Hautagaia

Patxi Basauri
Elgetako Hautagaia

ONENA EMATEKO GARAI'A

Debagoiena

f t YouTube in

BERBA BITAN



ANA BOLINAGA

Arrasatearra.
44 urte.

Hezkuntza-aholkularia.



"Herritarrei begira lan egingo dugu"

"Ezkertiarrak, bakezaleak, independentistak eta soberanistak gara. Aniztasunean bildu gara herriari ilusioa, lana eta zintzotasuna eskaintzeko. Udalera ez goaz esperimintazera. Gure iparra herritarren bizi baldintza eta bizi kalitatea hobetzea da eta hori lortzen saiatuko gara".

Ana Bolinaga | Bilduko alkategaia

"Gizarte ongizatea izango da gure lehentasuna aurrekontuetan"

L. KORTABARRIA - A. ALKORTA | ARETXABALETA

"Posible da Aretxabaletan aldaketa politiko, sozial eta instituzionala egitea", esaten du Ana Bolinagak. Proiektuak aurrera eroateko herritarren parte-hartzea "ezinbestekoa" dela dio. Lerro hauetan, bere herri programaren oinarriak laburtzen dizkigu.

Hirigintza

"Alor honetan gure ardatz nagusia garapen iraunkorraren alde lan egitea da: ingurumenaren, jendartearen eta ekonomiaren arteko orekaren alde. Aretxabaletan bizi kalitatea hobetu gura dugu, ez bakarrik gaur egungo herritarrendako, baita gure seme-alabendako eta hurrengo belaunaldiendako ere. Horretarako, alokairu soziala eta haren kudeaketa publikoa sustatu eta bermatuko dugu eta etxe tutelatuak eta elkarbizitza programa martxan jarriko ditugu. Horrez gain, ingurumena-

rekiko sentsibilizazio ekin-tzak bultzatuko ditugu eta bailaran dauden udalen arteko indarrak bilduko ditugu, ekonomia sustatu eta bermatze aldera".

Ingurumena

"Ingurumena guztion ondarena da eta guztiok dugu ardura eta eskubidea hau zaintzeko eta horretaz gozatzeko. Orokorrean alor honekiko sentsibilizazioa bultzatuko dugu; berdegune gehiago zabalduko ditugu; kaleak, plazak eta auzoak hobetuko ditugu, oinezkoendako eta txirindulariendako espazioak sortuta. Mugikortasun iraunkorra eta garraio publikoa lehentasunak izango dira guretzat. Zero Zabor bilketa selektiboaren aldeko apustua ere aurrera eramango dugu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Herritik herriarendako egingo dugu lan, herritarren

eta elkarten lana sustatzeko, mesfidantza baztertzeko eta Udalaren eta herritarren arteko kimika berreskuratzeko. Bide horretan iniziatibak txalotu eta konfiantza emango diegu. Kultura eskaintza zabal eta askotarikoa egingo dugu. Horrela, 13 eta 18 urte artekoendako aisialdi programa sortuko dugu, orain daukagun hutsunea betetze aldera. Oro har, kultura aktiboa bultzatuko dugu: besteek egiten dutena ikusi, entzun eta gozatzeaz gain, gurea ere ikusi, entzun eta gozatu egingo dugu, sorkuntza eta sormena bideratzeko. Herritarrek egiten dutena ikusi eta gozatu egin behar dugu. Eta hitza herriari eman behar badiogu,

herritarren parte-hartze hori bermatzeko herriari begirako kultura batzorde indartsua sortuko dugu".

Euskara

"Aretxabaleta herri euskaldun eta abertzalea izan arren, kalean geroago eta gutxiago egiten da euskaraz, erabilera behar da eta arazo hori guztion ardura da. Euskara, mundua eta Aretxabaleta ulertzeko ez ezik, gozatzeko, entzuteko eta sentimenduak adierazteko hizkuntza ere bada. Eta hura sustatzeko prozesu estrategikoari ekingo diegu, batzorde baten bidez. Eta, norberaren konpromisoan oinarrituta, guztion artean indarrak batuko ditugu normalizazioaren alde".

"Alokairu soziala eta etxebizitzaren gestio publikoa egingo ditugu"

"Indarrak batuz euskararen normalizazioa bilatuko dugu"

Gizarte ongizatea

"Ongizatea gure lehentasuna izango da aurrekontuetan. Berdintasunaren eta justiziaren aldeko apustu politiko zintzoa bideratuko dugu. Denok eskubide eta aukera berak edukitzeko eskubidea dugu. Alokairu soziala eta etxebizitzaren gestio publikoa, etxe tutelatuak eta adinekoren eta gazteen arteko elkarbizitza bultzatuko ditugu; emakumeen arteko hitzarmena sustatuko dugu Berdintasun Plana aurrera eramateko. Gazteei, euren kezkek zeintzuk diren galdetuko diegu, eurengana hurbilduko gara, konfiantza emango diegu; mesfidantza albo batera utziko dugu eta eurentzako espazioak sortu eta bultzatuko ditugu. Etorrinendako harrera plana hobetuko dugu".

Kirola

"Kirolak giza harremanetan eta osasunean duen garrantziaz jabetzen gara. Ideia horri helduz garatu dugu arlo hau gure programan. Balioetan oinarritutako askotariko kirol eskaintza zabala eskainiko dugu, kirol etxe ahalik eta erabilgarrien eta erakargarrien eskura jartzeaz gain. Hori guztiori lortzeko herriari hitza emango diegu, kirol elkarteekin elkarlana eta elkarrekin bultzatuz".

bildu aretxabaleta

www.bildu.info/aretxabaleta

eman botoa **bildueuskalherria**

BERBA BITAN



INAXIO GARRO

Aretxabaleta.

47 urte.

Euskara teknikaria.



"Ilusioa eta konpromisoa kiloka ditugu"

"Amaitzeaz dagoen agintaldian kultura politikak berri bati ateak ireki dizkiogu, eta uste dut guk egindako lanak arrastoa utzi duela. Berbak alde batera utzi eta lanean jartzeko ordua da. Urte hauek emandako esperientziatik abiatuta, Aralarko lantaldean ondo dakigu zertan egin behar dugun lan".

Inaxio Garro | Aralarko alkategaia

"Herriaren beharretara egokituko den osasun zentro berria behar dugu"

XABI URTZELAI | ARETXABALETA
Inaxio Garro azken lau urteek eman dioten esperientziatik abiatuko da agintaldi berriari aurre egiteko, herritarrek hala aukeratzen badute: "Aralarko lantaldean ondo dakigu herriak ze behar dituen; hartutako konpromisoak bete nahi ditugu".

Hirigintza

"Aretxabaletan hirigintzan lantzen ari garen plana gurako nuke nabarmendu, horrek markatuko ditu eta etorkizuneko Aretxabaletako ezaugarriak. Aralarren apustua izango da herri orekatua izatea, eta iraunkortasun irizpideak oinarri izango dituen. Oinezkoendako herria nahi dugu, alokairuzko etxebizitza sozialak izango dituen, herritarren premien arabera. Merkataritza mailan denda txikiei lagunduko diegu, eurak dira eta herria bizirik mantentzen dutenak".

Ingurumena

"Gure konpromisoak dira ingurumenaren gaineko konpromiso eta sentsibilitatea herrian sustatzea, herriko bioaniztasuna babestea. Aretxabaletako bazter guztiak errekupearatu nahi ditugu, baratze ekologikoak bultzatu, argiteria publikoko kontsumoa jaitsi eta energia berriztagarrien alde egin. Hondakinen gainean, esan behar da azken urteotan zabortege bilakatu dugula mundua; gure proposamena da zaborra batu, birziklatu eta berrerabiltzeko medioak jartzea".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Aniztasunetik abiatutako kultura plana egin nahi dugu. Duela bi urte lehen pausoa eman genuen, herritarren laguntzarekin diagnosis egin genuen; orain, herriko kultura taldeekin batera jarraitu nahi dugu kultura plana aurrera ateratzen. Azken

urteotan Arkupe izan da herriko kultura erreferente, herritarrek geroago eta gehiago erabiltzen dute, eta hori bultzatu behar da. Azkenik, Andramaixak, San Migelak, Ojala Zelai eguna... herriko jaiegun horiek zaintzen eta sustatzen jarraituko dugu. Horrekin batera, Portasolgo jaia errekupearatu nahi dugu".

Euskara

"Euskara eta euskararen normalizazioa herriko arlo guztietara zabaldu behar dugu, herriko eragileekin batera elkarlanean. Garbi dago euskarak denon beharra duela. Euskal Herriko beste herri batzuekin alderatuta ez gaude egoera

"Geroago eta jende gehiagok erabiltzen du Arkupe"

horren txarrean, baina badugu non lan egin: osasun zentroan, dendetan, aurrezki kutxetan eta abar. Hala ere, aretxabaletar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzearen aldekoak gara, inor baztertu barik".

Gizarte ongizatea

"Arlo honetan garrantzitsua da aretxabaletarren arazoak detektatzea, eta ondoren horiei aurre egitea. Batez ere umeen, gazteen eta nagusien kolektiboari lehentasuna emanda. Gure apustua da herritar guztien eskubideen alde egitea. Proposatzen duguna da: nagusien alorrean Basotxorekin ditugun harreman onak hobetzea; emakumeei dagokienez,

"Iturri gorri pilotalekua eraberritu nahi dugu"

agintaldian abian jarri dugun berdintasunaren aldeko planarekin aurrera egitea; etorkinei dagokienez, herrian integra daitezen ahalegina egin behar dugu, eta politikak horretara bideratu; lan arloan, enplegu planarekin aurrera egin behar da, langabezia dagoen makina bat herritarrek, sikiera, aldi baterako lana izan dezaten; nazioartera begira, berriz, agintaldi honetan egin dugun moduan, aurrekontuko 0,7a nazioarteko ekimenak bultzatzeko erabili nahi dugu. Azkenik, herriaren beharretara egokituko den osasun zentro berria egitea da lehentasuna".

Kirola

"Bizi kalitate handiko herria da kirola egiten duen herria, eta Aretxabaletan pribilegiatuak gara uste dut. Izan ere, herrian bi modu ezberdinetan egin dezakegu kirola, aire zabalean eta estalita dauden kirolguneean. Aire zabalean, handitzen dabilen bidegorri sarea dugu, Urkulu ingurua... Gune estalien kasuan, laster kiroldegi berria izango dugu, Debagoien osoan erreferente izango dena. Iturri gorri pilotalekua, berriz, ez dago egoera onean, eta goitik behera eraberritzea da asmoa".

Bozkatu

aralar

IREKI BIDEA
ARETXABALETAN
BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI
EZKERRARI



BERBA BITAN



MIKEL URIBETXEBARRIA

Aretxabaleta.
43 urte.
Ingeniari teknikoa.



"Eragile ekonomikoaren arteko plana"

"Aretxabaleta 10 urte barru zer izango den garbi jakin gura dugu. Industriak jarraituko du, baina nekazaritza eta zerbitzuak landu behar dira. Horregatik, eragile ekonomiko guztien arteko plana landu beharra dago. Gainera, bakea eta normalizazioa lortzeko lan egingo dugu, eta udal gestioan elkarlana bultzatu".

Mikel Uribebarria | EAJko alkategaia

"Herri inguruko ibilbideak proposatzen ditugu kultura ondarea ezagutarazteko"

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
Lehenengoz da alkategai Uribebarria, baina udal jardunaren berri badu, zinegotzi izan zen-eta 2003-2007 agintaldian. "Kudeaketa zorrotz eta eraginkorra" bermatzen duela dio.

Hirigintza

"Zaborraren kontua dago hemen. Izan ere, ordena eta garbitasunean asko dugu garbitasunean asko dugu hobetzeko. Argiteriari dagokionez, teknologia berriak sartu gura ditugu, Aretxabaleta egun ez da-eta eredu garri argiteria kontsumoan. Bestetik, pantaila akustikoak behar dira errepide alboko etxeetan zaratak txikitzeko. Era berean, oinezko eta ibilgailuen arteko oreka aldatu gura dugu, oinezkoak lehenetsita, eta seinalizazioak hobetu. Gainera, xehetasun txikiei garrantzia emango diegu".

Ingurumena

"Hiru kontu zehatzi helduko diegu: hondakinak, kontsumo energetikoa eta ura. Batez ere, kontsumoari erreparatu eta ohituren aldaketa sustatuko dugu. Zaborrari dagokionez, bosgarren edukiontzia bultzatuko dugu, metodo egokia delako ondo ezartzen bada.

Kontsumo energetikoa landuko dugu argiterian, teknologia berriak sartuta -ledak...-, horrek eskaintzen duelako ordutegiari eta intentsitateari heltzea. Uraren kontsumoa ere landuko da eta adierazle batzuk finkatuko dira -energia kontsumoan bezalaxe- etxeetan programa zehatzak garatzeko kontsumoa txikitzeko".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Herriko eragileen eta Udalaren arteko elkarlan estua goa lantzea proposatzen dugu, eta horretarako lan-kidetza marko bat definitzea; izan ere, aberastasuna kultura eragileengan dago eta baliabideak Udalarengan, eta biak uztartuta emaitza onak izango ditugulakoan gaude.

Aisialdiari dagokionez, hainbat ibilbide proposatzen ditugu herri inguruan egitekoak, oso erakargarria delako. Ibilbide horiek landuko dira, bai kirol ikuspegitik; bai herriko kultura ondarea ezagutarazteko; bai turismo aldetik, erakargarriak izanik kanpoak etor daitezela.

Gazteei dagokienez, ardurarik handiena langabezia delakoan gaude, eta ekintzailetasuna bultzatu gura dugu; gazteek proposa ditzatela ekintzak eta guk baliabideak jarriko ditugu, ekintza horiek aproposak ikusten ditugun neurrian".

Euskara

"Bi kontu bereiziko ditugu: ezagutza eta erabilera. Ezagutzari dagokionez, Aretxabaletan nahiko maila ona dugu, baina hutsik handiena euskalkiarekin egiten dugu. Bertako euskalkiaren aberastasuna galtzen gabiltzala uste dugu eta ekintza batzuk egin arren aurreko agintalditan, lan gehiago egin behar da, ondare benetan garrantzitsua delako. Bestetik, Udaltetik egiten diren eskaera guztietan euskararen ezagutza exijituko da eta herriko zerbitzu publikoetan ere bai: posta, Osakidetza..."

Erabilerari dagokionez, komunikazio era berrian sartzen gabiltza eta Internet

asko erabiltzen da egun. Euskararen erabilera sustatze aldera tresna berriak -hiztegi elektronikoa...- bultzatzea komeni da".

Gizarte ongizatea

"Garbi dago laguntza sozialak mantendu egin behar direla. Batetik, behar sozialak identifikatu; eta, bestetik, gizarte zerbitzuak behar horietara egokitu. Adinekoak ahal bezainbeste etxean egote aldera teknologia berriak sartu: domotika... Mugikortasun arloan, herri barruan oinezkoak lehenetsi eta kanpoan autobus azkarraren aldeko apustua egin; eta kamioien-dako aparkaleku aproposak topatu. Gainera, parte-hartze eredu berriak landuko ditugu".

Kirola

"Kulturaren legez, herriko kirol taldeen eta Udalaren artean elkarlan markoa eratuko dugu, kirol taldeak eta baliabideak uztartu eta horri eraginkortasuna topatu. Horren harira, kirol etxe berria dugu eta horrek eskatuko du, batetik, gestio zorrotza, eta, bestetik, aprobetxamendua ateratzea, erabilera bultzatuta. Kirol eta osasunaren ildotik kirolarien artean osasuna kontuan hartzeko programak egingo ditugu".

"Kontsumoa murrizteko ohiturak aldatu beharra dago"

"Kultura eragile eta Udalaren arteko elkarlana landuko dugu"



ONENA EMATEKO GARAIA

BERBA BITAN



AINHOA SAGARRIBAI

Aretxabaleta.
37 urte.
Aholkularia.



"Enplegua sortzearen alde egingo dugu"

"Krisi garai honetan ekonomia indartzea ezinbestekoa da, eta, horretarako, berrikuntza eta teknologia berrien alorrean enplegua sortzea espero dugu. Gure enpresei ere bermea emango diegu. Eta herritarrei ekarpenak egiteko aukera eskainiko diegu eta guk gero proposamen horiek aztertuko ditugu".

Ainhoa Sagarribai | PSE-EEko alkategaia

"Enpresei ekonomikoki lagunduko diegu inbertsioa herrira ekartzeko"

A. TXINTXURRETA - A. ALKORTA | ARETXABALETAK
Ainhoa Sagarribaik sinesten du Udaletik jendearen bizitza hobete dezaketela; horregatik dago politikan. Hau da datorren agintaldirako aurkezten duen programa.

Hirigintza

"Gai oso garrantzitsuak ditugu esku artean. Adibidez, 4A gunea birmoldatzea, bertan Mondragon Unibertsitatea ezarriko delako. Hori oso garrantzitsua izango da eta espero dugu hurrengo agintaldiarekin egia bihurtzea. Hiri Antolamendurako Plan Nagusia ere inportantea da, erabakiko dugulako, denon artean, etorkizuneko Aretxabaletak nolakoa izan behar duen. Horretan denon iritzia beharrezkoa da, eta, ahal badugu, denon adostasuna lortzen saiatuko gara. Gainera, etxebizitza eskuragarriak lortzeko erakundearen arteko akordioak bilatuko ditugu".

Ingurumena

"Ingurunearen sostengarritasunarentzat, bosgarren edukiontzia bultzatzen dugu, edukiontzien bitartez zaborra ez delako kaleetan egongo; beraz, askoz ere higienikoagoa da sistema hori. Horrez gain, gure herriak eta bailarak garraio komunikazio txarra dute, eta, hori hobetzeko, agintaldi honetan Aldundiaren laguntza jasotzea espero dugu.

Kultura, aisialdia, gazteak

"MU gure herrian ezartzea oso garrantzitsua da. Dagoeneko bide luzeena eginda dago. Bestalde, nahi dugu Arkupe kultura etxea herriko leku garrantzitsuenetarikoa izatea, ezagutzaren atea zabaltzeko nahi ditugulako. Guk kultura gizarte-ratzeko eta gizarte kohesiorako faktore gisa ulertzen dugu. Bestalde, gazteek eta Udalak harreman estua izan behar dute, eta, hori lortzeko, lan mundurako progra-

mak bideratu eta bultzatu ditugu. Gazteek arazo zehatzak dituzte eta arazo zehatz horientzako neurri zehatzak behar dituzte. Horretarako, gazteen autonomiaren alde egingo dugu, solidaritate eta berdintasun aukera gehiago eskainita. Gazteen ekintzailtasuna bermatzeaz ere ezin gara ahaztu. Izan ere, euren bizitza erabakitzeko une kritikoan daude".

Euskara

"Euskararen erabilera bultzatzea da gaur egungo gure erronka. Ikerketa egin genuen eta ondorioztatu dugu gurasoek elkarren artean gaztelaniaz hitz egiten dutela, baita nerabeek

"Arkuperekin ezagutzaren ateak zabaltzeko nahi ditugu"

ere. Baina gurasoen eta nerabeen arteko harremana euskaraz da. Beraz, elkarren artean gaztelaniaz berba egite hori aldatu beharra dago. Izan ere, euskara denon ondarea da, eta, ondorioz, denon ardurara da. Horregatik guzti-gatik, gure aldetik euskararen erabilera sustatzeko udal planak izendatuko ditugu".

Gizarte ongizatea

"Ziklo ekonomiko berri honetan ezin gara ahaztu ekonomia produktiboa gizarte gaietara bideratzen. Bestalde, adinekoek gizartearen euren aztarna utzi behar dute, eta, horretarako, gizarteratu egin behar

"Euskararen erabilera indartzeko planak ditugu"

ditugu; modu bat da euren arteko erlazioa estutzea. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasun zentro berria egiteko konpromisoa erakutsi du eta zentro berri hori egungo eskakizunetara egokituta egotea espero dugu. Gizarte ongizateari begira, orain dela gutxi alderdi sozialistakook Udalean mozio bat aurkeztu genuen herrian droga-menpekotasunari buruzko azterketa egiteko, eta onartu egin ziguten. Horrela, Eusko Jaurlaritzari eskatu diegu ikerketa egitea eta hor ateratako ondorioekin nahi dugu argitu zein egoeratan gauden, gero, ondorio horien gainean, neurri zehatzak hartzeko".

Kirola

"Guretzat momentu honetan kiroldegi berria da proiektu garrantzitsua, zalantza barik. Eraikina aurrera doa eta hurrengo pausoa izango da zehaztea zein kudeaketa sistema erabiliko dugun kiroldegi berriarentzako. Hala ere, inportanteena da kiroldegiarekin aretxabaletarrekin ahalik eta zerbitzu onena eskaintzea. Dena den, ezin dugu ahaztu aurrekontuak beti presente izan behar ditugula, proiektu honetarako aurretik ere inbertsio handia egin dugulako".

Salvador Gonzalez | EB-Berdeetako alkategaia

"Banketxe publikoen alde gaudete eta langileen ondoan egongo gara beti"

J. BEREZIARTUA | ARETXABALETAK
Salvador Gonzalezek presuntasuna erabatekoa da aretxabaletarren beharrak asetzen saiatzeko.

Hirigintza

"Hirigintza eredu soziala eta aurrerakoia defendatzen dugu. Nola? Herri bizigarria eginda. Horretarako, oztopo urbanistikoak kentzen saiatuko gara, irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko.

Bestalde, aparkalekuen arazoaren aurrean garraio publikoaren aldeko apustua egiten dugu. Etxebizitzari helduz, eredu soziala defendatzen dugu, alokairu sozialeko etxebizitzak. Gazteak gurasoen etxetik irteko aukera onena da, gure ustez. Esaterako, kiroldegi gainean dauden etxebizitzak bultzatu behar dira.

Horrez gain, anbulatoarioaren gaia aztertu behar dugu, ea beste bat eraikitzeko aukera dagoen. Azke-

nik, auzoak defendatzeko lan egingo dugu".

Ingurumena

"Gure amalurra geroago eta okerrago dago. Ezker Batua-Berdeek konpromisoa hartzen dute gure herriko ingurumenaren alde lan egiteko. Horretarako, garapen eredu jasangarriagoa defendatzen dugu. Kutsadura isurketak modu zorrotzean kontrolatu behar dira; esate baterako, argindar eta kutsadura akustikoa. Argindar larregi kontsumitzen dugu eta hori gastu antzua da herriarendako.

Hondakinei dagokienez, gutxiago zikindu eta gehiago birziklatu beharrez kontzientziazio behar dugu.

"Alokairu soziala bultzatuko dugu, batez ere gazteei begira"

Agenda 21 egitasmoari bultzada eman behar zaio. Kontsumo arduratsuen aldeko sentsibilizazio kanpainak bultzatuko ditugu. Azkenik, AHTren kontra gaudete; bailarari ez dio inongo onurarik ekarriko".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Ezkertiarrak gara eta gure kulturak laikoa, askea eta publikoa izan behar duela uste dugu. Euskal eskola publikoa bultzatuko dugu eta gure sostengu eta babes osoa emango diegu gurasoen elkarteari. Kultura eredu kontsumistaren aurka gaudete. Kultura elkartei eman gura diegu lehen mailako garrantzia. Gazteekin lan

"Euskara da gure hizkuntza eta haren alde egingo dugu lan"

egingo dugu, euren aisialdia eta bestelako arazoak zeintzuk diren jakiteko. Eurek proposatzen dituzten irtenbideei garrantzia emanango diegu. Gazteen sormen ahalmena garatzeko guneak bultzatuko ditugu; Guardia Zibilaren kuarter zaharra hor dago eta gaztetxe moduan erabil daiteke".

Euskara

"Euskara gure hizkuntza da eta euskararen alde egingo dugu lan. Euskara zabaltzea, garatzea eta normalizazio linguistikoa lortzea da gure helburua.

Instituzio publikoetan euskaraz egiteko aukera bermatu gura dugu".

Gizarte ongizatea

"Gaur egun krisialdi sakon baten murgilduta gaudete. Murrizketa handiak izan ditugu PNV, PSOE eta PPren baiezkoarekin. Alderdi politiko horiek izan dira banketxei diru publikoa eman dietenak. Udal zerbitzuak,

BERBA BITAN



SALVADOR GONZALEZ

Posadas (Kordoba).
45 urte.
Funtzionarioa.



"Euren krisia eurek ordain dezatela"

"Kapitalismoak sartu gaitu krisian; euren krisia eurek ordain dezatela. Banketxe publikoaren alde gaudete eta langileen ondoan egongo gara beti. Errepublikaren aldeko ezkerreko alderdi bakarra gara, eta autodeterminazio eskubidea defendatzen dugu. Horregatik, botoa eskatzen dizuegu".

'errentagarriak' izan daitezten, pribatizatu egin behar direla esaten digute.

Bada, horren aurrean honakoa proposatzen dugu: udal zerbitzu guztiak publikoak izatea eta haien kudeaketa Udalarena izatea. Hona zenbait proposamen: udal enpresak sortzea, langabeendako herri batzordeak sortzea Udalaren parte-hartzearekin eta aurrekontu sozialak handitzea. Gainera, enprekin harremanetan jartzea proposatzen dugu euren enplegu beharra jakin eta langabeei lana aurkitzen laguntzeko. Izan ere, gure ustez, langabezia da arazorik larriena".

Kirola

"Hasteko eta behin, esan behar dugu kiroldegi amaitu egin behar dela. Izan ere, lan oso atzeratuta da. Kiroldegi egiten auzatzen denean, haren kudeaketa Udalaren esku egotea gura dugu; hau da, ez dugu enpresa pribatu baten eskuetan utzi nahi.

Saiatuko gara kirol ekipamendu egokiak izaten; askotariko kirol eskaintzaren aldeko apustua da gurea. Azkenik, kirol elkarte guztiak egingo dugu lan, eta haiei gure laguntza eta babes osoa emango diegu. Herriko kirola garatzea dugu helburu".

BERBA BITAN



BEÑAT HERCE

Eskoriatza.
30 urte.
Unibertsitateko irakaslea.



"Lan egiteko gogoa duen talde plurala gara"

"Era guztietako pertsonak bildu gara, Eskoriatzak dituen beharrak ezagutzen ditugu eta hauek hobetzeko lan egingo dugu.

Eskoriatzak Udal gardena izatea da gure helburua, herritarrek Udala zertan dabilen jakin dezaten nahi dugu eta horretarako teknologia berriak erabiliko ditugu".

Beñat Herce | Bilduko alkategaia

"Garapen ekologikoa, ekonomikoa eta soziala batera joatea nahi dugu"

ANDER MONEDERO |
ESKORIATZA

Politikan berria da 30 urteko eskoriatzarra. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza irakaslea da, eta horrek Udala ondo kudeatzen lagunduko diola uste du.

Hirigintza

"Herri jasangarri eta aurrerakoa nahi dugu. Agintaldi honetan etorkizuneko herri ereduak erabaki beharra dago eta diseinua egiteko herritar guztien parte-hartzeaz baliatu nahi dugu 2013rako Plan Orokorra garatzeko. Aldi berean, erakuntza jasangarriak egiteko apustua egin nahi dugu, eta baita alokairu soziala sustatu ere. Eta, azkenik, dentsitate txikiko etxebizitzaren proiektuak berraztertzea nahi ditugu, horietan izaten den gastu handia ekiditeko eta oreka neurriak hartzeko".

Ingurumena

"Herri garbi eta orekatuan bizi nahi dugu. Eskoriatzan

garapen ekologikoa, ekonomikoa eta soziala batera joatea nahi dugu. Eskoriatzaren etorkizuna hipotekatuko ez duen garapena egingo dugu. Zaborren kudeaketa ereduak aldatzea proposatzen dugu, Zero Zabor bezalako ekimenekin bat eginda. Gutxiago kontsumitu, gutxiago sortu eta dagoena berrerabili. Gai netik, Udal mailan kontsumoen auditoria egin da eta pasatu berri den agintaldian hasi ziren neurriak hartzen, eta plan honekin jarraitzea eta neurri horiek herritarren eskura jartzea da gure asmoa. Halaber, hirigunean dauden espazio irekiak aztertuko ditugu, hauek berrantolatu eta berreskuratuko".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Eskoriatza herri bizi eta sortzailea izatea nahi dugu. Zaldibar antzokiaren kudeaketa nolakoa izango den erabakiko dugu, eta,

horretarako, herritarren parte-hartzea eskatuko dugu erabilera publiko bermatzeko. Herritar sortzaileei espazio bat ematea proposatzen dugu. Herriko gazteak ludotekatik pasatzen dira, gaztelekuan 16 urte arte egoten dira eta gero ziklo hori moztu egiten da. Horrexegatik, gazteei kontsumoan oinarritzen ez den aisialdi eta kultura ereduak eskaini nahi diegu. Autoeratu eta auto-kudeatzen diren taldeei laguntza eskainiko diegu, hain zuzen ere".

Euskara

"Eskoriatzak herri euskaldunagoa izan behar du. Eskoriatzaren ezagutza

maila %74 izan arren, erabilera ez da hain handia. Hori arazo moduan ikusten dugu, eta euskararen ezagutza sustatuko dugu. Erabilera kasuan, herriko eragileekin batera, eskolaz kanpoko kirola, musika eskola... bezalako eragileekin euskararen erabilera indartzeko apustua egingo dugu. Berbalagun eta Gurelana proiektuak mantenduko ditugu".

Gizarte ongizatea

"Eskoriatza guztiontzako herri solidario eta bidezkoa izatea nahi dugu. Pertsonen oinarritzako eskubideak bermatuko ditugu. Egoera zaila pasatzen ari diren eskoriatzarrendako Udalak

hartu dituen laguntzak mantentzen eta, ahal den heinean, berriei erantzun ahalik eta hoberean ematen saiatuko gara. Aldi berean, herritarrentzat existitzen diren laguntzez informatzea da gure helburua. Zaharren egoitzaren berregitura proiektuarekin jarraituko dugu, gaur egun egoitzak dituen plaza eta lanpostuak mantenduta".

Kirola

"Kirolaren arloan dauden talde eragileei laguntzen jarraituko dugu. Eskoriatza kirol elkarteak izan da orain arte herriko kirolaren motorra eta euren proiektua aurrera eramateko behar duten laguntza emango diegu. Baina, aldi berean, kenpo, capoeira eta zirkismo taldeak ditugu eta eurekin ere hitz egingo dugu eta behar duten laguntza ematen saiatuko gara. Dinamika parte-hartzaileak eratuko ditugu herriko taldeen beharrei erantzuteko. Kiroldegia eta frontoiak aldatzea sakona behar dutela uste dugu. Behar bezala aprobetxatzen ez diren espazioak eta aldatetako behar dituztenak identifikatu behar ditugu; adibidez, Luis Ezeiza eskolako kantxa eta frontoia. Bidegorria bukatu dezatela exijituko dugu".

"Eskoriatza hipotekatuko ez duen garapena egingo dugu"

"Zaharren egoitzaren berregiturarekin jarraituko dugu"

bildu
eskoriatza

botoa eman

- 1 Beñat Herce
- 2 Arantxa Iregi
- 3 Jose M^o Herce
- 4 Leire Urzelai
- 5 Jose Angel Petralanda
- 6 Itziar Martinez
- 7 Maite Uribetxebarria
- 8 Joseba Errasti
- 9 Xabier Otamendi
- 10 Marisa Fdez. de Arroyabe
- 11 Karmelo Oñate
- 12 Arantxa Ugarte
- 13 Txomin Azpitarte
- 14 Dorleta Urrutia



BERBA BITAN

**AITOR URRUTIA**Eskoriatza.
37 urte.
Langabea.**"Elkarbizitzaren aldeko apustua egin behar da"**

"Euskal Herrian elkarbizitza baketsu eta demokratikoa lortzeko martxa egokia daramagu, eta horren aldeko apustua egiten dugu, baita herri mailan ere. Azken agintaldia ez da alde horretatik onena izan.

Merkataritza baxu ikusten dugu herrian, eta benetako plan bat egin behar da mantendu eta indartzeko".

Aitor Urrutia | EAJko alkategaia**"2009a ezkerro egin gabe dagoen Plan Nagusia egiteko momentu egokia da"**

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA
Lau urtez oposizioan EAJ-ren bozeramaile izan ostean, Aitor Urrutia bigarren aldiz saiatuko da Eskoriatzako alkate izaten.

Hirigintza

"Orain artean, hirigintza etxegintzarekin egon da oso lotuta, baina garai berri baten gaude eta etxegintza bukatu egin da. Egin behar dena da bukatzeke dauden etxeak bukatu; esaterako, Intxaurtxuetako herri sarre-rako etxeen fatxada. Uste dugu etxegintzaren etenaldia aprobetxatu behar dela 2009a ezkerro egin gabe dagoen Plan Nagusia egiteko; momentu ona da aurre-rapausoa eman eta Plan Nagusiaren bitartez datozen 15-20 urteetako Eskoriatza proiektatzeko. San Pedro auzoari berritua eman behar zaio, aurretik Dorletari eta Santa Anari egin zitzaizen moduan; eta Aranburuzabalarekin ere berdina egin behar da. Herria elbarrien-

dako irisgarria izan dadin, herria errebisatu egin behar-ko litzateke".

Ingurumena

"Ingurumenean zaborraren kudeaketa da gakoa, eta, zentzu horretan, gure apustua bosgarren edukiontzia-aren aldekoa da. Atez ateko ereduak ez gaitu konbentzitzen; uste dugu horren aldekoek diotenaren beste birzikla daitekeela bosgarren edukiontzia-arekin. Atez atekoari arazo asko ikusten dizkiogu: batetik, herriaren itxurari dagokionez, zabor poltsak fatxadetan egotea; eta, bestetik, inork ez duela zertan jakin zer botatzen dugun zaborretara".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Azken urteotan antzeman dugu hiru gai horietan patrimonializazioa egon dela, eta denondako kultura egin behar da. Kulturarako toki asko dauz- kagu Eskoriatzan: kultura

etxea, egiten dabilzan Santa Anako auditoriuma, Ibarraundi museoa... Baina ikusten dugu ez dau- dela ondo erabilia, ez zaiela %100 ateratzen herri- tarren, herriaren eta kul- turaren alde. Ibarraundin, esaterako, Eusko Ikaskun- tzarekin proiektu ederra zegoen hitzartuta, agin- taldi honetan baztertu egin dena. Eusko Ikaskuntza instituzio garrantzitsua dela ikusita, guk proiektu hori berreskuratu gura dugu Eskoriatzako eta eskoriatzarron kulturaren alde".

Euskara

"Euskara mailan lan poli- ta eta egokia egin da;

badago euskararen ingu- ruko plana, bere anbizio puntua duena, eta bide horretatik jarraitu behar da. Dena den, pentsatu behar dugu euskararen inguruko eragile guztiok batera nola lortu gehiago erabiltzea. Euskal Herri osoan ikusi dugu gero eta jende gehiagok dakiela euskara, baina erabilpen aldetik apur bat hanka- motz gaudela. Nork bere inguruan lan egin behar duen heinean, Eskoriatzan, plan horretan, erabilpe- naren inguruko hausnar- keta sartu behar da, horren bidez erabakiak hartzeko. Egun %60an bagaude, eza- gutza eta kaleko erabilera gora joateko".

Gizarte ongizatea

"Argi dago egun bizi dugun krisiak premia sozialak dakartzala; Udalean ikusi da babes sozialerako neu- rriak gero eta gehiago eskatzen direla, eta horiek ase egin behar dira. Zehaz- tu behar da zeintzuk diren bakoitzaren eskumenak, baina hori gai zabalagoa da. Zaharren egoitzari dagokionez, 2008ko ekai- naren 3tik aurrera, nola- bait, legez kanpo dago. Gaia mareatzen egon gara: herri kontsulta, negoziazioak zapuztea... Ezerezean gera- tu gara, eta espero dugu bai Udaleko eta baita Dipu- tazioko talde berriarekin Eskoriatzarendako onak izango diren erabakiak hartzea, egoitza nolabait kontsolidatzeko. Izan ere, orain artean inork ere ez du etorkizunari buruzko erabaki garbirik hartu zaharren egoitzaren ingu- ruko etorkizunaz".

Kirola

"Gazteak kirolarekin lotzea garrantzitsua da, baita herriko kirol elkartearekin gauza gehiago partekatzea ere. Kiroldegiaren kudea- ketari buelta bat eman behar zaio, bai udal mailan, eta baita bailara mailan, sarritan gertatzen den moduan Udalarendako kar- ga bat izan ez dadin".

"Gure apustua bosgarren edukiontzia-aren aldekoa da"**"Zaharren egoitza kontsolidatu egin behar da"****ONENA EMATEKO GARAIA**

BERBA BITAN



JOSE LUIS CANTERO

Urretxu.

48 urte.

Abokatua.



"Udala gertukoa izatea da garrantzitsua"

"Bakearen eta euskal herritar guztien adiskidetzaren agintaldia izan daiteke. Maiatzaren 22an herritarrek ematen diguten parte-hartze eta erantzukizun graduarekin egingo dugu lan; Udala gertukoa izatea da garrantzitsua, eta, interes alderdikoen aurrean, herritarren interesei lehentasuna ematea".

Jose Luis Cantero | PSE-EEko alkategaia

"Hirigintzan, etxebizitzaren promozio publikoaren aldeko apustua egiten dugu"

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA
Amaitzean dagoen agintaldian Urretxuko zinegotzi moduan jardun du Jose Luis Canterok. Orain Eskoriatzara dator.

Hirigintza

"Etxebizitzaren promozio publikoaren aldeko apustua egiten dugu. Horren harira, oso positiboki baloratzen dugu orain dela gutxi Eusko Jaurlaritzarekin lortutako hitzarmena, Elorreta ingurunean alokairuzko etxebizitza publikoa egitea helburu duena.

Horretaz gainera, Eusko Jaurlaritzak gaur egun duen Etxebizitza Legearen proiektua ere badago. Ildo beretik doa hori. Etxebizitza eskubidea bermatzea bilatzen du horrek, bereziki gazteen artean. Kontuan izan behar dugu etxebizitzak ez duela bakarrik paperean jasota egon behar, praktikan ere garatu beharrekoa dela. Horren harira, Udalaren eta Etxebizitza Sailaren arteko

harremanak ezarri behar dira, eskubidea guztiz eraginkorra izan dadin".

Ingurumena

"Hirigintza jasagarria bultzatu behar dugu. Kasu horretan ere ez du legez aitortuta dagoen zerbait izan behar, eraginkorra baizik. Langabeziarekin lotutako arazoak egonda ere, beti arduratuko gara kutsadura eta antzeko gaiez. Garapen industrialak eta teknologikoak ingurumen neurriekin bateragarriak izan behar dute".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Udaletik sortzen diren kultura ekitaldiak lagunduko ditugu. Garrantzitsua da gure herrialdeko kulturaren garapen egokia egitea, eta behar diren akordioak lortzea. Horretarako, askotan, beste udalekin ez ezik, Eusko Jaurlaritzarekin ere akordioak lortu beharko ditugu, banatzeko baino koordinaziorako eragile

moduan jardun dezan gure herrialdeko kulturaren alorrean".

Euskara

"Ekimen guztiak EAEko hizkuntza koofizial guztietan garatuko dira; hain justu ere, euskaraz edo gaztelaniaz. Eskubide berak izan behar dituzte biek. Dena dela, hasiera baten, euskara egotza txarragoan dagoenez, batzuetan hizkuntza horri lehentasuna ematen dioten bestelako neurriak garatuko ditugu; ahaztu barik herrialde honek duen hizkuntza aberastasuna. Azken hori zaindu egingo dugu.

Euskarazko literatura eta musika sustatuko ditugu, dagozkien dirulaguntze-

kin. Euskarazko lanen merkatua txikiagoa da, eta, hortaz, erakundeek laguntza izan beharko dute garatzeko".

Gizarte ongizatea

"Guretako funtsezkoa da gizarte ongizatea. Gizarte zerbitzu indartsuak egon behar dute; hain justu ere, gizarte larrialdietarako laguntzak, bereziki okerrago dauden beste hainbat herritatik etortzen diren lagunei begira. Aurrerapausoak eman badira ere, emakumei eta gazteei ere zuzenduta eongo dira zerbitzu horiek.

Udaleko Gizarte Ongizate batzordean gogor egingo dugu lan, gizarte-esklusio

egoeran edo pobrezian dauden bizi izateko oinarriak den guztia izan dezaten. Etxez etxeko laguntza zerbitzuak sustatu behar dira, eta horretara bideratzen den diru-kopurua handitu. Berdin Dependentsia Legearekin. Espainian onartu bada ere, horren garapena askotan gizarte-laguntzaileei dagokie; hortaz, udalek eta autonomia erkidegoek zeresan handia dute azken horretan. Alde ederra dago hor ezkerreko eta kontserbadorreagoak diren alderdien artean. Azken horiek dirulaguntzak murrizten ari dira gaur egun".

Kirola

"Kirol gertaera handiak ez dira garrantzitsuak: olimpiadak, mundialak edo Europako txapelketak. Kiroltik haratago doazen ekimenak dira; ikuskizun eta enpresadako etekin ekonomikoak lortzeko negozio bilakatzen dira. Herri mailan, oinarriko kirola bultzatu behar dugu: futbola, saskibaloia edo baliabide ekonomiko gutxi dituzten herri kirolak. Amateur mailako oinarriko kirola bultzatuko dugu. Esan bezala, oso garrantzitsua da herri kirolak sustatzea. Gure herrialdeko berezitasun bezala bultzatu behar dugu, sozialki eta ekonomikoki".

"Euskarazko literatura eta musika sustatuko dugu"

"Gogor egingo dugu lan Gizarte Ongizate batzordean"

Juan Luis Merino | Ezker Batua-Berdeetako alkategaia

"Etxebizitza sozialen alde egingo dugu, eta arau subsidiarioak eguneratu"

OIHANA ELORTZA | ESKORIATZA
San Juan egunean 47 urte egingo ditu Juan Luis Merinok. Eta 47 urteotatik ia erdiak eman ditu politikagintzan, 1990a ezker dago -eta Espainiako alderdi komunistara afiliatuta; are gehiago, alderdiko batzorde federaleko kide da, Madrilen. Hortik eratorrita da gure ibarreko Ezker Batuko koordinatzaile, gaur egun. Pertsonen arteko berdintasuna da haren kezketako bat.

Hirigintza

"Gure planteamendua da etxebizitza sozialak eta arau subsidiarioen berridazketa. Eguneratu beharko lirateke, 2002koak baitira, eta ia agortuta daude.

Etxebizitza sozialen aldeko politikak egingo ditugu, baina inoiz ez detsitate baxukoak. Gure apustua da alturako etxebizitzaren aldekoa, iraunkortasunagatik. Bestetik, San Pedro auzuneaz-eta hautes-

kunde guztietan egiten da berba, baina inoiz ez da inoiz egiten. Eskola publikoaren ingurua berritu behar da, eta nahiko eskas dago Aingeru Guardako ingurunea ere. Horiek dira ardatzak, xehetasun gehiago ere badauden arren".

Ingurumena

"Ezker Batua-Berdeek beti egin dute ingurumenaren eta jasagarritasunaren alde. Baita Eskoriatzan ere. Agenda 21 lokala eta eskolakoak ere berriz hartu beharko lirateke.

Udalari dagokionez, eta konkretuki obra eta zerbitzuei, ur-ihesak kontrolatu beharko lirateke. Bestetik, energia alternatiboaren gaian

sakondu beharko litzateke eta Eskoriatza ingurua zaindu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Gazteengan zentratu behar dugu gehiago. Asteburu oro jendea kanpora doa. Asteazken zehar zerbait egiten da, baina asteburuetan ez dago aukerarik. 18 urte inguruko jendearendako ez dago gaztetxerik eta ez dute parterik hartzen herrian. Bilerak egin behar-lakoa ere berriz hartu beharko lirateke.

Elkartasuna lantzea ere ona litzateke, elkartasunaren kultura txertatu. Ludoteka eta gaztelekuaren zerbitzuak zabaldu egin beharko lirateke. Esan beharra

dago, berez, arlo honetan ez doazela gauzak gaizki, eta jarraitu egin beharko genuke hasitako bidean".

Euskara

"Ezker Batua-Berdeok urte askoan daroagu udaletxe honetan normalizazioaren alde lan egiten eta baita ekintzetan laguntzen ere. Euskara Departamentuan lan egiten da eta egiten diharduena positiboa da. Ildo horretan jarraituko dugu gure eta normalizazioaren alde erabilpenaren lagunduko dugu gure alderditik".

Gizarte ongizatea

"Gai potoloa da. Krisi egotza honetan, 203 langabe ditugu gaur egun Eskoriatzan; %11 edo %10,5 inguru da langabezia tasa. Partidak handitzea planteatzen dugu gure eta jende hau aintzat hartzea, laguntzea. Erresidentziaren gaia garrantzitsua da eta behar bezalako oinarriak gabe itxi da gaia,

BERBA BITAN



JUAN LUIS MERINO

Eskoriatza.

46 urte.

Langilea.



Ezker Batua Berdeak

"Ongizatearen alde egingo dugu gure"

"Botoa eskatzen dugu Ezker Batua-Berdeendako, ezkerreko den alderdi bakarra delako, euskal ezker federalista bakarra. Hiritarrei esan gura diegu borroka egingo dugula langabeziarik egon ez dadin, baita denon ongizatearen alde ere. Herriko bizikidetasunaren alde ere egingo du gure alderdiak".

Ezker Batua-Berdeek ustez. Partxe hutsa izan da. Guk proposatzen duguna da Aldundiarekin gaia lantzea berriz.

Berdintasun politiketan, berriz, aurrerakoiak izan gara eta emakumeen aurkako tratu txarrik egon ez dadin egingo dugu lan".

Kirola

"Kiroldegi handia dugu hortxe bertan, ederra benetan. Ekipamendu guztia berritu behar da, hala ere, zaharkituta dago-eta. Hori segituan egin beharko litzateke.

Azpi kontrataziorik ez dugu gure egingo kirol zerbitzuetan. Guk planteatzen duguna da zerbitzu hori municipalak izatea. Kirol teknikari bat kontratatzea eta hark kudeatzea hemen egingo diren kirol jarduerak guztiak. Daukagun pertsonalarekin nahikoa genuke, eta, dirua aurrezteaz gain, Udalak berak emandako zerbitzu bat litzateke. Hori da gure apustua.

Bestalde, kirol elkarteak aintzat hartu eta lagundu behar da. Baita diruz ere, orain duena baino dirulaguntza handiagoak emanda. Borroka egingo dugu hori lortzeko.

Horretaz guztiaz gain, oinarriko kirola sustatuko dugu, eta eskola kirola".

"Eskola publikoaren ingurua berritu behar da"

"Kiroldegiko ekipamendua berritu behar da segituan"

BERBA BITAN


**IÑAKI
MADINABEITIA**

Eskoriatza.
64 urte.
Erretiratua.


**"Udala bidera
dezatela nahi
dugu"**

"Udal gobernagarria egiten laguntzeko asmoz aurkezten gara. Ez da talde bati babesa ematea edo ez, Udala bidera dezatela nahi dugu, Eskoriatzara eta elizateetara begiratuta. Arlo horretan egingo dut lan. Elizateak ezberdinak dira, eta ez dut uste ezberdintasunik egon beharko lukeenik".

Iñaki Madinabeitia | Elizateetako alkategaia

"Ingurumenarekin beste erlazio batean bizi izaten jakin beharko lukete kalekoek"

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Iñaki Madinabeitia mendiolarra da Elizateetako zerrendaburu. Aurretik ere Udalean egondakoa da, 1987tik 1991ra bitarteko agintaldian Elizateetako zinegotzia izan zen.

Hirigintza

"Errealitate bat da azkeneko krisialdia dela eta guztiz aldatu beharrean gaudela. Lehendik zeuden planak berri beharko dira; ez bakarrik plan zehatzak, baita planteamenduak ere. Gauza ez da etxeak egitea, beste bizitoki bat egitea komeni da. Gauza sakona da hori, ezingo da urte baten edo bitan egitea".

Ingurumena

"Modan dagoen zerbait da. Baserritarrendako zaintzen dugun errealitatea da, Eskoriatza udalerriko %80 gutxienez gure eskuetan dago. Hortaz, beste inork baino gehiago dakigu baserriarrok.

Hortik aparte, ekologismoari dagokionez, parke naturala, AP-1 autobidea eta trena daude. Ingurumena hori baino sakonagoa da, eta beste planteamendu bat egon beharko litzateke. Kanean bizi diren eskoriatzarrek jakin beharko lukete ingurumenarekin beste erlazio batean bizi izaten; hori poliki-poliki egin beharko litzateke".

**Kultura, aisialdia,
gazteak**

"Kultura eta aisialdia lotuta doaz. Uste dut kultura aldetik Eskoriatzan proiektu politikak lantzen direla, aukera gehiago badaude ere. Dena dela, ohiturak galtzen gabilta; esaterako, auzo eta elizateetako errealitate asko dagoeneko galduta daude.

Gazteen gainean esan beharra dago oso gutxi dardela; zer esanik ez baserrietan. Horrek beste dinamika bat eskatzen du. Dena dela, niri ez eskatu kultura, aisialdi

edo gazteekin lotutako gauzak muntatzea; interesa dutenak mugi daitezela, denondako aukera egongo da eta".

Euskara

"Oso labur: nire asmoa da euskaraz bizi izatea, besterik ez".

Gizarte ongizatea

"Krisialdian dagoen kontzeptua da hori ere. Planteamendu guztiz ezberdinak

egin behar ditugu. Ezin genezake orain arteko kontsumismoan kokatu ongizatea, beste hainbat balio eta errealitate bultzatu behar ditugu. Horretarako ezin dugu bultzatu kontsumismoa eta ongizatea; lan asko egin behar da horren gainean. Azterketa sakona egin behar da; hori eskatuko nioke jendeari.

Horretaz gainera, zerbitzu sozialen kontzeptua

**"Kultura aldetik
Eskoriatzan
proiektu politikak
lantzen dira"**

**"Ezin genezake
orain arteko
kontsumismoan
jarri ongizatea"**

**"Nire asmoa
da euskaraz
bizi izatea,
besterik ez"**

**"Hirigintzan
beste bizitoki
bat egitea
komeni da"**

guztiz ezberdina da. Hori beste errealitate bat da, ni ez naiz hor sartzen. Orain arte lortutako zerbitzu sozialak kentzen dabilta poliki-poliki politikariak; horiek ere zaindu beharrean gaudela iruditzen zait".

Kirola

"Hiru tarte mota berezituiko nituzke nik, adinaren arabera banatuta daudenak. Bakoitzak kirol mota bat egiten du. Umetxoena erraza da; ikastolan daude eta horren bitartez bideratuta dute. Horren harira, ez dakit norainoko plana dagoen zaletasuna bultzatzeko. Hori zaindu beharrekoa da.

Gazteei dagokienez, lehen esan dudan moduan, zorritzarekin, gero eta gutxiago daude Eskoriatzan; elizateetako egoerari buruz ez dut ezer esaten. Hortaz, lan egin behar dugu arlo horretan, oso garrantzitsua da. Koadrilatxo batzuk badaude lan egiten dutenak, polita izango litzateke horiek bultzatzea.

Azkenik, helduak edo pertsona nagusiak daude. Guztiz desberdina den taldea da hori, planteamendu eta kirol mota ezberdina lantzen duena. Besteek bezala, horiek ere eskubidea dute euren kirola praktikatzeko".

Elizateak ere herriko partaide!



eman
botoa

eskoriatzako
elizateen
olkartea



BERBA BITAN



INMA BERISTAIN

Azkoitia.

56 urte.

Etxeoandrea.



"Elkarlanean guztiok herri bat eraikiko dugu"

"Daukagunetik hasita, guztion artean elkarlanean proiektu garrantzitsuak aurrera aterako ditugu, guztion beharrak hobeto aseko dituen herri bat eraikitzeke. Herrian, herriarentzat, herritarrok herritarrontzat da gure filosofia. Horri jarraituz, ekarpenume baina ausarta egingo diogu herriari".

Inma Beristain | Bilduko alkategaia

"Antzuola leku atseginagoa bihurtuko dugu, bertoko baliabideak erabilita"

ASIER ALKORTA | ANTZUOLA

Antzuolako bertako baliabideak erabiltzea hobekuntzarako bidea dela dio Inma Beristainek. Elkarlana bultzatuz eta egoera larrienei lehenetasuna emanez, herriak eta herritarrek proiektuak aurrera ateratzeko gaitasuna dutela gaineratu du.

Hirigintza

"Herritar guztioi dagokigu gure herria zaindu eta sortzea. Hori dela eta, unez unez sor daitezkeen gai zehatzen aurrean, herritar orori irekitako batzorde propioak eratuko ditugu. Ildo berean, Udalak herrian dituen lokalen erabilera antzuolarron beharretara ahalik eta ondoen egokitzeko parte hartze prozesua burutuko dugu. Ecocenter bezalako guneak ere bultzatuko ditugu. Antzuola bizi izateko leku atsegina da, eta, oraindik atseginagoa

izan dadin, ditugun baliabideak erabiliz, guztioi dagokigu hobekuntza horretan parte hartzea".

Ingurumena

"Zero Zabor filosofian sakonduko dugu. Izan ere, ingurumenaren aldeko politikak munduari eta gure etorkizunari egin diezaiekegun ekarpenik baliagarriena dira. Natura baliabideak errespetuz erabiliko ditugu, bertoko basoen berreskurapena garatuta, energia kontsumo murrizten saiatuta... Errauskailuak dakarzkigun osasun zein eragin ekonomiko larrien aurrean, eta errauskailua Gipuzkoan nahitaezkoa dela diotenen aurrean, errauskailua ez dela beharrezkoa erakutsi nahi dugu. Jadanik, Antzuolarrak ari gara mundu mailako ingurumen arazo honi herri mailako irtenbidea ematen, eta oraindik gehiago sakondu nahi dugu".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Antzuolarrak alor honetan ere sortzaile eta parte-hartzaile izan behar dugunez, herriko sorkuntza lanak eta kultura ekintzak bultzatzen jarraituko dugu. Horretarako, udalbiltzan parte hartu eta Aiherrarekiko senidetzean sakonduko dugu. Gainera, orain arte bezala, nazio eraikuntzari gure ekarpena egiten jarraituko dugu".

Euskara

"Antzuolan euskararen erabilera oraindik gehiago indartzeko dauden aukerak aztertuko ditugu. Era berean, herri euskalduna garenez, UEMako kide izaten eta

bertan parte hartzen jarraituko dugu. Bide horretatik, Euskal Herri euskalduna eraikitzeke lan egingo dugu".

Gizarte ongizatea

"Mugikortasun plana garatuko dugu, besteak beste, herri barruko zein herritik kanporako joan-etorriak erosoagoak izan daitezen. Ezinduentzako oztopo diren guneak identifikatuko ditugu, ondoren beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko. Era berean, garraio zerbitzu publikoa indartzen saiatuko gara. Horrela, Debagoieneko herri guztiak maiztasun egokiaz eta denbora laburrean lotuko dituen garraioa izatea ahalbidetu nahi dugu,

ingurumena zainduta eta jasangarritasuna ziurtatuta. Antzuolatik harago, Abiadura Handiko Trena bezalako azpiegiturak bultzatzen dituen ereduaren aurrean, herritarrontzat baliagarriagoa den hurbileko garraio publikoa bultzatuko dugu. Mankomunitateak ere bere funtzioa edukiko du. Izan ere, elkarren artean oso gertu dauden zortzi herri osatzen dugu Debagoiena, eta, ondorioz, gai batzuk elkarrekin landuta, asko dugu irabazteko. Elkarlan horretan Mankomunitatea tresna egokia izango da. Zortzi herriak lotzeko garraio publikoaren proposamena bezala, beste hainbat gai bertatik, Mankomunitatetik jorratu beharko dira. Hiltegia indartzeko lanak ere hor kokatzen ditugu. Gure ikuspuntutik hau da bide egokiena nekazaritza eta abeltzaintza bultzatzeko. Horrekin ingurumen eta nekazaritza-eremu zainduagoa lortuko dugu eta herritarrek, berriz, elikagai soberania lortzeko aukera edukiko dute. Bide horretatik, garapen agentziak ematen dituen aukera guztiez baliatuko gara: enplegu arloko programa desberdinak abian jartzeko, aisia eta turismoa garatzeko eta bultzatzeko eta baliabide giza-sanitarioak lortzeko, besteak beste".

"Nazio eraikuntzari ekarpena egiten jarraituko dugu"

"Errauskailua beharrezkoa ez dela erakutsiko dugu"

Maria Eugenia Arrizabalaga | EAJko alkategaia

"Lurzoru publikoaren politika eraginkorra ezartzea beharrezkoa izango da"

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA
Arrizabalaga EAJko alkategaia Antzuolako dituzten proposamenen berri eman digu.

Hirigintza

"Gaur egun Antzuolako Udalak daukan egoera ez da batere oparoa. Oso aurrezpen gaitasun murrizta dauka, eta horrek baldintzatuko du inbertsioetarako gaitasuna. Aztertu beharra daukagu antzuolarrak, eta batez ere gazteek, daukaten etxebizitza beharra, eta daukaten beharren arabera erantzuten asmatu behar dugu. Eta horretarako ezinbestekoa izango da lurzoru publikoaren politika eraginkorra martxan jartzea. Momentu honetan Antzuolak ez dauka metro karratu bat bera ere bere jabetzarako. Horrez gain, industrialdeekin ere zerbaitekin egin beharra dago. Ezin gara beste aldera begira geratu bertako enpresek alde egiten duten bitartean.

Bi ardatz horiek izango dira nagusiki hirigintza estrategiko baten oinarri".

Ingurumena

"Ingurumenaren ikuspegitik, momentu honetan aplikatzen dira Antzuolan bi azpiegitura erraldoiren obrak. Horiek eragin zuzena dute inguruan eta ezin dezakegu ez ikusiarena egin. Guretzat ez du balio kontra gaudela esateak, baizik eta Udaletik eragiten jakin behar da eta alternatiba eta hobekuntzak asmatu, behar den heinean. Horretaz gain, landa eremuei ere begiratu behar diegu, eta arreta berezia jarri, ingurumen ikuspegitik eta bai-

ta baserrien ikuspegitik ere. Bestalde, atez atekoaren bilketarena daukagu. Gure ustez, diagnostiko serioa egin behar da, zenbakiak egin behar ditugu zabor bilketaren eragin-kortasunak alde batetik eta bestetik daukan kostua neurtzeko. Gure ikuspegitik akaso sistema garestia delako eta gauza guztien aurretik iraunkortasuna bermatu beharra daukagulako, betiere antzuolarraren iritzia kontuan hartuta".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kontu guztietan antzuolarraren iritziarekin kontaktua ezinbestekoa baldin bada, esango nuke kultura

jardueran, kale bizitzan, aisialdian eta jaietan, beste ezertan baino beharrezkoagoa dela herritarren esanetara egotea. Herritarrek dira ekintzak proposatzen dituztenak. Udalak egin behar duena da baliabideak jendearen esku jarri, teknikoak, eta beharrezko diren dirulaguntzak. Gazteriari dagokionez, bada-kigu gaztetxe berria egiteko proiektua dagoela. EAJ Udalean egon zenean proposatutako ekimena eta oraindik gauzatu ez dena eta geure egiten duguna berriz ere. Kontua da finantzazioa bilatu beharko dugula proiektu hori gauzatzeko".

Euskara

"Ez da kale neurketarik egin behar Antzuola herri euskalduna dela sumatzeko. 2006ko datuen arabera, antzuolarraren %86 euskaldun peto-peto edo ia euskaldunak ziren. Gure arazoa da ezagutza mailatik erabiltzen

BERBA BITAN



MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA

Zumaia.

44 urte.

Legebiltzarkidea.



"Herriaren eta herritarren alde egingo dugu"

"Apaltasun osoz eta herriari begirune osoz natorkizue.

Daukaguna emateko prest gaude, betiere Antzuolako herriaren eta herritarren alde. Mezu politikoari dagokionez, guk bi oinarri ditugu: bakea behin betiko lortzea eta Euskal Herriari dagokion erabakitzeko eskubidea Antzuolatik ere lantzea".

mailara dagoen saltoa, eta tarte hori txikitzen saiatu beharra daukagu. Horretarako, Udalak aitzindari eta eredugarri izan behar du, udal barruko normalizazioz hasi eta kale erabileran eragitera".

Gizarte ongizatea

"Gure helburu izan behar du justizia soziala lortzea, batez ere krisi garaian. Horretarako, Antzuolan beharretan daudenei euren beharra asetzen saiatu behar dugu, ezin gara geratu inor bazterrean utzita. Baina politika sozialak ez dira Udalarenak bakarrik, badaude beste erakunde batzuk eskumeneko direnak eta inplikatu egin behar dutenak. Guztien artean politika sozial eta iraunkorra lortu behar dugu".

Kirola

"Antzuolan kirol jarduera indartsua dago. Udalak horretan laguntzaile izan behar du, azpiegiturak egon badaude. Aurrerantzean mantenu egokia beharko dute eta hori izango da Udalaren ardura zuzena. Bestalde, igerilekuaren proiektua dago. Gu geu ez gara ausartzen hori agintzera Udalaren egoera ekonomikoa ikusita. Baina aztertuko dugu".

"Udalak baliabideak jarri behar ditu denen esku"

"Gure ustez, akaso, atez atekoa sistema garestia da"

BERBA BITAN



CARLOS URRESTARAZU

Donostia.

55 urte.

Gerentea.



"Udal politika egiteko nago ni hemen"

"Gu ez gatzoz hona politika global, estatal edo autonomikoa egitera; ni udal politika egiteko nago, herritarrengandik gertu egoteko, haien galderak erantzuteko; nire telefonoa eta nire bulegoa beti egongo dira irekita.

Nahi dut herriko jendea ohar dadila eurak direla guretzako inportanteena".

Carlos Urrestarazu | PSE-EEko alkategaia

"Hirigintzak izan behar du Antzuolako bizilagun guztien premien arabera"

JULEN IRIONDO | ANTZUOLA

Hirigintza "jasangarria" egin beharra azpimarratzen du Urrestarazuk; eta euskarak ezin duela arma politikoa izan ere bai. Gizarte ongizateari dagokionez, Udalak orain arte lan ona egin duela eta hortik jarraitu behar dela dio.

Hirigintza

"PSE-EEk argi du Antzuolako gura duen hirigintza dela, lehenengo eta behin, jasangarria; bigarrenik, arrazionala; eta jasoko dituen Antzuolan bizi diren pertsona guztien beharrak. Garrantzitsuena da hirigintzak kontuan hartzea hemen bizi den jende guztia, eta hemen bizi den jendea eroso egon dadila hirigintza horrekin".

Ingurumena

"Ingurumenari dagokionez, jasagarritasuna topatu behar dugu. Inguru guztia zaindu behar da, eta planteatu Antzuolan bizi den

oro jakitun izatea zein den bere lana ingurumen hori zaintzeko; horretarako, lan egin dezagula guztiok eta denok egin dezagula ekarpena herrian ingurumenaren onerako eta jasangarriago izan dadin".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kultura altxorra da PSE-EErentzat. Kulturak izan behar du kohesiorako, batasunerako tresna. Eta baita pertsona ororen hazkunderako tresna. Kultua izatea, irakurtzea, entzutea... batez ere entzutea, toleratzea, oso da inportantea. Hori da kultura: kultura da hizkuntza, hizkuntzak kasu honeitan, baina batez ere da denon artean elkar ulertzen jakitea, tolerantziaren kultura, entzuten jakitearen kultura, patxadaren kultura. Kulturak zerikusi handia du gaztediarekin, ze gazteei egon behar baitu zuzenduta bereziki kulturak. Gazteek lana lortu behar dute; lan egin

behar dugu gazteek enplegua lortzeko, herrian edo kanpoan, euren bizitzako gastuei aurre egiteko gai izan daitezten. Eta aisialdia, berriz, horixe da, aisialdia. Zertarako erabili behar da aisialdia? Ahal bada, hobeto formatzeko, hobeto formatzeko eta maite dituzun pertsonekin denbora pasatzeko".

Euskara

"Euskara altxorra da; gorde beharreko altxorra, hazten lagundu behar zaion altxorra. Baina esango nuke, eta zentzu osoarekin esango dut, inoiz ez duela izan behar arma politikoa. Euskara erabiltzen bada arma politikoko moduan jendea bana-

tzeko, inoiz ez gara joko horretan egongo, borroka horretan egongo. Nire seme-alabek euskaraz egiten dute, nik ezin izan nuen ikasi eta ez dakit astirik izango dudana, baina saiatzen naiz etxean gero eta hobeto egin dezaten eta kultuagoak izan daitezten euskarari dagokionez; baina politikoki inoiz ez dut ez euskara ez gazte-lera erabiliko inoren kontra egiteko. Euskara zaindu egin behar dugu denon artean, hazten lagundu eta bihur dadila izan behar duena, oso hizkuntza garrantzitsua".

Gizarte ongizatea

"Nik dakidanez, eta udalbatzako nire kideek esan

didatenagatik, gizarte zerbitzuek oso ondo funtzionatzen dute Antzuolan. Nik horrek ondo funtzionatzen jarrai dezan lagunduko dut, noski; eta azpimarratu nahi dut PSE-EE gai izan dela ongizate estatuen laugarren zutabea indartzeko, Dependentsia Legea alegia; eta hortik jarraituko dugu. Jarraituko dugu gizarte ongizatea bultzatzen, saiatuko gara diru gehiago bidera dadin gizarte ongizatera eta orain bezala Antzuolako Udalean gizarte ongizatearen arlo garrantzitsuenetakoa izaten jarrai dezan".

Kirola

"Badakit kirola oso inportantea dela Antzuolako Udalarentzat eta herritarrentzat. Ni alkate izanez gero ez dio garrantzitsu izateari utziko, guztiz kontrako; hor egongo da gero ere klubei emango zaien laguntza. Egia dena da PSE-EE nahi dugula kirola izatea osasunerako tresna. Jendeak egin dezala kirola gozatzeko, eta hortik joko dugu. Orain artekoek ere babesa jasoko dute, baina saiatuko gara jende gehiagok egin dezala kirola eta kirol osasuntsua egin dezala jendeak, osasun hobea izateko".

"Euskara da altxorra; ezin da arma politikoa gisa erabili"

"Saiatuko gara diru gehiago bideratzen ongizatera"

DOZKATU EAJ PNV

Antzuola



ONENA EMATEKO GARAIA

BERBA BITAN



RAMON AJURIA

Arrasate.
48 urte.
Enpresaria.



"Herritik Udalera eta Udaletik herrirako lana"

"Herritik Udalera eta Udaletik herrira egingo dugu lan. Lanerako ilusio handia daukagu, Aramaio ezkerretik lantzen jarraituko dugu. Azken lau urteetako lana oso ondo ikusten dugu eta bide horretan segiko dugu. Herrian sinesten dugu eta herria bizirik mantendu gura dugu. Horregatik eskatzen dugu botoa".

Ramon Ajuria | Bilduko alkategaia

"Herrian sinesten dugu, herritik Udalera eta Udaletik herrira egingo dugu lan"

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO Politikagintzan berria bada ere, "gogoz eta ilusioz" ekin dio Ramon Ajuriak Bilduren Aramaio alkategai izateko ardurari.

Hirigintza

"Eroso bizi izateko herria eraikitzen jarraituko dugu. Hala, Plan Orokorra onartu eta etxebizitza multzo berriak zehaztuko ditugu. Etxebizitza sozialak dira gure apustua, bereziki gazteei begira. Udalak jarriko ditu etxebizitzaren prezioak, herritarren beharren arabera.

Bestalde, bidegorri sarea handitu gura dugu. Gesalibar eta Ibarra arteko bidegorria egokitzea da gure asmoetako bat, baita Oleta eta Otxandio arteko bidegorria ere.

Horrez gain, kiroldegia berritzea da aurreikusten dugun beste proiektu bat, behar handia dauka-eta. Aurrez Diputazioan aurkeztutako proiektuari hel-

du eta beste bultzada bat emango diogu, ea dirulaguntza lortzen dugun".

Ingurumena

"Herriko baliabide naturalak erabiliz energia berriztagarrien -biomasa, ura eta haizea, besteak beste- aldeko apustua egingo dugu eta herriari eragiten dioten azpiegitura erraldoien aurrean -AHT eta goi tentsioko linea, esaterako- kontrako jarrera irmoa izango dugu. Gainera, gure basoei ustiapen bideragarria ematea izango da beste erronketako bat.

Bestalde, gure errekek garbi mantentzeko bi aukera aurreikusten ditugu: Debagoieneko araztegiarekin kontaktuan jarri eta gure urak eurenkin batera garbitzea edo araztegi propioa eraikitzea".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Aramaio alkategaia oso aberatsa da. Hor ditugu,

besteak beste, Torralde, Murugaineko asentamenduak eta 36ko gerraren aztarnak. Gainera, Aramaio alkategaia Berreskuratzeko Taldea -AOBT- indartu gura dugu, oso proiektu interesgarria dela uste dugu -eta. Herriko ondareak garrantzi handia dauka, gure ustez, eta hori mantentzeko talde horrengan konfiantza osoa dugu.

Gazteei dagokienez, azken urteetako dinamika helduko diogu. Hau da, harreman zuzena izan gura dugu eurekin, eta proiektu ezberdinetan elkarlanean aritu. Gainera, azken urteetako dinamika jarraituz, herriko elkarte ezberdinekin harreman zuzena izateko

oso garrantzitsua dela deritzogu".

Euskara

"UEMAN parte hartzen jarraitzea oso garrantzitsua da, gure ustez.

Euskaraz ez dakitenak integratu eta horren ezaugarria bermatzeko bideak ezarriko ditugu. Euskal Herria eta euskara aintzat hartuko dituen hezkuntza eta jendarte eredu bultzatuko dugu. Hezkuntza talde bat eratuko dugu".

Gizarte ongizatea

"Herritar guztion beharrak ezagutu eta asetzen saiatuko gara eta aramaioar guztion bizi-maila hobetzea izango da azken helburua. Izan ere,

"Etxebizitza sozialak dira gure apustua, gazteei begira"

"Herritar guztion beharrak ezagutu eta asetzen saiatuko gara"

ongizateak arlo asko hartzen ditu bere gain: etorkinak, adineko jendea, gazteak, emakumeak, langabeak... Guztion alde egingo dugu lan.

Hala, ongizate eta emakume arloei bultzada berezia emango diegu. Izan ere, bi arlo horiendako batzorde berezituak sortzea da gure asmoa. Esate baterako, Berdintasun Plana martxan jarri gura dugu. Gainera, hirugarren adinekoendako eguneko zentroa zabaldu izana albiste pozgarria da. Hala ere, zaharren egoitza berria irekitzeko gogor egingo dugu lan".

Nekazaritza eta auzoak

"Batez ere lehen sektorea da indartu gura duguna. Aramaio Baserri Barri ikusten dugu Aramaion lehen sektorea bultzatu eta mantentzeko motor moduan eta egitasmo horri eutsiko diogu. Lehen sektoreak Aramaion merezi duen lekua berreskura dezan egingo dugu lan, salmenta zuzena bultzatuta.

Aramaion 13 auzo daude eta horiei guztiei garrantzia eman gura diegu. Izan ere, uste dugu Aramaion auzoen parte-hartzea ezinbestekoa eta beharrezkoa dela. Azken finean, gakoa da auzotarrak herritar sentiaraztea. Auzo-alkateen batzordearekin lanean jarraituko dugu".

Iñaki Nafarrate | EAJko alkategaia

"Auzoetako azpiegiturak osatu behar dira eta Legutiorako bidea hobetu"

JON BEREZIBAR | ARRASATE Zerrendetan aurkeztu den gazte kopurua ikusita pozik dago Nafarrate; nahiz eta euren zerrendetan hainbeste ez egon, "inplikazioa" erakusten duela dio. Aurretik alkate moduan eginiko 8 urteetan emandako konfiantza eskaintzera dator EAJko Aramaio alkategaia. Herria "erdi hilik" ikusten du eta alkate izanez gero egoera horri buelta eman gura dio. Diputazioan eginiko lanarekin Arabako antzeko herrietako egoera gertutik ezagutzea lortu duela dio, eta, ikusitakoarekin, Aramaio hobetu gura du. Pertsonen arteko harremanetan oinarritzen du bere jardun politikoa.

Hirigintza

"Lehenik eta behin, Plan Orokorra onartu beharra dago, ze lau urteko atzerapena baitauka, eta ezinbesteko tresna da. Plan Orokorra 2007ko azaroa ezker beharko luke onartua.

Urte hartako irailean eskatu zen atzerapena eta oraindik onartu gabe jarraitzen du. Nagusiki, industrialde baten beharra ere ikusten dugu bertan sortutako ekimenak kokatu ahal izateko edo kanpora joan ez daitezkeen. Auzoetako errepideak eta Aramaiotik Legutiorainokoa konpondu eta zabaldu beharra dago. Auzoetako azpiegiturretan lan egin beharra dago, ze 2008ko

"Plan Orokorra onartu beharra dago lau urteren ondoren"

"Babes ofizialeko etxeak egiten jarraitu beharra dago"

dirulaguntza batzuk baitaude, eta obrak oraindik egiteko daude".

Ingurumena

"Herriko hondakinen arazo birpentsatu behar dugu. Araztegi bat behar da, edo horren orde saneamendu guztia Gesalibarreraino eroan eta han Debagoieneko sarearekin lotu. Mendietan eta basoan ere asko dago egiteko. Basoak kudea-

"Hondakinen arazo birpentsatu beharra dago"

"Erretiratuen egoitza kokatu eta proiektua landuko dugu"

tzeko plana egin zen bere sasoiaren eta horri bultzada eman behar zaio".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Babes ofizialeko etxebizitzak banatuta daude orain hamar urteko gure ekimen bati esker, baina gai honek ez du geldirik egon behar eta etxe gehiago egin behar dira, gazteei prezio oneko etxebizitzak eskaintzeko. Gazteekin akordio zubiak eraiki nahi ditugu, bi aldeetatik ahaleginduta. Ezin ditugu gazteak isolatu, baina eurek ere konpromisoak hartu behar dituztela uste dut. Kulturari ahalik eta eskaintzarik onena kudeatzeko egingo dugu lan. Bultzada beharra sumatzen da, ze nahiko makal baitabil herria kultura mailan".

Euskara

"Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari helduko nioke. Nik kanpoan eman ditut azken urteak eta

BERBA BITAN



IÑAKI NAFARRATE

Aramaio.
59 urte.
Foru diputatua.



"Herritarrei entzun egin behar zaie"

"Esperientzia, urte askotako konfiantza, lana eta ilusioa eskaintzen ditugu. Urte asko eginak ditugu aurretik udaletxean eta horrek konfiantza eta bermea ematea gura dugu. Guztia gure guretzat garrantzitsua herriari entzutea da, arazoak konpontzeko lehenengo gauza ezinbestekoa dena".

zehazki ez dakit zein puntura arte bete den esandakoa, baina egitasmo hori bultzatzen jarraituko dugu. Garrantzitsua da puntu hau".

Gizarte ongizatea

"Aramaion Gasteiztik dirulaguntzak lortu ditugu eguneko zentroa martxan jartzeko, nahiz eta bi urteko atzerapenarekin, eta orain dela hiruzpalau hilabete jarri genuen martxan. Zortzi plaza zeuden eta ia bete da daukagu etxea. Argi dago, beraz, eskaintza zabaldu egin behar dela, plaza gehiago sortu eta, baita ere, noski, erretiratuentzako egoitza bat aurkitzea. Kokapena aurkitu eta proiektua lantzea da gure nahia, Aramaio alkategaia erretiratuek inora joateko beharrik izan ez dezaten".

Kirola

"Arlo hau Aramaion zehaztu barik dago. Frontoi inguruan kokatu beharra dago kirolgune bat, ikastolarekin batera. Kirola eta aisialdia batera uztartuta, gustatuko litzaiguke jendea kirola eginez Aramaio alkategaia ezagutu eta disfrutatzea. Horrelako ekimenak sus-tatuko genituzke. Bide ederak daukagu eguna pasatu, herria ezagutu eta natura eta kirola batzen dituztenak".

BERBA BITAN



JOSE RAMON URIBE

Arrasate.
57 urte.
Ingeniaria.

ARAMAIOKO ALKARTASUNA

Langabezia, lehentasun garrantzitsuena

"Pertsona moduan ditudan lehentasunak dira familia, lana eta Udala eta politikaren barruan ditudan lehentasunak dira langabezia, Udaleko aurrekontuak kontrolatzea eta energia alternatiboak bilatzea. Horrenbestez, lehentasun horiekin egingo dugu lan", adierazi digu Jose Ramon Uribek.

Jose Ramon Uribe | Aramaio Alkartasuneko alkategaia

"Aramaio udaletxeak herritarrena izan beharko luke, ez politikariena"

XABIER URTZELAI | ARAMAIO

Aramaion gazteen artean dagoen langabezia arduratzen du Jose Ramon Uribe, eta aurrekontuak gertutik zainduko dituela argitu du, besteak beste, Udalak agintaldi honetan hartu dituen konpromisoak bete daitezela. "Aramaio udaletxeak herritarrena izan behar du, ez politikariena. Hori horrela, oso garbi dugu herritarren zerbitzura gaudela, ez alderantziz. Udaletxeak ateak irekita egongo dira edonorendako, proposamenak jasotzeko edo arazoak dituenarendako, bai Udalarekin, baita beste erakunderen batekin".

Aramaioarrek alkate izateko Aramaio Alkartasuneko hautagaia aukeratzeko badute, egin behar horrek ez du ezustean harapatuko Jose Ramon Uribe. Izan ere, Uribek badaki alkate izatea zer den, arduraz hori bete zuen eta orain dela makinatxo bat urte,

1991tik 1995era, eta lehena zinegotzi ere izan zen.

Hirigintza

"Plan Orokorren barruan dauden konpromisoak bete egin beharko dira, eta ekonomikoki ze aukera dauden ikustea izango da lehenengo egin beharra. Hor egongo dira amaitzeko babes ofizialeko etxebizitzak, kiroldegiko parkea, industrialdea... hainbat konpromiso. Horregatik diot lehenengo ikusi behar dela zeintzuk diren amaitzeko dauden lanak, eta horiek bete egin behar direla. Ondoren, ditugun diru-sarreraren arabera erabakiko dugu herriak ze behar dituen. Baina lehenago ez gara hasiko promesak egiten".

Ingurumena

"Hasteko, AHTk herrian sortu dituen kalteak Jaur-laritzarekin eta Diputazioarekin batera gertutik jarraitzeko eskaera egingo

dugu. Arrainak hilda azaldu dira errekan, apurtuta geratu diren bideak konpondu behar dira... Bestalde, herriko ur-zikinaren kudeaketak ere arduratzen gaitu, herriko ur zikinak ondo bideratu behar direlako. Eta energia alternatiboak bilatzea ere izango da Aramaio Alkartasunaren ardura. Izan ere, aurten ikusi dugu gasarekin zer-nolako arazoak izan diren, prezioan egon den igoera nabarmenarekin; guk elektrizitatea saldu egiten dugunez, ondo aztertu beharko dugu gure herriarendako zein den energia alternatibo aproposena, eta horren aldeko apustu garbia egin".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kultura mailan, euskal kultura sustatzen diharduten herritarrei pertsonalki laguntzea izango da gure nahietako bat. Zinema munduan, antzerkian, kantuan, margolaria moduan... dabilzan aramaioarrei lagundu. Horrekin batera, kanpotik etorri direnak herrian integratu daitezela baliabideak jarriko ditugu".

"Gazteriari dagokionez, gehien arduratzen nauena gaur egungo langabezia tasa da; lanpostu bat lortzeko gazteek dituzten zailtasunak, alegia. Horretarako, eurei bideratutako ikastaroak antolatzea da

"AHTk sortu dituen kalteak erreparatuko ditugu"

"Sendotu egingo dugu auzoekin harremana"

gure asmoa, eta laguntza administratiboa eskainiko diegu. Horrekin batera, gai horren bueltan Udalak beste moduren baten lagun badezake, ondo aztertuko ditugu aukera guztiak".

Gizarte ongizatea

"Hasteko, herritar guztiek izan ditzatela oinarritzko beharrak aseta, horixe da lehentasun nagusia. Bestalde, Udalean erabakiak ahalik eta garbien hartzeko lista libreak proposatuko ditugu. Hau da, Udalean norbait kontratatu nahi izan denean beti egon dira esamesak, alderdiaren bateko familiakoa zelako... Horrelakorik egon ez dadin eta erabakiak gardentasunez hartzeko proposatuko ditugu lista libreak".

"Auzoei dagokionez, Udalak sendotu egin beharko lituzke auzoetako ordezkariak dituen harremanak, besteak beste, batzarrak finkatuta. Horrela, Udalak hobeto jakingo du auzoetan zein behar dagoen. Horrez gainera, auzoetako mantentze-lanek Udala arduradadila, eta baztertuta izaten dugun Oleta auzoa ere aintzat hartzea arduratuko gara; auzoei bideratu beharreko laguntzetan ere Oleta kontuan izango dugu".

Jose Javier Lasarte | PSE-EEko alkategaia

"Aramaio irekiagoa, aberatsagoa, ahots berriekin eta modernoagoa nahi dugu"

USOA AGIRRE | ARAMAIO

Jose Javier Lasartek Aramaio irekiagoa eta modernoagoa nahi du. Horretarako, lurralde antolamendua hobetzea, energia baliabideak babestea, turismoa bultzatzea eta ingeles ikaslea proposatzen ditu.

Hirigintza

"Ingurumena eta oreka sozial zein ekologikoa sendotu egin behar dira lurralde antolamendurako. Gardentasuna eta kudeaketa parte-hartzailea sustatuko ditugu planeamenduan eta hirigintzan, eta bermatuko dugu erabakiak interes orokorraren mesedetan hartuko direla, eta ez pertsona jakin batzuen eraginaren pean edota interes partikularren arabera. Hobera egin behar dute bai landa zein hiri inguruneek eta gizarte garapenerako edota garraio ekonomiarako eremu izan. Bihur daitezela leku humanoagoak, lanerako atseginak eta

aisialdirako eta elkarbizitzaarako gune".

Ingurumena

"Aramaion indarrean ipiniko ditugun ingurumen politiken oinarritzko helburuak gune naturalen babesa eta inguruaren estetikaren errespetua dira. Izan ere, ikuspuntu estetikoak ongizaterako ezinbestekoak dira inguru erakargarriak eta baita ere herritarrek paisaiarekin identifika daitezela, elkartasun sentimentuak azaleratuta, elkarbizitzaekin eta komunitate indartuz. Ezinbestekoak dira horiek guztiak giza kiaren, gizartearen eta demokraziaren garapenerako. Guneen babesak eta

ingurumenaren errespetuak lurraldeko baliabideen babes eta sustapen politikak eskatzen ditu: airea, ura, energia, nekazaritzarako lurrak, industriarako lurrak. Abian ipiniko ditugun baliabideen birziklatze politikak kontuan izanda kokapena eta populazio-gune ezberdinak".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Paisaiaren eta ingurumenaren estetikaren ondoan, garrantzitsua da ondare historikoa eta artistikoa babestea ere. Kontuan hartu behar baita horrek guztiak duen garrantzia turismoaren sektorea bultzatzeko. Aramaioko ondare

kulturala mantendu, sustatu eta kudeatzeko programa zehatzak garatuko ditugu. Herriko seme-alaba ospetsuen ondare kulturala ere aintzat hartuko dugu: Pedro Ignacio de Barrutia, Martin de Alzaga eta Lope de Agirrerena, besteak beste. Gazteen arazo garrantzitsuena langabezia da. Lan duinik gabe ezin denez etorkizuneko proiekturik garatu, ekonomia hedatzeko politikak jarriko ditugu martxan".

Euskara

"Euskararen erabilpena babestuko dugu herritarren arteko transmisiorako hizkuntza moduan, baina gaztelania baztertu barik, biak baitira euskaldunen hizkuntza-ondare. Bestetik, ingelesaren irakaskuntza indartuko dugu, batez ere gazteen artean, hizkuntzaren erabilgarritasunagatik eta herritar hiru eledunek munduarekin lotzeko erraztasun handiagoa dutelako.

BERBA BITAN



JOSE JAVIER LASARTE

Miranda de Ebro.
49 urte.
Arabako diputatua.



"Udaleko monotonia bukatzeko"

"Aramaion sekula ez da egon nazionalista ez den zinegotzirik eta hori PSE-EEK bakarrik lor dezake. Udalean dagoen monotonia bukatzeko konfiantza eskatzen dizugu, Aramaio izan dadin irekiagoa, pluralagoa, aberatsagoa, ahots eta polikromia berriekin, integratzaileagoa eta modernoagoa".

Aramaio modernoa, anitza eta mundura begirakoa nahi dugu, eta hizkuntzen eza-gupena pertsonen arteko komunikaziorako erremintak, ez bazterketarako".

Gizarte ongizatea

"Krisiaren aurrean, Udalak eragile aktiboa izan behar du solidaritatezko politiken defentsan. Aurrekontu arrazoiengatik eztabaidatu egin beharko lirake zerbitzuak, baina politika horiek inoiz baino garrantzitsuagoak dira orain, beharrak eta baztertze-arazoak handitzen ari baitira. Sozialistok behar handiena duten herritarren babeserako politiketan sakonduko dugu, bereziki zaharrak babesteko politikan eta, horiekin batera, gizarte laguntzeekin aurrera egingo dugu".

Kirola

"Lan egingo dugu Aramaion egiten diren kirol-ekintzak babes handiagoa izan dezaten eta ekintzak antolatuko ditugu Debagoieneko eta Arabako herriekin batera. Herrian dauden muturreko kirolak babestuko ditugu: amildegiak jaitziera, parapentea... abenturako turismoa sustatzeko. Urtero antolatuko dugu herriko kirolari eta kirol-ekintza esanguratsuenendako sari-banaketa".

"Baliabideen birziklatze politikak abian ipiniko ditugu"

"Ingelesaren irakaskuntza indartuko dugu gazteen artean"

BERBA BITAN



**OXEL
EROSTARBE**

Elgeta.
32 urte.
Legebiltzarkidea.



aralar

"Egindako lanari jarraipena emango diogu"

"Pozik nago herritarrek aukera izango dutelako nahi duten alderdiari babesa emateko. Guk lana eskaintzen dugu; lau urteotan egindakoari jarraipena ematea interes alderdikoia alde batera utzita. Talde sendoa dugu eta elkarlanerako zabalik gaude. Elgetarrek dute orain azken hitza".

Oxel Erostarbe | Aralar-Independenteetako alkategaia

"Elgeta moduko herri batean elkarrekin egin behar dugu denok herriaren alde"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Aralar-Independenteek alkatetzari eustea dute helburu. Oxel Erostarbe alkategaia adierazi du duela lau urte izandako aldaketari jarraipena emango diotela.

Hirigintza

"Oinezkoek lehentasuna izango duten herri irisgarria nahi dugu, eta, zentzu horretan, hainbat proiektu bultzatzeko asmoa dugu; Laso kalea saihesbidearekin lotuko lukeen paso bat zabaltzea, herriko eskolak duen behar garrantzitsu bati erantzuna emateko patronatuaren frontoi zaharra eraberritzea eta inguru horretan aparkaleku bat egokitzea, eta pentsatzen dugu hurrengo agintaldian Diputazioarekin elkarlanean saihesbidearen proiektuari heldu behar diogula, horrek lagunduko digulako plaza aurrea oinezkoendako gune egiten. Hirigintza zerbitzuari ere bultzada

eman behar diogu, zerbitzu hori euskaraz emateko eta benetan herritarren beharrei denboraz erantzuteko".

Ingurumena

"Helburua da herriko gune berdeak behar den moduan mantentzea; Asentzio, Egoarbitza eta Intxorta. Asentziorako plangintza egin behar da eta Intxortan eta Egoarbitzan ibilgailuak behar den moduan ibiltzeko neurriak hartu behar dira. Udaletik iraunkortasuna bultzatzen jarraitu behar dugu Eskola Agenda 21 programarekin, eraikin publikoetan energia aurrezteko neurriak hartuta... Eta jarraituko dugu zabor gutxiago sortzeko eta birziklapena bultzatzeko neurriak hartzen".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Kalitateko kultura baten aldeko apustua da gurea. Pentsatzen dugu herriko

elkarteen ondoan egon behar dugula eta kultura etxearen erabilera bultzatu beharra dagoela. Aisialdiari dagokionez, elementu berriak ipin daitezke kirolgunearen inguruan eta neurriak hartu behar ditugu etorkizunean Elgetako gazteak Elgetan bizi izateko. Gazteen parte-hartzea ere bultzatu behar dugu".

Euskara

"Gura dugu Elgetak jarraitzea herri euskaldun izaten, eta, horretarako, aurreko agintaldian erabaki genuen UEMAn sartzea. Neurriak hartu behar dira euskara ez galtzeko, eta, zentzu horretan, euskarazko eskolak bultzatzeko asmoa dugu,

baita Berbalagun moduko ekimenak bultzatzea ere. Elgeta herri euskalduna da, baina euskaraz dakigunok ez dugu beti euskaraz egiten. Gure ustez, denon artean lan egin behar dugu giro bat sortzeko eta euskaraz dakigunok euskaraz egiteak duen garrantzia jabetzeko".

Gizarte ongizatea

"Udalak egon behar du egoera txarrean dauden ondoan eta pentsatzen dugu Antzuolarekin eta Gatzagarekin batera osatu dugun Bideberri mankomunitateak aukera ematen digula zerbitzua hobeto emateko. Zerbitzu sozialetan indarrak batzea inportantea da,

horrek aukera ematen digulako zerbitzu hobea emateko eta benetan egoera txarrean daudenei behar den moduan eta behar den denboran erantzuteko. Osasun arloari dagokionez, badago behar handi bat Elgetan pediatria zerbitzua handitzeko, eta jarraituko dugu Osasun Sailarekin pauso hori eman dezaten ahalegintzen".

Kirola

"Hurrengo agintaldiko erronka bat da zaharkitzen doan kirolguneari itxura berria ematea. Herritarren parte-hartze foroan hausnarketa eginda dago eta hori orain proiektu idatzi batera eraman behar da, gero Diputazioarekin eta Jaurlaritzarekin batera bideragarri egiteko. Kiroldegia berrizatu beharra dago eta uste dugu kanpoko aldeari pisua eman behar diogula, bertan kirolarekin batera aisialdia bultzatuta. Bestalde, herrian diharduten elkarte eta egiten diren ekimenekin ados gaude eta euren ondoan egon nahi dugu. Argi dugu Udalak lagundu egin behar diela beteroen txapelketa edo frontenis txapelketa antolatzen dutenei eta uste dugu ez duela izan behar oztopo euren ekintzak eta ekimenak aurrera eramateko".

"Oinezkoek lehentasuna izango duten herri irisgarria"

"Erronka izango da zahartutako kiroldegia berriztatzea"

Bozkatu

aralar

**IREKI
BIDEA
ELGETAN**

**BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI
EZKERRARI**



Patxi Basauri | EAJko alkategaia

"Ilusioa berreskuratu behar dugu atzera ere Elgetan; hori da eskaintzen duguna"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
31 urtez jarraian Elgetako alkate izana, azken lau urteotan oposizioan egotea egokitu zaio Patxi Basauri. Alkategaiak Elgetako alderdi jeltzaleko kideen esperientzia eskaintzen du. Epe luzerako plangintzak planteatuko dituztela adierazi du. Lana sortzea izango dute helburu nagusi eta industrialdea bultzatzeko beharra nabarmentzen dute. Elgeta 21 Agentzia atzera ere martxan jartzea proposatzen dute.

Hirigintza

"80ko hamarkadako krisialdian Elgeta 21 Agentzia sortu eta bultzatu genuen Elgetan. Gerente lanpostua sortu genuen eta horren bitartez industria-gunea bultzatu genuen. Elgetako poligonoan 800-900 lanpostu izan dira duela gutxira arte. Orain erdira jaitsi da lanpostu kopurua eta azken lau urteotan Elgeta 21 Agentzia geldu egin da. Ez gau-

de neurri horrekin ados. EAJtik nahi dugu agentzia hori berriz ere martxan jarri. Premia handiko kontua da. Industria ezinbestekoa ikusten dugu Elgeta berpizteko. Herrian lanpostu berriak sortu behar dira".

Ingurumena

"Herrigunean lorategi eta berdegune asko dauzkagu eta, nire ustez, nahiko ondo

zainduta daude. Herritik kanpora, berriz, Asentzio dugu. Hori ere nahiko polita dago. Nik uste dut Egoarbitzan zerbait egin beharko genukeela; apur bat konpondu eta martxan jarri. Bestela, uste dut Elgeta ondo dagoela".

Kultura, aisialdia, gazteak

"Elgetan kultura nahiko ondo dagoela uste dut. Egi-

ten dira kultura ekintzak, batez ere Espaloia Kafe Antzokiaren bitartez eta gaztetxetik zein Udaletik. Faltan igartzen dudana da kultura ekintzak plazaratzea, kalera ateratzea. Horretan egingo dugu guk lan".

Euskara

"Elgeta herri euskalduna da gutxi gorabehera %90. Gertatzen dena da kalean, askotan, ez dela egiten. Dakigunok ere erdarara joateko joera dugu. Gure ustez, lan egin behar dugu denon artean giro euskalduna sortzeko eta euskaraz dakigunok ahalegina egin dezagun euskara gehiago erabiltzeko".

Gizarte ongizatea

"Gizarte ongizatean ere gauzak nahiko ondo daudela esango nuke. Hemen, bere egunean, eguneko zentro bat zabaldu genuen eta zerbitzu ona ematen ari da. Gipuzkoan egin zen lehe-

BERBA BITAN



PATXI BASAURI

Elgeta.

66 urte.

Erretiratua.



"Lana ekarri behar dugu Elgetara"

"80ko hamarkadan Elgetan krisi oso gogorra izan genuen. Langabezia tasa %35 izatera heldu zen. Hori ikusita, apustu handi bat egin genuen eta poligono industrial jarri genuen martxan. Ilusioa berreskuratu behar dugu atzera ere Elgetan. Nik uste dut pixka bat galdu egin dela eta hori da gure eskaintza Elgetako herriari".

nengo eguneko zentroa Elgetan egin zen. Elgetako nagusiek, bestalde, Ozkarbi elkartean dute egoitza. Hitzarmen bat dago uneotan indarrean Udalarekin eta horrek ere ondo funtzionatzen du. Etkez etxeko zerbitzua ere ematen da Elgetan. Udalak ematen du, eta, azkenik, gizarte laguntzailea dugu herrian beharra duten jendea artatzeko. Zerbitzu horiek mantendu egin behar ditugu eta bide horretan lan egiten jarraitu behar dugu".

Kirola

"Kritika nahiko zorrotza egin behar dut atal honetan; izan ere, nire ustez, Elgetan nahiko abandonatuta daude kirol instalazioak eta azpiegiturak. Ez dut nik esaten, erabiltzaileek esaten dute. Eskolako umeek ere erabiltzen dute kirolgunea eta behin baino gehiagotan etorri zaizkit esaten ez dagoela berotzeko sistemarik, ur berorik ez dutela... eta instalazioak, oro har, nahikoa abandonatuta daudela. Herrian egin behar dugu azterketa sakona ikusteko zer dagoen eta gutxienez daukagun materiala hori erabilgarri ipintzeko. Baita kirolgunea berriztatzeke ere. Herritarrek gerozko kirolgunea eskatzen dute, eta merezi dute".

"Elgeta 21 Agentzia martxan jarri behar da berriz"

"Kultura ekintzak kalera atera behar dira"

"Kirol instalazioak egoera oso txarrean daude"

"Lan egin behar dugu kalean euskara gehiago erabiltzeko"

BOZKATU EAJ PNV

Elgeta



ONENA EMATEKO GARAIA

BERBA BITAN



KOLDO GOENAGA

Errezil.

62 urte.

Aurre-erretiratu.



"Etxekoandreen politika egingo dugu"

"Gure politika izango da diru kontuetan Udala saneatzea. Etxekoandreen politika egingo dugu: gastatu gutxiago sartzen dena baino. Horregatik eskatzen dizuet emateko zuten botoa Bilduri. Ez dugu inor engainatu nahi; ez gara profesionalak, lanera etorri gara".

Koldo Goenaga | Bilduko alkategaia

"Ez dugu inor engainatu nahi; ez gara profesionalak, lanera etorri gara"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Gastua dauden diru sarre-
retara mugatzea agindu du
Koldo Goenagak. Bildun
lanera datorren jendea
dagoela adierazi du.

Hirigintza

"Uneotan etxebizitzak soberan daude. Egindako mor-
doa dago saldu barik eta
hasitakoak ere bukatu
barik. Etxebizitza gehiago
egitekotan, tasatuak edo
babes ofizialekoak egin
beharko dira, eta, egoera
zein den ikusita, alokairu-
ari eman behar diogu lehen-
tasuna. Gazteek zailtasun
handiak dituzte etxebizitzak
erosteko. Diru kontuak nola
dauden ikusi beharko genu-
ke, baina garrantzitsua
deritzogu herri barruan
dagoen industria poligono-
ra ateratzeari. Bizi-kalita-
tean irabaziko genuke.
Azkenik, Elgetatik Asen-
tziorainoko bidegorria bul-
tzatuko dugu, jendea
paseoan joan dadin errepi-
dera irten gabe. Saihesbidea

egitea eta garraio publikoa
bultzatzea ere gure egite-
koen artean daude".

Ingurumena

"Garrantzitsua ur-zikinak
Bergarara jaitea da eta
lan horiek baliatu behar
ditugu herrira gasa igotze-
ko. Arazo handia dugu
Elgetan gasarekin. Begira-
tu egin beharko dugu zein
den Repsolekin indarrean
dagoen kontratua eta zer
egin daitekeen. Bestalde,
indarrean dauden araudiak
betearazi behar ditu Udalak.
Mendi gailurretan ezin da
pinurik landatu eta Elgetan
badago. Lur partikularrak
izango dira, baina legeak
bete egin behar dira".

**Kultura, aisialdia,
gazteak**

"Kultura espektakuluak
oso ondo funtzionatzen du
Elgetan. Antzokiak arra-
kasta handia du, kanpotik
jende asko etortzen da eta
hori oso ona da herriaren-
dako. Baina kultura askoz

zabalagoa da eta kalera ere
atera beharko litzateke.
Bestalde, herriko zerbitzu
ezberdinek -ludoteka eta
abar- ondo funtzionatzen
dute. Gazteekin zer gerta-
tzen den ikusi behar dugu.
Hor dugu gaztetxea, eta oso
ondo eramaten dute, baina
gazteen artean modan jarri
da lokalak hartzea. Ikusi
beharko dugu zer gertatzen
den. Azkenik, auzoko jaiak
indartu nahi ditugu. Garai
baten erromeria oso politik
egiten ziren eta giro oso
euskalduna zen".

Euskara

"Gure hizkuntza da eta indar
guztiekin defendatu behar
dugu. Elgetan arazoak ikus-
ten ditugu eta seguruenik

helduona da erantzukizuna.
Denok dakigu euskaraz,
eta erdaraz gabiltza gehie-
netan. Neurriak hartu
beharko ditugu".

Gizarte ongizatea

"Pediatria zerbitzuarekin
arazo handia dugu Elgetan.
Oso gutxitan etortzen da,
eta lan egin beharko dugu
gehiagotan etor dadin.
Zorionez, ume asko dau-
kagu herrian eta ondo zain-
du behar ditugu. Egune-
ko zentroarekin lotuta ikusi
behar dugu zenbat herritar
dauden erabiltzeko moduan.
Uste dut orain gehienak
kanpotik etortzen direla.
Laguntza sozialen gaian,
berriz, uste dut Elgetan
300-400 lagunek jasotzen

dituztela. Gai delikatua da
honakoa. Gure laguntza
eskaini behar diegu behar-
rara dutenei, baina horren
trukean lan sozialak eska
daitezke. Adinekoei edo
gaizki daudenei ez, baina
badaude lanerako egoera
onean daudenak. Lan sozia-
lak topatu behar ditugu
pertsone horiek egiteko;
bestela, alferrak egiten ari
gara. Eta kanpotarrekiko
sentsibilitate berezia izan
behar dugu, baina uste dut
laguntzaile sozialaren bitar-
tez gure ohituren berri eman
behar diegula eta errespe-
tatzeko eskatu".

Kirola

"Kirolak oso ondo funtzio-
natzen du herri honetan.
Jendea oso kirolaria da,
pilota-zaletasun handia dago
eta herri mailako txapel-
ketak antolatzen dira. Eta
hor dugu 4 t'erdiko pilota
txapelketa. Gauza horiek
guztiak bultzatu egin behar
dira. Eta gazte jendeari
laguntzeko eskatu behar
zaio. Pilotan, esaterako,
Juan Luis Ubera eta biok
gabiltza umei pilotan era-
kusten; 60 urteren bueltan
gabiltza biak. Antolatzaile-
ak, epaileak... beti berdi-
nak gara. Udaletik, bestal-
de, koordinazio lana egin
behar da eta gureak diren
kirolak bultzatu; bolo jokoa,
esaterako".

**"Alokairuko
etxebizitzak
bultzatu behar
ditugu"**

**"Garrantzitsua
da ur-zikinak
Bergarara
jaitea"**

Elias de Castro | PSE-EEko alkategaia

"Etxebizitza publikoak proposatzen ditugu garapen sostengarrirako"

AMAIA TXINTXURRETA | ELGETA
Elias de Castro sozialista
lanbidez maisu industrialia
da eta 63 urte ditu. Valla-
dolideko Mota del Marques
herrian jaiotakoa da. De
Castro bi agintaldi egin
zituen Soraluzen zinegotzi,
1983tik 1991ra. Ezkonduta
dago eta bi seme eta hiru
biloba ditu.

Oraingoan, Elgetako
PSE-EEko alkategai moduan
aurkezten da eta hauek
dira euren programaren
ildo nagusiak: hirigintzan
gazteendako etxebizitza
publikoak proposatzen
dituzte, ingurumenean atez
ateko zabor bilketaren
kontra daude eta bosgarren
edukiontzia defendatzen
dute eta euskararen era-
bilera sustatzeko udal pla-
nak jarriko dituzte mar-
txan. Horiez gain, gizarte
ongizateari garrantzi han-
dia ematen diote eta pro-
posatzen dute kultura eta
kirola oinarri izango dituz-
ten aisialdirako progra-
mak.

Hirigintza

"Hirigintzari dagokionez,
gazteendako etxebizitza
publikoak proposatzen ditu-
gu Elgetaren garapen sos-
tengarrirako. Horrez gain,
lorategiak eta plazak indar-
tuko ditugu jendea bertan
elkartzeko eta harreman
sozialetarako guneak izan
ditzaten. Gaineratu nahi
dut orain arteko gobernuak
erabili duen kudeaketa
erdipurdikoa izan dela.

**"Lorategiak eta
plazak indartuko
ditugu jendea
elkartzeko"**

**"Atez ateko
sistema ez da
batere
praktikoa"**

Horren isla da 2011n onar-
tutako aurrekontuak aurre-
ko urtekoak baino %10,5
txikiagoak izan direla eta
horrek inbertsioetan esan
nahi duela aurrekontu guz-
tiaren %8, aurreko urtean
%21,54 izan zenean. Horrek
garamatza pentsatzera Uda-
lak hausnartu egin behar-
ko lukeela daraman politi-
ka ekonomikoaz, Elgetan
inbertsio produktiboak
egiteko helburuarekin".

**"Aisialdirako
programak
bultzatzea
inportantea da"**

**"Gizarte
ongizatea
bermatu nahi
dugu"**

Ingurumena

"Guztiz kontra gaude atez
ateko zabor biltzea sis-
temarekin; ez da prakti-
koa eta ingurumenaren-
dako ere ez da gomenda-
garria. Guk bosgarren
edukiontzia aldeko
apustu garbia egiten
dugu, inongo zalantza
barik".

**Kultura, aisialdia,
gazteak**

"Kultura faktore integra-
tzaile eta kohesio sozial
bezala ikusten dugu guk
eta leihoak zabaldu behar
dizkiogu ezagutzari, inte-
resari eta pertsonen sor-
menari. Uste dugu behar-
rezkoa dela Udaletik
aisialdirako programak
bultzatzea adin guztieta-
ko pertsonentzat. Progra-
ma horiek oinarritzat
izango dituzte kultura eta
kirola. Izan ere, gure nahia
da Elgetako Udala herri-
tarrendako zabalik egotea
eta erraztasunak ematea
on line zerbitzuaren bitar-

BERBA BITAN



ELIAS DE CASTRO

Valladolid.

63 urte.

Maisu industrialia.



**"Ziur gaude
Elgeta lehiakorra
izan daitekeela"**

"Beharrezkoa da
instituzio lehiakorrei
eskatzea Elgetarekin
konpromiso garbia
izatea eta ez galtzea
aukera, oraingoan
bezala, Domingo
Iturbe patronatua
birmoldatzeko. Ziur
gaude Elgeta
lehiakorra izan
daitekeela eta
enplegu aukerak atara
ditzakegula, Udaleko
erabaki zuzena
hartuta".

tez gurekin harremanetan
jartzeko".

Euskara

"PSE-EEtik euskara onda-
re komun bezala ulertzen
dugu eta euskararen era-
bilera sustatzeko udal pla-
nak jarriko ditugu martxan.
Plan horiek oinarrituta
egongo dira aurrerapau-
soan, adostasunean eta
eraginkortasunean".

Gizarte ongizatea

"Sozialistok nahi dugu Elge-
tako Udalak lehen tasuna
ematea gizarte ongizateari
eta horretarako beharrezkoa
izango da herritarren behar-
retara egokitutako giza
baliabideak ematea. Gu hori
bermatzen saiatuko gara.
Gaineratu behar dut gober-
nu sozialistari esker Elgetan
300.000 euro inbertitu
direla eskola eraikinetan
hobekuntzak egiteko, Uda-
laren hainbat eraikinen
estalkiak hobetzeko, baran-
dak ordezkatzeko eta baita
udaletxeko leihoendako
ere. Beraz, ekimen positi-
boak egin ditugu herria-
rendako".

Kirola

"Aisialdirako programak
bultzatzea da gure helbu-
rretariko bat eta progra-
ma horiek oinarritzat
izango dituzte kirola eta
kultura".

BERBA BITAN



EUGENIO OTSOA

Arrasate.
60 urte.
Erdi mailako teknikaria.



"Bizi kalitatea eskaintzeko gertatu herria"

"Gatzagarrek bizipoza izan dezaten gertatuko dugu herria: azpiegiturak egokitu; beste herri batzuetan adinako bizi kalitatea eskaini; herria girotu, koadrilaka eta taldean elkartzeko aukera emanaz... Eta lurraren erabilpena sustatu gura dugu. Baserritarrak lur jota daude leku guztietan eta lurraren erabilpena bultzatu behar da".

Eugenio Otsoa | Gatzagako Hautesle Elkarteko alkategaia

"Baserri inguruaren eta herriaren arteko lokarri sendoa gertatzea da asmoa"

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Herriarrek osatutako Gatzagako Hautesle Elkarteko alkategaia da Eugenio Otsoa Ugalde. Jaiotzez arrasatearra izan arren, 33 urtetik gora daramatza Gatzagan. Hiru agintalditan alkate izan da (1987 eta 2000. urte artean) eta beste baten zinegotzi (2003-2007). Oraingoan, gazteek osatutako taldearen buru doa.

Hirigintza

"Azpiegituren egokitzapena da Gatzagaren beharretako bat. Lehendik hasitako lanen hirugarren fasera iritsiko ginateke, gasaren zerbitzura. Eta herria zeharkatzen duen biribilgunea egin gurako genuke. Gainera, etxe gehiago behar diren edo ez hausnartu beharko dugu, eskaerarik dagoen aztertu; herri txikiak hazkunde txikiagoa izaten dute, eta horren arabera 10 bat urterako plangintza osatzea komeni da guztion artean".

Ekonomia

"Bertako jarduerak indartu behar ditugu, eta horien artean lurraren erabilpena oso garrantzitsua da. Gipuzkoan dauden zelai eta ortuek badute irtenbidea, baina erabiltzaileak behar dira. Ea sortzen ditugun nolabaiteko dinamikak horretarako; ortu ekologikoak, esaterako. Gatzagan 14 kilometro koadro ditugu eta ia %90 Udalarenak dira; eskain diezaiegun lurra erabili gura dutenei. Zalantza barik, erronka garrantzitsua dugu hemen".

Ingurumena

"Gatzagako indargunerik garrantzitsuena mendia bera da, oso aberatsa delako: pagoa, haritza, Deba ibaiaren jaiotza... Mendiak indar handia ematen du, eta zuhaitzen aprobetxamendu egokiarekin diru apur bat eman dezake. Abeltzainendako ere oso leku egokia da, baina zaindu eta kontrolatu egin behar da. Eta zelaia

eta ortuak egiteko aukera ere ematen du".

Baserri eta auzoak

"Baserri inguruei dagokienez, beti izan dugu auzoak eta herria lotzeko asmoa sarrearak eta bideak egokituta, arazo barik ibiltzeko herri-tarrak. Topagunea herria izango litzateke eta bai Goierri auzoko, bai Dorleta inguruko bizilagunak arazo barik etor daitezten kultura etxe eta gainerako zerbitzuetara. Hala, bada, baserri eta herriaren arteko lokarri sendoa gertatzea da asmoa, azpiegitura egokien bitartez".

Gizarte Zerbitzuak

"Langile bat badago eta zerbitzua bera eskaintzen

da. Bertako hainbat, gainera, gertu daude horri heltzeko, eta uste dut garrantzitsua dela laguntza hori ezagunek eskaintzea ezindu eta nagusiei, konfiantza handiagoa emanda. Lan polita da azken pausoak ematen dabilzane bizi kalitatea izan dezaten laguntzea, eta, gainera, inguruko jendea bada laguntza emailea, askoz hobeto".

Kultura eta aisialdia

"Aspalditik ditugu martxan kultura arloko hainbat topagune: elkarreak, erretiratuak, Sorginak emakume taldea, umeendako zerbitzuak: ludoteka... Eta maila horretan gehitu egin

beharko lirateke eskaintzak. Aktibitate horiek barruan egitekoak dira, baina gero kanporatu egin behar dira, Loreen Eguna, Zuhaitz Eguna, Inauteriak... sustatuta. Inauterien kasuan, sasoi bateko zapo-areari eta ohiturei helduta bultzatu behar ditugu jaiak".

Euskara

"Mantendu, gehitu eta euskal giroan bizi izaten hasi behar dugu. Araban ere gero eta gehiago egiten da euskaraz -lehen muga Gatzaga zen- eta normalizaten joan behar dugu eta euskal giroan bizi izaten. Hemen bertan mantentzen da eta euskal giroa dugu, eta hori garatuz besteak kutsatu behar ditugu".

Gazteak

"Herri txiki batendako erronkarik handiena da gutxieneko biztanle kopurua izatea. Eta horretarako bitartekoak jarri behar dira, bai bertakoak gera daitezten, bai kanpokoak etorri. Gazteek, etorkizunean -umeak dituztenean..., izan ditza-tela aukerak; eskola txikia, esaterako. Gune polita da, ez dago herri handietatik urrun eta samurtu beharko genuke autobus zerbitzuak bertaraino ekarrita".

"Eskain diezaiegun lurra erabili gura dutenei"

"Herriko azpiegiturek egokitu beharra dute"

HAUTESKUNDE EGUNA ETA BIHARAMUNA

GOIENA PAPER | HAUTESKUNDEEN GAINEKO INFORMAZIOA

Astelehenean, egunkari saltokietan edo egin zaitez harpidedun: 943 25 05 05.

GOIENA TELEBISTA | ZUZENOKO | HAUTESKUNDEEN GAINEKO SAIO BEREZIA

Maiatzak 22, 19:45 | Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuta. Mikel Lezamiz eta Unai Salaberriaren analisiekin.

ARRASATE IRRATIA | ZUZENOKO | HAUTESKUNDEEN GAINEKO SAIO BEREZIA

Maiatzak 22, 19:45 | Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuta. Mikel Lezamiz eta Unai Salaberriaren analisiekin.

GOIENA.NET | UNEOROKO JARRAIPENA

Maiatzak 22, 19:45 | Goiatz Aranak eta Julen Iriondok aurkeztuta. Mikel Lezamiz eta Unai Salaberriaren analisiekin.

TWITTER SARE SOZIALEAN | UNEOROKO JARRAIPENA

Jarraitu @goiena erabiltzailea.

- ▶ Emaizak herriz herri
- ▶ Udalbatzak zela osatuko diren
- ▶ Batzar Nagusietako emaitzak
- ▶ Batzarkide debagoiendarrak
- ▶ Bozketak eguneko gorabeherak
- ▶ Analiak
- ▶ Iritziak
- ▶ Alkategaien balorazioak
- ▶ Herriarren inpresioak


UDAL ETA FORU
HAUTESKUNDEAK 2011



Alderdiek boto-txartelak banatu eta asmoen berri eman dute asteon

Azken ekitaldiak egiten dabilta; gaur, jaialdia dute Bilduk eta Aralarrek

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hauteskunde egunari begira daude dagoeneko alderdiak eta gaur azken ekitaldiak egingo dituzte hainbatek. Bilduk jai giroan agurtu gura du kanpaina, eta, asteon boto-txartelak banatzen ibili eta gero, gaur jaialdia egingo du. Mitarte kalean elkartuko dira Ana Bolinaga alkategaia eta gainerako kideak eta argibideak eman eta programak banatuko dituzte, musika lagun.

Aralarrek ere jaialdia egingo du gaur Durana kalean, hauteskunde kanpainarako zabaldu duen egoitza inguruan. Musika eta jatekoa eskainiko diete herritarrei, eta kezka argitzeko aprobetxatu. Inaxio Garro alkategaia izango da zerrendako gainerako kideekin batera.

Programa banaketak

EAJk, ostera, martitzenean banatu zizkien programak herritarrei eta ekitaldiak egin zuen gero Mitarte kalean. Mikel Uribebarria alkategaia eragile ekonomiko guztien arteko plana landu beharra azpimarratu zuen Markel Olano ahaldu nagusi izateko hautagaia lagun izan zuen ekitaldian.

Eta alderdi sozialistak astelheheneko azoka hautatu zuen propaganda eta arrosak banatu eta herritarrei argibideak emateko. Ainhoa Sagarribai alkategaia Jorge de Castro zerrendako bigarrena izan zuen alboan.

Hamaikabat alderdiak, ostera, Otolara kalean egokitu duen egoitza aurkeztu zuen, Pello Gonzalez eta Maite Etxaniz bertan zirela.



Ana Bolinaga eta Bilduko gainerako kideak, boto-txartel eta programekin. | M.A.



Inaxio Garro eta Aralarako kideak, gaur egingo duten jaialdia gertatzen. | M.A.



EAJko alkategai Mikel Uribebarria, asmoen berri ematen. | M.A.



Alderdi sozialistako Ainhoa Sagarribai eta Jorge de Castro, herritarrekin. | M.A.



H11-eko kideak, egoitza aurrean. | M.A.

Kultura arteko topaketa Basabeazpiko jaian bihar

M.A. | ARETXABALETA

Udaberri Jaia ospatuko dute Arizmendi ikastolako Basabeazpiko lagunak bihar, hilak 21. Dagoeneko seigarren aldia da eta aurten Garabide elkartearekin etorritako 18 indigena izango dituzte lagun: Mexiko eta Ekuadortik etorritako nahualt hizkuntza komunitateko kideak eta Ekuadorko kitxuak.

Urtero legez, irteera eginda hasiko dute jaia, eta gero Herriko Plazara joko dute jolasak egin eta jatekoaren bila. Talo eta sagardoarekin batera artoarekin egindako pinole edari maia eta sopaipilla janari maputxea eskainiko dituzte.

Bazkaltzera joango dira ondoren guztiak, ia 300 lagun, eta bazkalostea txotxongiloek girotuko dute.



Udaberri Jaiko pertsonaiak, kukua eta azkonarra, ume eta gurasoekin. | M.A.

500 euroko balioa duen edertze txartela zozketatuko du oraingoan Aretxartek

M.A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak zozketa txartelak banatzen hasi da berriro bezeroen artean. Ekainaren 28an egingo dute zozketa eta irabazleak aparteko saria jasoko du: 500 euroko balioa duen edertze txartela. Gorputza edertzeko hainbat kontu daude barruan sartuta: masajea, ile

-apaintzea, makillajea... Txartel hori honako komertzioetan erabili ahal izango du irabazleak: Lie; L10 eta Irudi ile-apaindegiak; Gemes; Lasai; Anitua farmazia; eta Txilarra belar-denda.

Bestalde, aste bukaeran joango da Bartzelonara mar txoko zozketako irabazlea 1-Formula lasterketa ikustera.

OHARRAK

SANTA RITA OSPAKIZUNA ASTELEHENEAN

Santa Rita eguna domekan da, baina astelenean ospatuko dute agustindarren monasterioan; mezak: 11:30 eta 18:00.

ERRETIRATZE AKTIBOAREN GAINEKO BERBALDIA

Erretiratze aktibo eta solidarioa berbaldia egingo dute Basotxon astelenean (17:30).

SAHARARAKO ELIKAGAI BILKETA IKASTETXEETAN

Iesbaa elkarteak elikagaiak jasoko ditu Saharara bidaltzeko Kurtzebarri eskolan eta Pausoka haur eskolan: lekaleak, kontserbak oliotan, azukrea, arroza, pasta, olio, helduendako fardelak eta konpresak. Maiatzaren 27ra artean jasoko dituzte elikagaiok eta ekainaren 18an bidali Saharara.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

NIRE USTEZ

TXOMIN
AZPITARTEAliziaren ispilua
gaur egun

Alizia lurralde miresgarrian ipuinaren eta egunerokotasunaren antzekotasunaz jardungo dut. Globalizatutako munduan bizi gara, non edozein gertaeraren aurrean distantziarik existitzen ez den. Askotan ez dakit ispiluaren zein aldetan nagoen; ipuinaren benetako edo arrainek hegan egiten duten irudizko munduan.

Askotan entzuten dut giza eskubideez (1948. urtetik) eta demokraziaz (k.a. 400) hitz egiten; garrantzitsuak diren bi balio dira. Kasu eta momentu soziopolitikoaren arabera, bakoitzak gura duen moduan erabiliak dira, ispiluaren alde batetik bestera pasatuz.

Hori agerian uzten duten adibideak datozkit burura. Krisi ekonomikoaren harira, finantza talde handiek egindako akatsengatik herritarrek ordaintzen dute krisia. Justizia edo zigorra da hori; non dago demokrazia? Hauteskondeei dagokionez, Bilduren kontra hartutako erabakiak justizia edo oportunismo politikoa dira; non geratzen dira herritarren eskubideak? Preso politikoaren harira, urrunteza edo zigor luzeak zigor edo justizia bezala sailkatzen ditugu; non geratzen dira pertsona horien eskubideak?

Egunerokotasunaren eragina dauka horrek guztiak; askotan, konturatu barik, hausnarketara bultzatzen gaituzte egoera horiek. Hartzen ditugun erabakietan ahalik eta objektiboen izan gaitzen, kanpoko eragileak ekidin behar ditugu. Ez gaituzte baldintzatu behar, ideiak garbi izan behar ditugu, asmatzeko. Ispiluaren benetako aldean jarri behar dugu.

"Kanpoko
eragileak ekidin
behar ditugu,
asmatzeko"Ikastaroa dago
desfibriladorea
erabiltzen ikasteko

Udalak desfibriladoreak erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatuko du martitzenerako, hilak 24, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroa debalde da; joatea libre izango bada ere, aurretik izena eman behar da 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta edo kultura@eskoriatz.net helbidera idatzita.

Ikusmina sortu du etzi egingo
duten bigarren eskuko azokak

- ▶ Aitzorrotzek eta Tortolis ludotekak baieztatu dute materiala eroango dutela
- ▶ Herritar guztiei dago zabalik; erabiltzen ez dutena sal dezakete han

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Bigarren eskuko lehenengo azoka egingo dute etzi, domeka, herriko plazan. Udal Kultura teknikari Arantxa Untzuetak azaldu digu eskoriatzarrek interesa agertu dutela eta dagoeneko materiala jaso dutela baieztatu digu. Horrekin batera, gaineratu du ludotekak eta Aitzorrotz kultura elkarteak postua jartzeko asmoa dutela; Amuska emakume taldea ere materiala jasotzen dabil asteon.

Esan bezala, lehenengo aldia da horrelako azoka bat egiten dena. Untzuetak azaldu du erabiltzen ez ditugun baina egoera onean dauden gauzak salerosi ahal izango direla hor. Ez dago mugarik, eta, hortaz, herritarrek gura dutena eroan ahal izango dute etzi plazara. Honakoa azaldu du Untzuetak: "Edozer izan daiteke: esaterako, liburuak, arropa, jostailuak, margolanak edo mahaitxo edo lanpara bat". Prezioari dagokionez ere, ez dute mugarik jarri. Bakoitzak gura duena

eskatu ahal izango du, eta, nahi izanez gero, trukea egiteko aukera izango du.

10:00etatik 14:00etara

Goizean egingo dute merkatua; 10:00etan hasiko da eta 14:00ak arte iraungo du. Asmoa da zerbait saltzeko asmoa duten eskoriatzarrek zuzenean sal dezatela. Dena dela, goiz osoa plazan ezin direnekin egon ere gogoratu dira antolatzaileak. Kultura teknikariak aipatu du 10:00etatik 11:30era jen-

deak ekartzen duena jasotzen egingo direla. Hori bai, produktu bakoitzak prezioa jarrita izan beharko du.

Azoka amaitzean, plazatik pasa beharko dute osterara ere saltzaileek. Eskaintakoa saldu bada, dirua jasoko dute; eta bestela, utzitakoa eroan. Dena dela, han uzteko aukera ere izango da, hurrengo egunean Remarrera eroango du eta Udalak material guztia.

Jarraipena emateko asmoa

Domekako azoka ondo irtetzen bada jarraipena emateko asmoa dutela jakinarazi digu Kultura teknikariak. Zenbatean behin egitea zehaztu barik badago ere, hiru hilabete behin antolatzea ondo egongo litzatekeela aipatu du. Azkenik, "lotsa" albo batera uzteko eta etxean ahaztuta duten hori plazara eroteko gonbita egin du Untzuetak.

Aitor Urrutia (EAJ):
"Marka liderra gara"

Agerraldia egin zuen eguzten eguerdian, GBBko presidente Joseba Egibar ondoan zuela

M.B. | ESKORIATZA

Amaitzera doa hauteskunde kanpaina, eta alderdiak azken ekitaldiak egiten dabilta. Eguzten arratsaldean, EAJko kideak izan ziren plazan; tartean, Eskoriatzako alkategai Aitor Urrutia eta GBBko presidente Joseba Egibar. Urrutiak esan zuen gizarteak askotariko "erreferenteak" behar dituela, lider faltan dagoela, eta alderdi jeltzalea dela egun "marka liderra". Honakoa esan zuen: "Marka lide-

rra gara, herrialde hau sartuta dagoen zuloatik ateratzeko kapaz den marka gara. PSE-PP akordio apurtezinak eta betiko borroak sartu dute zulo horretan". EAJ "balore segurua" dela eta krisi garaian "horrelako baloreak" behar direla esan zuen.

Horrekin batera, aipatu zuen hartutako konpromisoak lau oinarritan hartuta daudela: hain justu ere, bakea, aniztasuna, euskal aberria eta justizia soziala.



Plazan egin zuen EAJk ekitaldia. | MIRIAN BITERI

H1: egoitza Aretxabaletan

Bestalde, Hamaikabat alderdiak Leintz aldeko egoitza zabaldu du asteon Aretxabaletako Otolara kalean. Hamaikabatek ez du

zerrendarik osatu Eskoriatzan, eta asmoa da taldea indartzea; horretarako zabaldu zuten astelehen arratsaldean esandako egoitza.

Jai giroan amaitu dute Bilduko
hautagaiek hauteskunde kanpaina

M.B. | ESKORIATZA

Musika, txalaparta eta bertsoekin hasi zen atzo arratsaldean Bilduk plazan eginiko ekitaldia. Jarraian, zerrendakideak oholtzara igo ziren, eta Beñat Herce zerrendaburuak hartu zuen hitza. Eñaut Zubizarreta txeloan lagunduta, herri programaren lan ildoak azaldu zituen; hain justu, talde-

lana, herriaren partaidetza, garrantasuna eta euskara. Euskal Herrian zabaldu den "aro berria" bultzatzeko Bildu "ezinbestekoa" dela esan zuen. Amaitu aurretik, Bazar Nagusietarako boto-pape-rekin arazoak izan direla gogorazi zuten. Etzi hauteskunde-mahaietan izango direla nabarmendu zuten.

OHARRAK

TXOMIN TXAPEL EGUNA

Huheziko ikasleek Txomin Txapel Eguna egingo dute gaur.

ARETO FUTBOLA

Bihar, Ohorezko Ligako lehia jokatu dute Eskoriatzak eta Ortzirik, 16:00etan.

KONTZERTUA ETA ZINEMA

Ohikoa den moduan, ekintzak izango dira gaztelekuan. Bihar

kontzertua egingo dute kanpoaldean eta etzi zinema izango dute.

EUSKAL FOLKLOREA

Astelehenean, maitzak 23, folkloreaki buruzko *Euskal Herria bere abesti, dantza eta herri musikaren bidez* izeneko hitzaldia egingo du Jose Antonio Garatek. Kultura etxean izango da hori, 17:30ean.

REHABILITACIONES
IKERRA S.L.

ERAIKUNTZAK - PROIEKTUAK

Aranburuzabala 27 - ESKORIATZA
Tel.: 943 53 38 31. Mugikorra.: 630 087 071
E-posta.: re-ikerra@hotmail.com



FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA
San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58

NIRE USTEZ

ALAITZ
JAUREGIEskerrik asko,
danoi!

Sarri esan izen dot kritika gisa gaur egun bakoitza bere kasara bizi gala eta balore asko galtzen dihardula. Bakoitzak bere bizitza eitten dau eta ez ga ondokuai begira egoten, ez da lehen bezelako harremanik eukitzen ingurukuekin. Zati haundi baten egixa da, baina azkenaldixan sekulako irakasgaixa jaso dotela esan biharra daukat.

Aspalditik ilusiño haundi bat neukan; eskulanen dendia jartzia. Danok dakiun bezela, Antzuola bezelako herri txiki baten denda bat jartzera ausartzia dextenteko saltua emutia da, eta jendiak hoixe esaten zoztan. Baina probau barik inok ez daki zela jungo dan ondio ez dana ein, ezta? Ta holaxe ein dot, aste pare bat da dendia ipintzia lortu dotela, eta baita gustora geratu be! Herrixan aldetik oso jarrera ona euki dau, eta horrekin bakarrik nere ametsa errealtate bihurtu da. Zeoze diferentia eta originala eittia nahi nebalako jende asko eta askon laguntza eskatu eta jaso biher izen dot, eta gehixenak neuk eskatu be ein barik emun be gainera. Benetan esaten dot laguntza hau dana ez dagola ezela be eskerterik, zuek danon borondatiagattik ez balitz izen, ezingo nukelako hainbeste denboran euki doten ilusiñua, neuk eiddako eskulanen dendia, aurrera eruan. Norbere ilusiño haundi hori eidda ikustiak ez dauka inungo prezioik.

Honengatik danagatik, eskerrak dan-danoi! Eta segi deigun alkarrri laguntzen denbora askuan!

"Jende asko eta askon laguntza eskatu eta jaso biher izen dot"



Juanina Garai, Eztalako futbol zelaian. | JOSETXO ARANZABAL

Juanina Garai | Futbol entrenatzailea

"Gehiago egin genezakeen, baina gustura geratu naiz denboraldiarekin"

Mailaz igotzeko aukerak izan arren, laugarren postuan bukatu du erregionaleko taldeak

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Erregional preferente mailako futbol taldeak joan den zapatuan jokatu zuen denboraldiko azken partidua. Aurtengoaren balorazioa egin digu Juanina Garai entrenatzaileak.

Zelan joan da denboraldia?

Nahiko makal hasi genuen denboraldia, baina taldea goraka joan da. Nik uste dut gehiago egin genezakeela; pixka bat gehixeago estutuz goian sar gintezkeen. Baina ez dauka atzera bueltarik. Orokorrean oso gustura nago denboraldiarekin.

Mailaz igotzeko aukera izan zenuen.

Bigarren bueltan goian sartzeko bi aukera izan genituen, baina

galdu egin genituen funtsezko partidua eta ezin izan genuen azkenean.

Nola ikusi duzu taldea?

Taldea ondo ikusi dut. Beste herri batzuetan ez bezala (Arrasaten eta Bergaran, adibidez), klubean oso sartuta daude jokalaria. Edozein gauza eskatzen diezu eta ez dago sekula arazorik. Gazte hasiberriak eta beteranoak daude taldean eta nahaste polita dago. Datorren urterako horrelako taldea mantentzen badute, beste gauzatxo batzuk aldatuta, aurten baino hobeto ibil daitezke.

Jarraitzeko asmorik bai?

Oraindik ez dakit. Denboraldia bukatu berri da eta guztia aztertu beharra dago orain.

Jaietako Mairuaren alardean parte hartzeko deialdia ireki dute

Mairuaren alardearako prestaketa lanetan hasita daude. Parte-hartzea irekia denez, gonbidatu nahi dituzte inoiz parte hartu ez dutenak, parte har dezaten. Beraz, norbaitek izena eman nahi badu, deitu dezala udaletxera edo idatz dezala kultura@antzuola.net helbidera. Aurten uztailearen 16an egingo da alardea.

Saharako umeak udan etxean hartzeko informazio-bilera

Oporrak bakean programaren bidez Saharako umeak udan etxean hartzeko informazio-bilera egingo da gaur, egubakoitza, 19:00etan, udaletxean. Bestalde, elikagai-bilketa egiten ari dira. Maiatzaren 27a arte jasoko dituzte elikagaiak eskolan, Eroskin, eta Aixa eta Kalebarren dendetan.

Bide-konpontzea eta ibilaldia, Arrolarekin

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Aste bukaerara begira, bi ekin-tza antolatu dituzte Arrola mendizale taldekoek: bide-konpontzea eta ibilaldia. Bihar, zapatua, Oñati bidea konpontzera joango dira; 8:00etan egin dute hitzordua, Goizperren.

Domekan, Antzuolako biraren lehen ibilaldia egingo dute: Koroso, Landarraitz, Azalditta, Trukarri, Mixo eta Ariztitik, Antzuolara iritsiko dira. Irteera 9:00etan, Olanan.


Euskal Herriko erdigunean

Joan den domekan egun osoko ibilaldia egin zuten Arrolakoek.



Domekako ibilaldia. | ARROLA

Lizarraga mendatetik abiatuta Euskal Herriko erdigunea, Beriaingo tontorra eta Unanua herria bisitatu zituzten.



XABI MONDRAGON

Kexa AHTko lanengatik

AHT eraikitzeko lanek herriko zenbait lur-sailetan, Igurainen, sortutako kalteak salatu ditu herritar batek. Salaketaren araber, txabola bat lurperatu diete eta zenbait pinu bota; baita harriak ere lur-sailera. Galeren berri eman diete AHTko lanen arduradunei.

OHARRAK

ARGAZKI ERAKUSKETA

Aste bukaeran egitekoa zen *Antzuola eta antzuolarrak* lehiaketako argazki erakusketa ez da egingo, Olanan hauteskundeetako mahaiak jarri behar dira-eta.

SENIDETZEAREN LIBURUA

Antzuola eta Aiherra, mugak zubi liburua salgai dago udaletxean eta liburutegian 5 euro-

ren truke. 27 urte hauetako harremanak eman duena jasotzen da: senidetzearen hasiera, ondorengo urteetako nondik norakoak, urteurrenak, elkarriketak eta argazki ugari.

ATEZ ATEKOA: BATZORDEA

Atez atekoaren jarraipen batzordearen hurrengo bilera ekainaren 2an, eguna, egingo da. 18:30ean izango da, Olanan.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



Eraikiko den etxe kopurua mugatuko du Plan Orokorrak. | JOKIN BEREZIARTUA

Plan Orokorra onartu du Udalak; oraindik behin-behinekoa da

Herritarren parte-hartzearen ostean, eguazteneko osokoan onartu zen behin-behineko txostena

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Datozen zortzi urteotan indarrean egongo den Aramaioko Plan Orokorren behin-behineko txostena onartu zuen Udalak eguazteneko osoko bilkuran. 2010eko abenduaren 13ra arte egon zen ikusgai planaren bigarren zirriborroa eta herritarrek interes handia erakutsi zuten hasiera-hasieratik. Hala, herriko eragileen partaidetza bermatu duen Aholku Batzordea sortu zen proiektuaren lehen aurrerakina aurkeztu zen une beretik.

Plan Orokorrak, besteak beste, eraiki daitezkeen etxebizitza kopurua mugatuko du. Eta, gainera,

eredu soziala bultzatzea helburu, etxebizitzaren erdia babes ofizialekoak izatea eta beste erdiaren %70 tasatuak izatea, hau da, Udalak jarritako prezioan saltzea.

Orain, instituzioetara

Herritarren parte-hartzearen fasea amaitu da. Orain, Jaur-laritzara bidaliko da, eta, han aztertu ostean, Diputaziora. Hala ere, lehenago azken orduko eskritura akats batzuk zuzendu beharko ditu plana idatzi duen taldeak, astebeteko epean: "Oso garrantzitsua da dokumentu hori ondo idatzita bidaltzea", adierazi du Asier Agirre alkateak.

EAJ: "Lau urteotan ez, eta orain?"

Aramaioko EAJk osokoaren gai zerrenda kritikatu du: "Aztertu diren bi konturi agintaldiko lau urteetan ez diete konponbiderik eman. Posible da, lau urteren ostean, hauteskundeetarako bi egun geratzen direnean onartu behar izatea?". Horrez gain, Plan Orokorren gaineko informazioak eza salatzen dute. Alkatearen ustez, bestalde, hauteskundeak izan arren Udalak ohiko jarduna mantendu behar du.

"Ilusioa, lana eta esperientzia" dakar EAJk

J.B. | ARAMAIO

Iñaki Nafarrate EAJko alkatagaiaren arabera, Aramaio-ko zerrenda osatzen duten hautagai jeltzaleek esperientzia dute Udaleko jardunean: "Denok ibili gara udaletxean. Horrez gain, esan behar dut beste zerrenda batzuetan jende gaztea dagoela, eta hori pozgarria da. Alderdi-keriez aparte, udaletxean belaunaldi aldaketa izatea oso garrantzitsua da; izan ere, guk urte asko daramagu politikan".

Herritarren arazoak entzun

"Aramaioko EAJk eskainiko du hainbat urtean udaletxean egon izanaren esperientzia, lana, ilusioa eta elkarrizketa", dio. Herritarrei entzutea ezinbestekoa dela uste du: "Aramaion eta Diputazioan konturatu naiz herritarrei esateko dutena entzun diezaietela gura dutela. Jendeari entzun egin behar zaio, eta bide horretan egingo dugu lan". Azkenik, Aramaio "asko" aldatu dela uste du: "Duela 20 urteko eta egungo Aramaio ez dute zerikusirik".

Orratz! taldearen 'Gatazka hasi da! obra gaur kultura etxean

Txirritola elkartearen eskutik, Orratz! antzerki taldeak *Gatazka hasi da!* antzezlanaren aurkeztuko du gaur kultura etxean (22:15). Kostaldeko herri txiki bateko terma-etxe bateko medikuak urak kutsatuta daudela jakin arren, terma-etxea zabalik mantentzeko egiten duen saiakera da abiapuntua.

SARI NAGUSIA



Asteburu bat Txopebenta landetxean

Hondartzatik lau kilometrotara!

Gosariak, mundialak!

Goza ezazu Txopebenta landetxean!

TXOPEBENTA LANDETXEA

Basetxetas

GAUTEGIZ-ARTEAGA (Bizkaia)

Tel.: 94 625 49 23 / 629 45 50 79

www.nekatur.net/txopebenta

www.toprural.com

MUNDUMIRA



Mundumira

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05

e-postaz: kluba@goiena.com

www.goienakluba.com

Urteko kuota: 48€

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!



NAIA BAILEZ

Bildu:
"Berriak izan arren, ez dugu beldurrik"

Bilduk domekan egin zuen ekitaldi nagusia, udaletxe azpian. Aramaio-ko hautagaiez aparte, Idoia Zapirain Arabako Batzar Nagusietarako zerrendaburua izan zen ekitaldian. Diputazioan PSOEren eta eta EAJren aurrean Bildu alternatiba bakarria dela adierazi zuen, besteak beste. Gero, Aramaio-ko zerrendan bigarren doan Lierni Altunak –argazkian– hartu zuen hitza: "Sektore ezberdinetako herritarrek bildu gara eta politikan berriak izan arren, ez dugu beldurrik. Lanerako gogoz eta ilusioz gatzoz".

ELGETA

Domekan 869 lagunek dute Elgetan botoa emateko aukera

Hauteskunde-mahaia 09:00etan zabalduko dute, eta 20:00etan itxi

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Lasai izan da hauteskunde kanpaina Elgetan; Bilduk jendaurreko aurkezpen-ekitaldi bat egin du, Aralarrek nahiago izan du komunikabideen aurreko agerria egitea eta Elgetako jeltzaleek tokiko komunikabideen bitartez zabaldu dute euren mezua. Noski, hirurek banatu dituzte hauteskunde programak.

"Zerrenda gaztea eta euskalduna gara", adierazi du alkatetzan jarraitzea helburu duen Oxel Erostarbek. "Gura dugu duela lau urte udaletxean sartutako haize freskoak udaletxean jarraitzea. Lau urteko lanak erakutsi digu garrantzitsua dela hankak lurrean edukitzea eta horrela aurkezten gara: hankak lurrean baina etorkizunerako proiektu mordo batekin".

Elgetako jeltzaleek, berriz, lana, esperientzia eta ilusioa eskaintzen dute. Patxi Basauri

alkategaiaren esanetan guztiz lehenetasunezkoa da Elgeta 21 martxan jartzea eta poligonora industria ekartzea.

Bilduko alkategai Koldo Goenagak, berriz, indarrak biltzeko unea dela esan du. "Taldea lanean dut konfiantza, denek izan behar dute lanerako aukera".

Emaitzak Goiena telebistan

Domekan herritarrek izango dute hitza. Elgetan hautesle-mahai bakarrak egongo da eta 869 lagun daude botoa ematera deituak. Goiena telebistan zuzeneko saioa egingo dute 19:45ean hasita. Elgetako emaitzen berriz izango duzue zuzenean.



Elgetako jeltzaleak Patxi Basauri alkategaia buru dutela. | ELGETAKO EAJ



Aralar-Independenteak taldeko hautagaiak eguazteneko ekitaldian. | L.Z.



Bilduk barikuan egindako aurkezpen ekitaldia. | JULIO CALLEJA

Haur zein gazteendako ekintzaz beteriko programa uztaile arte

L.Z. | ELGETA

Gaur, barikua, sukaldaritza tailerra eta afaria egingo dituzte gaztelekuko erabiltzaileek eta bihar eta etzi jaietako asto karre- prestatuko dute Sesto baserrian. Programa osatua egin dute hezitzaileek eta aurten ludoteka zabalik egongo da ekainean ere. Bio-

dantza, musika jolasak, San Juan surako prestaketak eta gaupasa egingo dituzte txikienek. 10-16 urteko gaztetxoek, berriz, irteera Sendavivara, grafiti ikastaroa eta gaupasa Asentziora. Maiatzaren 26ra arte dago zabalik izenematea. Ludotekako kuota 20 euro da; gaztelekukoa 50 euro.



Domekan Asentziora izan ziren. | M.B.

Badator Elgetako IV. motor jaiak; barikutik domekara egingo dute

Gaur iritsiko dira lehenengo motorrak Elgetara. Izango dugu non gozatu; izan ere, ekitaldi guztiak daude herritarrei zabalik. Motor erakusketak Espaloian eta Bolatokian, motor ibilaldiak, bolo txapelketa, 130 lagunendako paella erraldoia zapatu eguerdian, kontzertuak...

Mundumirako BTT zeharkaldia goizez egingo dute

Mundumirako esku programetan zein karteletan zapatu arratsaldean egingo dela agertzen bada ere antolatzaileek adierazi dute goizez egingo dela, 09:30ean. "Ordu hobea da eta jende gutxiago ibiliko da herri gunean. Akats bat egon da programetan". Hitzordua maiatzaren 28an da.

OHARRAK

GURASOENDAKO HITZALDIA

Gaur, barikua, *Oihurik gabe hezi* izeneko hitzaldia egingo du Baikarako teknikari Esther Martinezek. Gurasoei zuzendutako hitzaldia da. Interesatuak jakin behar dute 18:00etan dela hitzordua Herri eskolan.

MENDI IRTEERA ZAPATUAN

Ozkarbi Mendi taldeak Toloñora antolatutako mendi irteera

zapatuan, maiatzak 21, egingo dute. Parte-hartzaileak 08:00etan abiatuko dira Ozkarbi aurretik.

DOMEKAN JAUNARTZEAK

Domekan, maiatzak 22, ospatuko dira aurtengo jaunartzeak Elgetako parrokan. 12:00etan emango diote hasiera elizkizunari. Bi neskatok egingo dute aurten jaunartzea Elgetan.

Athleticek bete du agindutakoa

Argazkiak, baloiak, kamisetak... eguaztenez denetarik sinatu zuten Elgetan Fernando Llorentek, Javi Martinezek eta Iker Muniainek. Kitatuta dago zorra eta ahaztuta martxoko nahigabea. Orain, inauguratuta dago peña.



LEINTZ GATZAGA

Benjaminen, alebinen eta haurren pilota partiduak domekan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Dorleta pilota txapelketari dagozkie benjaminen, alebinen eta haurren pilota partiduak jokatu dituzte domekan, hilak 22. Txapelketaren zortzigarren jardunaldia da eta hamar partidu izango dira (09:00).

Hona bikoteak: benjaminen A taldean: Errasti eta Gonzalez (Arra-

sate) Zubia eta Biteriren aurka (Eskoriatza); Etexzarreta eta Murgiondo (Arrasate) Fernandez anaien aurka (Arrasate); Beitia eta Iturrioz (Arrasate) Ugarteburu eta Salaberriaren aurka (Arrasate).

Benjaminen B taldean: Errasti eta Urribetxerria (Aretxabaleta) Zubizarreta eta Alonsoren aurka (Gatzaga); Bengoa eta Goñi

(Arrasate) Eraña eta Zubiagaren aurka (Eskoriatza). Alebinetan: Zubiaga eta Biteri (Eskoriatza) Urribetxerria eta Davilaren aurka (Aretxabaleta). Llodio eta Elko-robarrutia (Arrasate) Oñate eta Urtzelaireren aurka (Eskoriatza).

Haurretan: Astiazaran eta Zubizarreta (Eskoriatza) Bidaburu eta Endikaren aurka (Aramaio); Zurutuza eta Jurado (Eskoriatza) Iturriotz eta Egiaren aurka (Arrasate); eta Bengoa eta Etxeberria (Aretxabaleta) Ajuria eta Urizarren aurka (Gatzaga).

LEINTZ GATZAGA

Hautesle Elkarteko kideak boto txartelak banatzen

Gatzagako Hautesle Elkarteko kideak hauteskunde egunerako eta ondorengo lanetarako gertatzen ibili dira astean. Astelehenean, Eusebio Villar jarduneko alkatearekin batzartu ziren, eta agintaldiari ekitoko gogotsu daudela iragarri zuten. Martitzenean, osteran, boto-txartelak banatu zituzten, bai baserrietan, bai kalean.

Aperriboy, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

FUTBOLA

Debagoienetik hamabost autobus irtengo dira Anoetara, azken bultzada ematera

Eguenean ibarrean salgai jarri zituzten sarrerak segituan agortu ziren

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Gozatzer, edo sufrizera, baina Realaren ondoan, beti. Asmo horrekin abiatuko dira zapatu iluntzean debagoiendar mordoia –ibarretik hamabost autobus joango dira– Realaren denboraldi azken jardunaldia ikustera, Getaferen kontrako hil edo bizi-ko lehia jarraituzera.

Realak kategoria gal dezan hainbat karanbola gertatu behar dira, aukera handiak ditu mailari eusteko, baina hiru urte bigarren mailan egon ostean, berriro ere zulara itzultzeko aukera txikiak dardarka jartzen ditu zale gehienak. "Ba, ez da horrenbesterako! Real lehenean mailan geratuko da, seguru!", adierazi zuen Realzale batek, baikor, Monte tabernan eguen goizean, sarrerak salgai jarri zituzten momentuan. "Bada, ni kaka eginda noa Anoetara. Real egingo duenaz gain, gertu gertutik jarraituko dugu kontrario zuzenek egingo dutena", adierazi zuen ondoko lagunak.

Hamabost ordu Donostian...

Sarrerak erosteko eguaztenean Anoeta kanpoan zain egon zirenek hamabost ordu egin zituzten zain, baina ibarrean sarrera eskuratu



Aranburu, Prieto eta Zurututza gola ospatzen. | DEPORTES ORANGE

zutenek ez zuten halakorik sufritu behar izan. Hori bai, gurean bazkideek zuten sarrera horiek erosteko eskubidea. Bergarako Deportivo tabernara 10 sarrera bidali zituen Realak: "Eta hegan egin dute". Arrasateko Monte tabernara, berriz, 40 sarrera.

09:00etan ireki zituzten tabernako ateak, eta ordu erdian saldu ziren denak: "Alabak bazkide dira, baina ni sarrera bila etorri naiz. Aurrekoan Zaragozaren kontrako partiduan sufriztea tokatu zitzaigun. Eta zapatuan ere seguru beste horrenbeste egingo dugula, nahiz eta berdin-

ketarekin ere balio digun. Baina Realak zaleon laguntza behar du, eta horregatik goaz", adierazi zigun, sarrera eskuan, Pauliño Arriolak.

Hala, zapatuan 20:30 inguruan ibarretik hamabost autobus irtengo dira Anoetara bidean. Bergarak sei irtengo dira, normalean baino autobus bat gehiago, eta Arrasaten ere normalean baino autobus bat gehiago jarriko dute, sei. Oñatin, azkenik, hiru autobus jarriko dituzte zaleendako.

PILOTA

Bergarako pilotariek Azkoitikoak hartuko dituzte gaur, Herri Arteko Txapelketako itzulerakoan

Joaneko partiduan Bergarak 2-1 hartu zuen mendean Azkoitia. Baina tanto aldea oso txikia izan zen, eta gaur, egubakoitza (19:30), Bergarak bi norgehiagoka irabazi beharko ditu txapelketan aurrera egiteko. Martitzenean, berriz, Bergara Hiria txapelketako final-laurdenak jokatuko dituzte. Nagusietan, Mendizabalek eta Iruretak Garraldaren eta Uzkudunen kontra jokatuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Mikel Aristi da Gipuzkoako gazte mailako txapelkun berria, Mutrikun irabazi ostean

Domekan korritu zuten Mutrikun gazte mailako txapelketa, eta Bergarako Mikel Aristi gailendu zen, esprintean Asier Unanue, Xabier Bengoetxea eta bere taldekide Eneko Lizarralde gaudituta. Lokatza-Sumoficekoak 2.15.57ko denbora egin zuen, erakutsita atzean utzi titula belauneko arazoak. Iker Eskibel (Mugarri-Jay) eskoria-tzara bigarren taldean helmugaratu zen, zortzigarren.

FUTBOLA

Federazioak aste barruan konfirmatu du Mondrako neskak bigarren mailan izango direla

Zapatuan Gipuzkoako txapelkun izan ziren Mondrako neskak, baina kategoriaz igotzeko hiruko torneo jokatu behar zuten Bizkaiko eta Arabako onenen kontra. Bada, aste barruan konfirmatu da Arabatik ez dela inor aurkeztu eta Mondra dagoeneko bigarren mailako taldea dela. Euskadiko Futbol Federazioa maiatzaren 26an batzartuko da Mondrako zuzendaritzarekin.

SASKIBALOI

Bihar egingo dute Ointxe! taldearen eta LEKEn eskutik hiruko saskibaloitza torneo Arrasaten

Ointxe! saskibaloitza taldearen eta LEKEn eskutik hiruko saskibaloitza torneo egingo dute zapatuan Laubiden, Arrasaten. Txapelketak hamahiru urte egingo ditu aurten, eta 103 talde izango dira. Antolatzaileak 08:00etan hasiko dira dena gertatzeko lanean; gaztetxoak 10:00etan hasiko dira lehiari eta arratsaldeko saioa 15:30ean hasiko dute.

DEBAGOIENEAN LANBIDE HEZIKETA

OÑATIN:

Ate irekiak: Maiatzak 25, 18:00etan

Batxilergoa:

- Zientzi teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

Erdi Mailako Heziketa zikloak:

- Mekanizazioa
- Linea eroanbideen eta makinaren mantenu elektromekanikoa
- Natur ingurunean kirol ekintzen gidaritza

Langile eta langabetuentzat ikastaroak

Sarbide frogarako prestaketa klaseak

ARETXABALETAN:

Ate irekiak: Maiatzak 26, 18:00etan

Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta galdaragintza
- Karrozeria
- Ibilgailuen elektromekanika

Goi Mailako Heziketa Zikloak:

- Metal eraikuntzak
- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

Eskaintza Partziala: Erizaintzako zaintza osagarriak

Langile eta langabetuentzat ikastaroak



BERGARAN:

Ate irekiak: Maiatzak 21, 11:00etan

Erdi Mailako Heziketa Zikloak:

- Mekanizazioa
- Administrarritza kudeaketa
- Instalazio elektrikoak eta automatikoak

Goi Mailako Heziketa Zikloak:

- Diseinua fabrikazio mekanikoan
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Administrazioa eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Industri ekipoen mantenimendua

Especializazio Graduondokoa: Hotzeko estanzazioa

Sarbide frogarako prestaketa klaseak

Eskaintza Partziala: Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

Langile eta langabetuentzat ikastaroak

"Zure etorkizunean pentsatuz LHan gauzatu"



AURREMATRIKULA: ekainaren 1etik 10era. • **MATRIKULA:** uztailaren 4tik 8ra.



Ken Zazpi taldeko kideak zuzenekoan. | ARTXIBOA

Euskal talde indartsuenetarikoaren doinuek girotuko dute iluntzea

Ken Zazpi talde bizkaitarrak eta PVL HAVOC bakarlariak kontzertua eskainiko dute gaur Amaia antzokian; 22:00etan hasiko da emanaldia

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Euskal pop-rockaren talde indartsuenetariko bat izango da gaur Arrasateko Amaia antzokian. Eñaut Elorrietaren Ken Zazpi taldeak kontzertua eskainiko du, 22:00etan hasita. Sarrera 15 euro kostako da.

Talde bizkaitarrak estudioan grabatutako azken lana aurkeztuko du Amaian: *Ortzemugak begietan*. Zuzenean eskainiko dituzte azken diskoko lanak, tartean *Itsasoa gara* abesti goraiptua.

Musika Sarietan finalean

Itsasoa gara abestiarekin hainbat sariketatan izan dira bizkaitarrak. Azkena, adibidez, Musika Sarien 15. edizioan. Euskarazko kantu onenaren sailean finalerako sailkatu ziren Ken Zazpi taldeko kideak. Baina sariak asteon eman dituzte, eguaztenez, eta bizkaitarrak esku hutsik geratu dira. Izan ere, euskarazko abesti onenaren saria Bide Ertzean taldeak eroan du *Don Inorrez* abestiarekin. Hirugarren finalista Olatz Zugasti izan zen *Gau hotzenez* ere abestiarekin.

Soinu berriak eta tradizionalak

Ortzemugak begietan diskoa 2010eko urrian argitaratu zuten Elkar-Argiak argitaletxearekin. Taldearen asmoa disko berriari soinu berriak jartzea izan da. Hala, disko berriko abestiek soinu anglosaxoia hartu dute. Hala ere, Ken Zazpi taldearen betiko doinu tradizionalak badute tokia diskoan. Euskal Herrian eta AEBetan grabatu zuten. Lehenengo Iñaki Uoho eta Haritz Harreguyren Hi Gain estudioetan;

eta, ondoren, Los Angelesera joan ziren Rafa Sardinaren After Hours estudioa.

Abestien hitzak idazteko orduan Joseba Sarrionandiaren laguntza izan dute bizkaitarrak. Sarrionandiaz gain, abestien letrak idazten lagundu dute Maialen Lujanbio, Jon Maia, Julen Gabiria eta Uxue Alberdi bertsoariak. Gainera, Alberdik ahotsa jarri dio diskoko abesti bati.

Sei disko argitaratu dituzte

Jon Mikel Arronategik eta Eñaut Elorrietak 1996an Gernikan sortutako taldea da Ken Zazpi. Baina gaur egungo taldea 2000. urtean eratu zuten. Sei disko argitaratu dituzte orduetik hona: *Atzo da bihar* (2001), *Bidean* (2003), *Gelditu denbora* (2005), *Argiak* (2007), *Zazpi urte zuzenean* (2009) eta *Ortzemugak begietan* (2010).

Gaur egun sei lagunek osatzen dute taldea: Eñaut Elorrieta, Jon Mikel Arronategi, Igor Artzanegi, Beñat Serna, Iñaki Zabaleta eta Jon Freskok. Horrenbestez, euskal pop-rock freskoenaz gozatzeko aukera paregabea izango da Amaia antzokian.

'Ortzemugak begietan' lana aurkeztuko dute Arrasaten

Sarrionandiak idatzi dizkie disko berriko hainbat letra

Mahaster River taldearen ibilbideko azken kontzertua

Zapatuan izango da kontzertua gaztetxean, 22:00etan; Magalirendako dirua batuko dute

A.E. | BERGARA

Magali Muruamendiaratz neskatilaren aldeko kontzertua izango da Mahaster River hirukoteak eskainiko duen azken zuzeneko. Gaztetxean izango da saioa eta parte hartuko dute, Mahaster Riverrez gain, Garatek eta DJ Mansillak. Kontzertua bihar izango da, 22:30ean, hiru euroren truke.

Modu horretan, Mahaster Riverrek bidaiaren amaiera taularatuko du Bergaran. Mikel Garate bakarlariak *Kantaxumeak* disko berria aurkeztuko du eta gauari amaiera DJ Mansillak emango dio.

Gaur, kontzertu lasaiak

Egubakoitzak kartzelan ekimenak, berriz, Getxoko eta Kataluniako musika ekarriko du gaur kartzela zaharreko terrazara.

Getxoko Moby Dick bakarlariak abesti propioak eta ber-

tsio ezagunak tartekatzen ditu. Sentimenduz beteriko ahots indartsua eta gitarra akustikoa besterik ez du izango lagun.

Te Verde Kataluniatik

Katalanen proiektu berriak rocka, popa eta sentimenduz betetako letrak nahasten ditu formatu akustiko interesgarrian. Aurrez beste hainbat proiektutan ibili diren eskarmentu handiko musikariak dira David eta Jaume. *Esperanza, sol y tranquilidad, unplugged tour 2011* da haien proiektu berria.

Zuzenean eta irrati bidez

Kontzertua 22:00etan hasiko da eta hiru euro kostako da. Musika zuzenean entzuteko aukeraz gain, irratan ere zuzenean entzun ahal izango dute kontzertua, Txapa Irratian, 97.2 dialean, eta streaming bidez www.txapairratia.org atarian.



Mahaster River hirukotea. | GOIENA

Unax Ugalde aktore gasteiztarra Oñatin izango da gaur 'Bon Appétit' filma aurkezten

A.E. | OÑATI

Goya sarietan zuzendari berri onenaren saria lortu zuen *Bon Appétit* (David Pinillos) filma eskainiko dute gaur Oñatiko kultura etxean. Emanaldia 19:00etan izango da eta ondoren zinema-foruma egingo dute filmeko protagonistekin. Unax Ugalde aktore gasteiztarra eta

David Pinillos zuzendaria egongo dira Oñatin; eta, haiei laguntzen, filmean parte hartu duten bi oñatiar: Aitor Mantxola argazki zuzendaria eta Aitor Perosterena, atrezzoaren egin duena.

Solasaldian parte hartzeko gonbidapenak eskatu behar dira kultura etxean 16:30etik aurrera.

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011
maiatzak 21

ekainak 18
uztailak 16
irailak 17
urriak 15
azaroak 19

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Engleku eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
herbertasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



ASTEAGOIENAN



Hauteskundeak berri zuzenean jaso ahalko duzue

Domekan eskainiko dugu hauteskundeak gainera saioa, zuzen-zuzenean, 19:45ean hasita. Ibarreko alkategaiak botoa ematen ikusiko ditugu eta lehenengo adierazpenak ere jasoko ditugu.

'Hauteskundeak 2011'
Domeka, 19:45



Errenteriako Musikastek emandakoa

Gipuzkoa kultura saioan Errenteriako Musikastek emandakoa jasoko dugu eguenean 22:15ean. Baita Donostiako Koldo Mitxelena ganbaran dagoen erakusketa ere: *Piztiak gabeko kalapitxak*.

'Gipuzkoa kultura'
Eguena, 22:15

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMEKA, 22	ASTELEHENA, 23	MARTITZENA, 24	EGUAZTENA, 25	EGUENA, 26
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak	13:05 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari	09:30 Ipupomamua	08:35 Klik	13:30 Kantari	13:45 Kantari	13:35 Kantari	13:45 Kantari
14:15 Onein	10:00 Klik	08:55 Ipupomamua	14:05 Berbetan	14:20 Onein	14:00 Harmailatik	14:15 Onein
14:45 Berriak	10:30 28.Klip	09:30 Marrazki bizidunak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur	11:00 Ur eta lur	10:00 Kantari	15:05 Klik	15:15 Harmailatik	15:15 Onein	14:45 Berriak
15:45 Leku txiki bat	11:30 Onein	11:05 28.Klip	15:45 28.Klip	16:00 Ikusmira	15:45 Hamaika.bit	15:15 Hamaika.bit
16:00 Hamaika.bit	12:05 Berriak	11:35 Berbetan	16:15 Gipuzkoa kultura	16:15 Hamaika.bit	16:15 28.Klip	15:45 Tertulia
16:30 Berriak	12:20 Kantari	12:10 Ur eta lur	16:45 Berriak	16:45 Berriak	16:15 28.Klip	16:45 Berriak
17:00 Hauteskundeak 2011: Antzuola	13:55 Gipuzkoa kultura	12:40 Ikusten	17:15 Erreportajea	17:15 Solasaldiak	16:45 Berriak	17:15 Ur eta lur
17:55 Hauteskundeak 2011	14:30 Marrazki bizidunak	13:10 Onein	17:45 Bi tartean	18:00 Ikusten	17:15 Bizitegia	18:45 Berriak
18:30 Leku txiki bat	15:45 Ikusten	13:45 Gipuzkoa kultura	18:15 Ikusmira	18:15 Ikusmira	18:20 Gipuzkoa kultura	19:15 Kantari
18:45 Berriak	16:15 Gipuzkoa kultura	14:15 Hamaika.bit	18:30 Leku txiki bat	18:45 Berriak	18:45 Berriak	19:45 Magazinea
19:15 Kantari	16:45 Magazinea	14:50 Magazinea	18:35 Berriak	19:15 Kantari	19:15 Kantari	20:45 Tertulia
19:45 Magazinea	17:45 Bertso saioa	15:50 Ikusmira	19:15 Kantari	19:45 Magazinea	19:45 Magazinea	21:45 Bizitegia
20:45 Hauteskundeak 2011	18:15 Berbetan	16:05 Marrazki bizidunak	19:45 Magazinea	20:45 Bizitegia	20:45 Tertulia	22:15 Gipuzkoa kultura
21:15 Magazinea	18:50 Bi tartean	16:35 Berriak	20:45 Harmailatik	21:15 Magazinea	21:45 Magazinea	22:45 Magazinea
22:15 Hauteskundeak 2011	19:20 Nere herrie	16:50 Kantari	21:30 Magazinea	22:15 Harmailatik	22:45 Tertulia	23:45 Solasaldiak
	20:05 Berriak	18:15 Ipupomamua	22:30 Harmailatik	23:00 Magazinea	23:45 Magazinea	
	20:20 Klik	18:45 Magazinea	23:15 Gipuzkoa kultura			
	20:50 Magazinea	19:45 Hauteskundeak 2011				
	21:50 Bi tartean					
	22:20 Hamaika.bit					
	22:55 Magazinea					

ARRASATE IRRATIA

Domekan jarraitu zuzenean gurekin hauteskundeak

19:45ean hasita, aurtengo hauteskundeak lehenengo datuak emango dizkizuegu. Eta lehenengo inpresio eta balorazioak ere jasoko ditugu. Beraz, domekan jarraitu hauteskundeak zuzenean Arrasate Irrati bidez.

Mundumiraren materiala izango dugu zozketan

Euskal Herriko paisaien hiru liburuko packa banatuko dugu datorren astean. Zozketan parte hartu nahi baduzue bi aukera dituzue: deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi irratia@goiena.com helbidera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Zapatua, 21	ANA FDEZ. CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Domeka, 22	JUAN ANTONIO IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Astelehena, 23	LOURDES AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Martitzena, 24	ANA ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguaztena, 25	AURORA RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguena, 26	ERKUDEN ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30
Egubakoitza, 27	ALBERTO AZCOAGA	Ferrieras, 1	943 79 15 15
BERGARA			
Zapatua, 21	L. ALVAREZ-M. MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Domeka, 22	L. ALVAREZ-M. MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Astelehena, 23	A. URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Martitzena, 24	INIGO ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 25	MERCEDES GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 26	JAVIER ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 27	L. ALVAREZ-M. MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
OÑATI			
Zapatua, 21	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 22	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 23	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 24	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 25	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 26	ANDUAGA	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 27	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
ARETXABALETA			
Zapatua, 21	JUAN FRAILE	Herriko plaza, 1	943 79 21 99
Domeka, 22	JUAN FRAILE	Herriko plaza, 1	943 79 21 99
Astelehena, 23	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Martitzena, 24	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Eguaztena, 25	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Eguena, 26	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Egubakoitza, 27	DOLORES AGIRRE	Gorosarri plaza	943 71 48 28

Farmazien eskuko telefonoetarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.altitria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

Max. 25°
Min. 12°

Max. 23°
Min. 10°

ZAPATUA, 21
Goizean giro eguzkitsua izango dugu, baina eguerditik aurrera bero-hodeiak garatu eta zaparrada trumoiatsuak izango dira.

DOMEKA, 22
Ekaitzarik izango ez den arren, ez dugu eguzkirik ikusiko ia egun osoan. Tenperaturak behera egingo du.

EUSKAL HERRIA

Haize aldakorra eta ahula ibiliko da, ipar ukituarekin. Zapatutik domekara tenperaturak jaitsi egingo dira.

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK
Musika. Gipuzkoako Foru Aldundia. Harizko instrumentistentzako Nicanor Zabaleta Beka. Harizko instrumentistek prestakuntza espezializatua jasotzeko urtebeteko beka. Epea: maiatzaren 30a.

Ikerketa. Eusko Ikaskuntza. Eusko Ikaskuntzaren Apraiz-Zumalabe beka. Epea: ekainaren 30a.

Ikus-arte eta literatura. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara departamentua. Ikus-arteetako eta literatura sorkuntza nahiz sustapen lanetarako beka, lau hilabeteko iraupenarekin. Epea: maiatzaren 30a.

LEHIAKETAK
Argazkilaritza. Oiartzungo Udala. Oiartzungo III. Argaz-

ki Lehiaketa. Epea: maiatzaren 31.

Argazkiak. Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako Udalek eta UGGASAK. Fokatu Urola Garaia argazki digital lehiaketa. Epea: Maiatzak 31.

LANA
Arrasate. Arrasateko Udala. Hainbat lanpostu betetzeko 2011ko Lan Eskaintza Publikoaren Epea: ekainaren 3a.

Begiraleak. Legazpiko Udala. Begiraleak behar dira uztaileko haurren uda ikastaroa gutapen lanetarako beka, lau hilabeteko iraupenarekin. Epea: maiatzaren 27a.

GAZTE AGENDA
Gazteria. Maiatzaren 15etik 21era bitartean 2011ko Gazteriaren Europar Astea.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANER GERO:
Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



Nerea eta Gorka

Nerea Ruiz de Gauna elgoibartarra eta Gorka Cebrian bergarra aurreko zapatuan, maiatzaren 14an, ezkondu ziren. "Zorionak eta eskerrik asko eskaini zeniguten ezkontzagatik. Ondo ibili New York eta Mexiko aldetik".



Ramon eta Ana Maria

Ramon Lumbreras eta Ana Maria Ceciaga, orain 40 urte ezkondu ziren, maiatzaren 19an, Arrasateko San Isidro elizan. Zorionak familiaren partetik.



Ibon eta Ainara

Ibon eta Ainara, maiatzaren 14an ezkondu ziren. Kemen koadrillak eskerrak eman nahi dizkizue pasarazitako egun ederragatik. Ondo pasatu ezkonbidaian eta muxu handi-handi bat!



Iker eta Nekane

Iker Bernal eta Nekane Osa atxabaltarrak zapatuan ezkonduko dira Dorletan. Ondoren, familia eta lagunekin ospatuko dute Lasajatetxean. Hauen guztien eta baita lankideen partetik ere, "asko disfrutatu egun horretan eta ondorengoetan; guk horrela egingo dugu-eta. Zorionak, bikote, eta andele, andele!".



Pedro eta Rosario

Rosario Murguiondo eta Pedro Garcia, orain 50 urte, 1961eko maiatzaren 20an, ezkondu ziren Bergarako San Prudentzio elizan. Zorionik beroenak zuen seme, alaba, suhi, errain eta ilobaren partetik eta egun eder eta zoriontsua pasatu.



Aitziber eta Gorka

Arrasateko Aitziber Jimenez eta Hernaniko Gorka Villar, zapatu honetan ezkontzen dira Arrasateko udaletxean. Itziaroko Salegin ospatuko dute bazkaria. Zorionak eta ondo pasatu "Las Potxolis"-en partetik.

HILDAKOAK

Engracia Alava Aguirre. Arrasaten, apirilaren 29an. 76 urte.
Miren Arrazola Beitia. Oñatin, maiatzaren 6an. 89 urte.
Elias Ibarrodo Oleaga. Oñatin, maiatzaren 6an. 85 urte.
Jose Migel Moñux Etxaniz. Donostian, maiatzaren 7an.
Feli Larretegi Arenaza. Bergaran, maiatzaren 8an. 78 urte.
Iñaki Altube Kortabarría. Oñatin, maiatzaren 8an. 63 urte.
Pako Ansoategi Iribecampos. Arrasaten, maiatzaren 9an. 59 urte.
Benita Gallastegi Galarza. Bergaran, maiatzaren 12an. 88 urte.
Adolfo Hernandez Saez. Arrasaten, maiatzaren 15ean. 92 urte.
Florentina Leceta Letamendi. Arrasaten, maiatzaren 13an. 81 urte.
M. Nieves Maguregi Fernandez. Arrasaten, maiatzaren 16an. 79 urte.
Benita Gallastegi Galarza. Bergaran, maiatzaren 13an. 48 urte.
Felipe Alcelay Irazola. Bergaran, maiatzaren 13an. 89 urte.

ESKER ONA

Benilde Gutierrez Lopez

Jesus Ruedaren alarguna



Bergaran hil zen 2011ko maiatzaren 6an, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko haren seme-alaba, iloba, gainerako senide eta lagunentzat partetik.

Bergaran, 2011ko maiatzaren 20an.

ESKER ONA

Felipe Alcelay Irazola



Bergaran hil zen 2011ko maiatzaren 13an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2011ko maiatzaren 20an.

URTEURRENA

Maria Luisa Egaña Azurmendi

'Koldo Egaña'



2010eko maiatzaren 22an hil zen, 54 urte zituela.

Haren senarra: Javier Icaiz. Seme-alabak: Borja eta Maria. Anai-arrebak: Juan Ignacio, Arantxa eta Sabin (+). Gurasoak: Ignacio (+) eta Maria Luisa. Ezkon-gurasoak: Jesus (+) eta Ana M. Elarre. Ezkon-arrebak: Rosa M., Ana eta Idoia. Iloba eta gainerako ahaideek dei egiten dizute:

lehen urteurreneko mezara zapatuan, maiatzaren 21ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Engracia Alava Aguirre



Gasteizen hil zen 2011ko apirilaren 29an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren aldeko meza domekan, maiatzaren 22an, 12:30ean, Arrasateko San Andres auzoko elizan ospatuko da.

Arrasaten, 2011ko maiatzaren 20an.

ESKER ONA



Iñaki Altube Kortabarría


Oñatin hil zen 2011ko maiatzaren 8an.

Lerro hauen bidez Iñakiren familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi dizkiguzuen guztioi.

Adierazi, ondra meza zapatuan, maiatzaren 21ean, 19:30ean, Oñatiko Agustinoetan ospatuko dugula.

Oñatin, 2011ko maiatzaren 20an.

GOIENAN ESKELA JARTZEKO
 DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.
 EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro.
 Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
 Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

Babeslea:

Euskalduna
 Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
 Etengabeko zerbitzua
 Lore koroak
 Eskelak
 Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
 e-posta: euskalduna@harrespil.net



ARRASATE Ken Zazpi

Ortzemugak begietan lan berria aurkeztera etorriko dira genikarrak. Hain zuzen, iaz kaletatu zuen boskoteak lan berria eta ordutik hona jardun du Euskal Herrian aurkezten. Sarrerak Kutxa banketxeke kutxazainen bitartez eros daitezke. Egunean bertan txar-teldegian ere egongo dira eskuragarri.

Gaur, Amaia antzokian, 22:00etan.



KEN ZAZPI



GOIENA

OÑATI Ain_1

Martxoak 8 egunero delako leloarekin, Oñatiko talde feminista antolatuta, Arrasateko Ain_1 taldearen kontzertua. Musika, poesia, dantzak... uztartuko dituen ikuskizuna eskainiko du boskoteak.

Gaur, barikua, Arrano tabernan, 22:00etan.

MUSIKA**OÑATI Vocalia taldearen kontzertua Bidaurretan**

Bidaurretaren 500. urteurrenaren harira antolatutako kontzertua da. Bihar, zapatua, 18:00etan izango da emanaldia. Vocalia emakume ahots taldea da, 2000. urtean sortutakoa. Maiatzaren 21a, zapatua, Bidaurreta monasterioan, 18:00etan.

BERGARA Moby Dick eta Te Verde taldeen kontzertua

Moby Dick eta Te Verde taldeen kontzertua egongo da gaztetxean. Sarrera: 3 euro. Antolatzailea: Bergarako gaztetxea. Maiatzaren 20a, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI Siete C taldearen kontzertua

No more boring Fridays egitasmoak antolatuta Siete C taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, MUko Oñatiko fakultatean. Kontzertua doan izango da. Maiatzaren 20a, egubakoitza, Oñatiko Enpresagintza fakultatean, 22:00etan.

OÑATI Shut Up! taldearen kontzertua

Shut Up! funk-rock instrumentala jotzen duen talde gaztea da. Fernando Laskurain (gitarra), Mikel Azkargorta (baxua) eta Mikel Ilarduiak (bateria) osatzen dute taldea. Gaur, egubakoitza, Oñatiko Antton tabernan, 20:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

MAIATZA 20
MAIATZA 26

ANTZERKIA**ARRASATE 'Ogiyik karri etzun semia' antzezlana**

Ogiyik karri etzun semia antzezlana taularatuko dute eguaztean Kulturaten. Antzezlana doan izango da, eta euskaraz. Maiatzaren 25a, eguaztena, Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA 'Monster show' kale antzerkia

Panta Rhei antzerki taldearen Monster show kale antzerkia egongo da ikusgai San Martin plazan. Eurria eginez gero, Zabalotegin egingo dute saioa. Maiatzaren 21a, zapatua, San Martin plazan, 18:00etan.

ARAMAIO 'Gatazka hasi da!'

Orratx! antzerki taldearen antzezlana. Kostaldeko herri txiki bateko terma-etxe baten gainbeheran girotua. Maiatzaren 20a, egubakoitza, kultura etxean, 22:15ean.

ARETXABALETA 'Baginaren bakarriketak' antzezlana

Aitziber Garmendia eta Ainhoa

Garai aktoreen antzezlana, Txalo Produzioak etxeak ekoiztuta. Doan da.

Gaur, egubakoitza, Arkupen, 22:00etan.

BERGARA 'XL Town' antzezlana

Pikor Teatro taldearen XL Town antzezlana ikusgai egongo da, Zabalotegi aretoan. Sarrera: 5 euro. Gaur, Zabalotegin, 22:00etan.

OSPAKIZUNAK**ARETXABALETA Santa Rita eguneko ospakizuna**

Santa Rita eguna domekan, hilak 22, bada ere, astelehenean ospatuko dute agustindarren monasterioan. Bi meza esango dituzte, eta arrosak bedekatu: 11:30 eta 18:00.

Maiatzaren 23an, astelehena, agustindarren monasterioan, 11:30ean 18:00etan.

ARETXABALETA Udaberri Jaia

Arizmendi ikastolako Basabezpiko lagunek VI. Udaberri Jaia egingo dute. Hona eguneko ekitaldi batzuk: irteera gidatua eta girotua; jolasak eta moka-

duxoa Herriko Plazan: herri bazkaria eta txotxongiloak. Maiatzaren 21a, zapatua, Basabeazpi gunean, 10:30ean.

ELGETA Motor jaiak 2011

Elgetako IV. motor jaiak maiatzaren 20tik 22ra. Motor erakusketa, paella erraldoia, kontzertuak... Maiatzaren 20ean, egubakoitza, 20:00etan hasita.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**BERGARA 'Imparable'**

Imparable filma emango dute.

Zuzendaria: Tony Scott. Generoa: Akzioa. Iraupena: 101 min. 7 urtetik gorakoentzat. Maiatzaren 22a, domeka, Zabalotegi aretoan, 19:30ean.

BERGARA 'Midas erregearen altxorra'

Midas erregearen altxorra filma emango dute. Zuzendaria: Maitte Ruiz de Austri. Generoa: Animazioa. Iraupena: 72 min. Publiko guztientzat. Maiatzaren 22a, domeka, Zabalotegi aretoan, 17:00etan.

UMEAK**ARETXABALETA 5 urtetik gorakoendako ikuskizuna**

Mr. Red & Mr. Blue. 5 urtetik gorako umeendako ikuskizuna. Sarrera: 3 euro. Maiatzaren 22an, domeka, Arkupen, 17:00etan.

BERGARA Jolasleku ibiltaria Jardunekin

ULMA ULMA Agrícola, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DE IA

Eguna: 2011ko maiatzaren 26a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2010eko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2011ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2010eko ekitaldiari dagokion interesen sortzapena
5. 2010eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
6. Emaizak banatzea
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
8. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
10. POGU III eta Barne Araudi Kooperatiboko 42. eta 82. artikulua aldatzea, baldin badagokio
11. Menpeko ekarpen finantzarioen jaulkipena
12. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko. Era berean, bazkide guztien jakinarazten gaiten zera jartzen da, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIren aldaketan testuak ULMA Agrícola, S. Coop.eko egoitza sozialean aztertzeke eskubidea dutela. Hala eskatzekoan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2011ko maiatzaren 12a

BERGARA The Cute Leppers

San Frantziskoko The Cute Leppers eta Londresko The Boys taldeek jardungo dute bihar, zapatua, Jam aretoan. Bi talde horiei lagun egiten Golpe de Estado talde oñatiarrak jardungo du. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrera zehazteke dago. Punk-rock jaialdia eskainiko dute. Bihar, zapatua, 19:00etan, Jam aretoan.



LOMEJORDEL.PUNK.ES



goiena

2011-05-20

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Txakurrendako ile-apaindegi ibiltaria

- ▶ Ariane de la Fuente herririk herri ibiltzen da furgonetarekin txakurak eta katuak apaintzen
- ▶ Duela hiru urte ipini zuen martxan negozioa eta oso pozik dago izan duen erantzunarekin

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Furgoneta bitxia topatu genuen joan den astean Bergaran, Poligonoko aparkalekuan aparkatuta. Ariane de la Fuente ermuarrak txakurrendako ile-apaindegi bihurtu du furgoneta.

Hiru urte daramatza bere furgoneta bereziarekin hara eta hona eta oso pozik dago hartutako erabakiarekin: "Txakurrendako ile-apaintzaile izateko ikasketak egin nituen, Bilbon, eta, hainbat ile-apaindegitan lanean ibili ostean, nire negozio propioa irekitzea erabaki nuen. Bartzelonan nirea bezalako furgoneta bat ikusi nuen behin, eta hortik hasi zen guztia", kontatu zigun Txiki-ri ilea moztetan bitartean.

Ezin herri guztietara iritsi

Ermuan, Eibarren eta Durangaldean lan handia egiten du De la Fuentek, eta Debagoiengan, Elgeta, Antzuola eta Bergarara etortzen da. Zerbitzua leku gehiagotara zabaldu nahiko luke, baina, oraindik, ezinezkoa zaio: "Pena ematen dit, baina, oraindik, ezin naiz herri gehiagotara joan; ezin dut bezero gehiagorik hartu. Neguan lasaiago ibiltzen naiz, baina uda iristen denean



Ariane de la Fuente, Bergaran, furgonetan, Txiki-ri ilea moztzen. | A. TXINTXURRETA



Debagoiengan, Bergarara, Elgetara eta Antzuolara etortzen da. | A. TXINTXURRETA

ezingo nieke guztiei erantzun. Jendeak esaten dit beste furgoneta bat ipintzeko martxan, baina horrek ekarriko luke beste pertsona bat kontratatzea, eta ezagutzen nauden jendeak nahi duena da nik orraztea euren txakurra. Oraingoz, behintzat, horrela izan beharko du".

Egunean bost edo sei txakurri moztzen die ilea. Bergarara etorri aurretik Eibarren eta Ermuan egona zen, eta Txiki-rekin amaitu ostean Ermuan beste txakurtxo bat zuen zain.

Herri txikiendako soluzioa

Herri txikiendako biztanleek asko eskertzen dute De la Fuenteren furgonetak eskaintzen duen zerbitzua: "Bestela, hiriburu batera joan behar dute, eta horrek denbora luzea galtzea dakar. Bezeroarekin bere etxetik gertu egiten dut hitzordua, txakurra batu eta aparkaleku batera joaten naiz. Ni txakurrekin nagoen bitartean, bezeroak bere lanak eta gauzak egiten jarrai dezake".

Txakurrez gain, katuak ere apaintzen ditu De la Fuentek Cuatro Patas furgonetan. Lau gorpulen gainean, lau hankakoak dotore-dotore ipintzen ditu.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE



Hautagaia

Lehenengo aldia da hautagai naizela Udaleko zerrendaburu bezala. Esperientzia gazi-gazoa. Jende askok ilusioz animoak ematen dizkit, beste batzuek begiradarekin mespretxua. Ez da samurra trantze hau... Debate eta komunikabideetan batak bestearek kritikak leporatzen dizkiogu. Errespetuz eginez gero, zilegitasun osoz. Baina kontuan izan, hautagaiok, maiatzaren 23a iritsiko dela. Udaletxe bakoitzean, Batzar Nagusietan, batak bestearekin errespetuz jokatu behar dugu eta bake eta normalizazio politikoaren bidean ipini behar ditugu gure indar guztiak.

Euskal Herriko herriak krisi egoeran daude. Langa-bezia, nahiz eta gurean Espainian baino askoz baxuagoa izan, altuegia da. Jendearen kezkarik nagusia hau da: lana izatea. Gure gazteek, ikasketak amaitu eta euren burua kalean, etorkizunik gabe ikustea, herri batek izan dezakeen gauzarik tristena da. Egoera honi buelta emateko proiektu sendoa behar da. Lan inizatiba berriak erakartzeko eta sortzeko apustua egingo duen proiektua... Orain bi urte gertatu zen bezala, jendeak ez dezala esan 23an: "Jakin izan banu...!". Ondo pentsatu eta bozkatu!



ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA · OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA · ERIZAINTZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

AURREMARIKULAZIO EPEA EKAINAREN 1 ETIK 1 OERA

Orain da garaia!

943 77 20 25 // WWW.ARIZMENDIPRO.EU

ARIZMENDI
ikastola